

**aurkibidea**

	<b>Zenbaki honetan</b> ... ..	<b>3</b>
<b>IPAR EUSKAL HERRIA</b>	Jose Basurko	
	<b>Arrantza Iparraldean</b> ... ..	<b>6</b>
	Lucien Etxezaharreta	
	<b>Kultur espazioak eskuratu</b> ... ..	<b>10</b>
	Piarres Ehulatei	
	<b>Iparraldeko euskal idazleak gaur</b> ... ..	<b>16</b>
	Dominique Heguy, Marta Ithurbide	
	<b>Euskararen Irakaskuntza</b> ... ..	<b>27</b>
	René Gelos	
	<b>Pintura Ipar Euskal Herrian 1930az geroztik</b> ...	<b>34</b>
	Maite Idirin	
	<b>Herri kanta egungo Iparraldean</b> ... ..	<b>43</b>
	Xabier Gasteiz	
	<b>Baionako euskal irrati-telebistak</b> ... ..	<b>61</b>
	Askoren artean	
	<b>Ipar Euskal Herriaz mahain ingurua</b> ... ..	<b>64</b>
	<b>Bibliografia</b> ... ..	<b>72</b>

ORAIN ETA HEMEN	<b>Liburu gabeko gerrateondoa</b> (Joseba Intxausti). <b>Valencian ez da «katalanez» mezarik nahi</b> (Manolo Pagola). <b>Udara begira</b> (Antonio Iraola). <b>LANTZEN: ELAren aldizkari sindikala sortu da</b> (Joxe Azurmendi). <b>Hamar urtetik hamar urtera, ideologia berri bat?</b> (Joxe Azurmendi)	74
GAIAK	Joseba Intxausti <b>Linguistika eta Herrigintza Katalunian</b> ... ..	83
	Manolo Pagola <b>Puebla 79</b> ... ..	93
AGIRIAK	<b>Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak</b> ... ..	106
KULTUR BIDEETAN	Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Joan Mari Torrealday <b>Rikardo Arregi, 1942-1969</b> ... ..	109
LIBURUAK	Jon Kortazar <b>Olerki solteak</b> ... ..	119
	Jon Kortazar <b>Etiopia</b> ... ..	123
	<b>Jaso ditugu</b> ... ..	128
GUTUNAK	<b>«Historiarik gabeko» Iparrari buruz zuzenketa batzu</b> (Beltza) ... ..	129
	<b>EUSKERAZAINTZA'ren joku zintzoa</b> (Latiegi'tar Bixente) ... ..	131
OHARRAK	... ..	133

Idazkaritza eta administrazioa	Gral. Mola, 23, 1.º esk. Donostia
Jabegoa	Anaidia, Arantzazu
Dep. Leg.	S. S. 25/1977

1979. urteko bigarren zenbaki hau, aurrekoa osatuz dator zatirik nagusienean. JAKIN 9.ean Ipar Euskal Herria demografiaren, politikaren, ekonomiaren eta nekazaritzaren aldetik arakatu bagenuen, oraingo honetan beste zenbait arlo komentatzera jo dugu, hala nola, arrantza, idazlegoa, euskararen irakaskuntza, herri kanta, komunikabideak. Ikusten denez, kultur-eremuko gaiak osatzen dute monografia honen zati nagusia.

Jose Basurkok Iparraldeko portuetako arrantza-munduaren panorama eskaintzen digu: hor ikus ditzakegu arrantzaren egoera objetiboa eta ariantzaleen burruken arrazoiak eta soluziobi-deak.

Lucien Etxezaharretaren lanarekin kulturaren hesparruan sartzen gara: ingurune aldakor honetan euskal kultura jator baten errebindikapena egiten du gogoeta moduan.

Piarres Ehulateik Ipar Euskal Herriko idazleria zertan den agertzen digu, zehatz mehatz idazle guztien izenak hiru belaunalditan banaturik eskainiz.

Euskararen irakaskuntzaren berri ematen digute Dominique Heguy eta Marta Ithurbide senar-emazteak. Hots, euskararen irakaskuntza unibertsitateetan, ikastoletan, eskola pribatu eta publikoetan eta gau-eskoletan.

René Gelos pintatzaileak, G. Lantziriren laguntzaz, azken menderdi honetako pintura ikertzen du, Donibane Lohitzuneko eta Baionako Eskolak bereziki.

Herri kantaz ari zaigu Maite Idirin, kantaria bera ere. Kantarien eta kantuareri ingurumariaren berri zehatza dugu artikuluhonetan.

X. Gasteizek, bere aldetik, labur eta garbi, Iparraldeko irratitelebisten euskaltzaletasunaren eskasia edo gabezia salatzen du.

Eta, azkenik, monografian zehar gutiegi erabilirik eta/edo sakonki tratatzeke gelditu diren gaietaz mahain-inguru bat ospatu genuen, bi zenbakietako idazleak oro bildurik. Ikuspegi eta gogoeta interesgarriak agertzen da hor.


*Gaiak* saila ongi orniturik dator oraingoa. Barcelonako Unibertsitateko Erretore den Antoni Badia-ren liburu batetan oin-harturik, Kataluniako Linguistikaren eta Herrigintzaren harremanetaz ari zaigu Joseba Intxausti.

Sail berean Manolo Pagolak Latinoameriketarako hain munta handikoak diren Puebla-ko bilkuren eta dokumentuen azterketa egiten du.

*Kultur bideetan* sailean Rikardo Arregi, hil eta hamar urtetara, gogoratzen digute M. Lasak, A. Lertxundik, R. Saizarbitoriak, I. Sarasolak eta J. M. Torrealdayk, bostok haren lagun eta adiskide.

*Liburuak* sailean Jon Kortazar-ek, ohi duen xehetasunez, Jesus Etchezarragaren «Olerki Solteak» eta B. Atxagaren «Etiopia» aurkezten ditu.

Eta zenbaki hau *Gutunak* eta *Oharrak* sailetako oharrez ixten da. Oro har, uste dugu zenbaki interesgarria dela eta materialerik frango eskaintzen duela.



j. basurko  
l. etxezaharreta  
p. ehulatei  
d. heguy  
m. ithurbide  
r. gelos  
m. idirin  
x. gasteiz

## IPAR EUSKAL HERRIA

### **Arrantza Iparraldean**

Hegokoen eta Iparrekoen burruka zertan den. Etorkizunean konponbiderik?

### **Kultur espazioak eskuratu**

Kultura zentzu zabalean. Nolako ekonomia, halako kultura. Kultur-espazioaren eskuratzea.

### **Iparraldeko euskal idazleak gaur**

Lehen belaunaldia: 1900-1910. Bigarren belaunaldia: 1920-1936. Hirugarren belaunaldia: 1936tik hona.

### **Euskararen irakaskuntza**

Eskoletan euskara «hautagai». Ikastolak gora, eragozpenen gaitetik. Gau-Eskolen arrakasta.

### **Pintura Ipar Euskal Herrian 1930az geroztik**

Donibane Lohitzuneko Margolari Eskola. Baionako Margolari Eskola.

### **Herri Kanta egungo Iparraldean**

Euskal abesti tradizionala. Herri abesti berria. Dantzaldiak. Abesti-emankizunak.

### **Baionako euskal irrati-telebistak**

1963an hasi. Irrati-emankizunak eskas. Eskasago, telebistakoak.

### **Ipar Euskal Herriaz mahain ingurua**

Abertzaletasunaren indar eskasa. Euskalduna, industria eta lurra. Frantsesa euskararen aitzinean.

### **Bibliografia**

## Arrantza Iparraldean

Jose Basurko

Lehenik bereizi behar ditugu ur handitako arrantza edo «alturakoa» eta itsas bazterreko arrantza edo «baxurakoa».

Itsas zabaleko arrantzak garrantzi handia du Hegoaldean: hor daude, lehenengo, Ternuaraino zihozten makailoaren arrantzaleak, 50 ontzi bederen, 7.500 lagun bizi bidea ematen zutenak. Bigarren, atunetako 40 bat ontzi, gehienak Bermeotarrak. Eta azkenik, arrasterarrantzako 400 bat ontzi (224 Pasaian eta Ondarroan), egundainotik Ingalaterrako uretan ibiliak eta gaur 200 miletako lege berriak asko trabatzen dituenak. Arrantzale hauek ez dute eztabaida handirik Iparraldeko lagunekin, ezen Iparraldean arrantza-mota horiek galduxe bait dira. Bakarrik 28 atunetari ditu Donibanek, Dakarreko aldeetan urte guztia iragaten dutenak, 100 bat itsasgizon eta teknikalari euskaldunekin, hango lagun beltzen laguntzari esker, 10.000 tona arrain hartzen baitituzte apiriletik urrira bitarte horretan. Ez dute hauek problema-rik, han gaindi aurki ditzaketen Bermeotarrekin.

Baina, bestalde, baditugu itsas bazterreko arrantzaleak, azaleko arrantza edo urartekoa, «pelagikoa» deitua, egiten dutenak: 360 ontzi Kantauri-

ko ertzean (250 Bizkaitar eta Gipuzkoarrentzat). Hauek dituzte buruz buru aurkitzen Iparraldeko eta Gaskuñako uretan Lapurdiko arrantzaleek. Baina hemen ez dira arrain arau problema berak.

Sardinak behin ez du eztabaida handirik sortzen, gure uretarik urrunduta baitzaigu azken urte hauetan.

Antxoarentzat besterik da: Merkatu Batuko ordezkariak 140 lizentzia eman dizkio Hegoaldeari iragan urtean. Hegoaldekoek ez zaie aski. Donibandarrei berriz gehiegi.

Problema berdina sortzen dute lekuko atunarentzat Bruselatik etorri 50 lizentziek.

Azkenekotz legatzarentzat eta bixiguarentzat 60 lizentzia ukan dituzte Bermeoko 75 ontziek, Hondarrabiko 60ek eta beste portuetako 35ek, aldizka baliatzeko.

Arrantza hauetarik sortu zaizkigu gatazka saminenak. Badirudi Brusela, Parise edo Madrilko gizonen gain uzteko ordezeren auzia, euskal itsasgizonek beren artean hobeki zutela hitzartzea, lehen egiten ohi zuten bezala. Baditugu zorigaitzez oztopo eta traba, ez bakarrik ekonomikoak, baina oroz gainetik politikoak eta psikologikoak.

Zenbaki bakar batzuk adierazten digute zertan dugun Iparraldeko arrantzaren egoera.

Hona nola taldekatzen diren, adin arau, arrantzaleak berak:

20 - 25 urtetakoak	31
25 - 30 »	62
30 - 35 »	89
35 - 40 »	78
40 - 45 »	117
	<hr/>
	377
45 - 50 urtetakoak	127
50 - 55 »	113
55 - 60 »	99
60 - 65 »	39
65etik gora	19
	<hr/>
	397

Horrek erran nahi du «zaharrak» nagusi direla Iparraldean eta bereziki Donibanen. Nahiz zahar hoietarik 6/10 Hegoaldeko seme diren, edo menturaz horrengatik, guztiz kontserbakorrak ditugu. Hori bera nabari da Donibaneko eta Hendaiako arran-

tzaleen artean piztu den eztabaidan: arrantza «pelagikoan», alegia.

Hola nola taldekatzen diren Donibaneko eta Hendaiako ontziak.

Donibanen badaude honelakoak:

Sardina eta atunerakoak (10-15 gizonekilakoak)	15
Motor tikiak (5-6 g.)	14
Legatzakoak (2-3 g.)	15
Arrasterakoak (4-5 g.)	18

Hendaiako zenbakiak hauek dira:

Sardina eta atunerakoak	3
Motor tikiak	5
Legatzakoak	12
Arrasterakoak (eta «pelagiko»ko 6ak)	15

Gaur, bada, teknikalari guztiek onartzen dutelarik «pelagikoaren» bidea dela aterabide bakarra, Donibanetik Hendaiara joan behar izan dute metodo berri hori hartu zuten arrantzale guztiek. Zinez «zahartzearen» gaitza du bere gaitzik gaitzena gure eskualdeak.

Azkenekotz, hitz bat erran behar dugu arrai-kontserbategiez: Hauek ere zorigaitzez beheiti ari zaizkigu. 1972an 1400 langile bazebiltzen lantegi hauetan eta 21.000 tona arrain hartzen zituzten. Bost urteren buruan 1.000 langile dira bakarrik eta 17.000 tona arrain darabiltzate.

Kontserbategiak Britainiatik etorriak ziren Donibanera XIX mende hondarrean eta hemen hazi ziren, baina gaur lau etxe bakarrik gelditzen dira zutik: *Saupiquet* (320 langile), *Soluco* (310 langile), *Falcone* (140 langile) eta *Itsasokoa* (130 langile). Beste tipi batzuk, 150 bat langile hartzen dituzte. Bestalde, *Itsasokoa* bera gaizki dabil eta herstekoto hotsak darabiltza.

Gehiago dena aitortu behar da: Donibandarrek Afrikatik bidaltzen duten atunaz bestalde, Donibaneko kontserbategietan sartzen den antxoa, sardina edo beste arrain gehiena urrunetik datorrela, Algeriatik edo Italiatik, non ez den Kontrabandatik.

Hots, euskal ekonomia gehienak bezala, berreraikitze baten beharra baluke gure arrantzak ere.

J. B.



### LA PESCA EN EL PAIS VASCO NORTE LA PECHE EN PAYS BASQUE NORD

Hay que comenzar por distinguir la pesca de alta mar y la pesca costera. La primera, importante en el Sur, no trae problemas al Norte. Ha desaparecido casi en su totalidad la tradición de los balleneros y de los bacaladeros. Sin embargo, los vascos proveen de cuadros a una treintena de atuneros que permanecen todo el año en Dakar.

Es en la pesca costera donde renacen incesantes querellas entre pescadores del Norte y del Sur. Estas querellas debieran solucionarse en el mismo país, como antes. Pero por desgracia, los responsables, a causa también de su edad, son de espíritu conservador y prefieren contar con el proteccionismo y rehusar toda apertura sobre el porvenir.

Il faut d'abord distinguer la pêche de haute mer et la pêche côtière. La première importante au Sud ne pose guère de problème au Nord. La tradition des baleiniers et des morutiers y est à peu près disparue. Les basques fournissent cependant les cadres d'une trentaine de thoniers qui demeurent toute l'année au large de Dakar.

Pour la pêche côtière, renaissent d'incessantes querelles entre pêcheurs du Nord et du Sud. Ces querelles devraient se régler sur place, comme jadis. Malheureusement les responsables du fait de leur âge même, sont d'esprit conservateur et préfèrent compter sur le protectionnisme et refuser toute ouverture sur l'avenir.

# **Kultur espazioak eskuratu**

**Lucien Etxezaharreta**

## **Euskal kultura, euskal izate**

Gai gutik ekartzen du kulturak bezainbat go-goeta. Denbora luzez, jakitatearekin nahasi izan da hitz hori, baina, zer konzeptu garrantzi handikoa den, gaur, denek onartzen dute. Alderdi politikoei, gobernuei, beren boterearen gudaleku bilakatu dute azken urte hauetan. Herri zapalduetan, askatasunaren borrokagai hauta agertu da Kultura, zeren eta honetan baita, iduriz, libertatearen seinale premiatsu bat.

Luzaz, Iparraldean, euskal kultura, «euskara» bezala azaldu da. Definizio hertsia hori praktikoa zen: euskaldun izatea mugatuz, euskaldun jendea mugatzen zen. Euskal nazionalitatea onartzen ez duten guztiak hala jokatzeko dute oraino. Georges Viers-en liburu batetan ageri da haren logika, erreka horretatik aterata: euskal izatea euskararena denez gero, euskal arazoa ez da mintzairarazoa bat baizik. Gisa berean, herri-gizon anitzen leloa da euskal izatea muga horretaraino bakarrik onartzea.

Horrelako zatiketak ez dira zuzenak, zeren eta Kulturaren erran-nahia ezin mugatuzkoa baita. Arbola bat bere lurretik ez bait daiteke berez. Kulturak fruitu bat iduri luke, biziaren eta ekspresioaren alderdi guztiak barne dituen fruitu bat, hots, Euskal Kultura Euskal Herria da, jasalea eta jasana, edukilea eta edukia, lehengoak ekarria gerorako bidean.

### **Nolako ekonomia, halako kultura**

Dogmatismoaren bide hertsietarik ez bada ibiltzen segurik, Kultura, biziaren adar guztiez jantzia agertzen da. Eta, aldakuntza, neke eta nahigabe eta esperantzez orraturik dago beraz.

Nolako ekonomia, halako kultura, erran behar da lehenik. Herri hustuetako jendeen bizimoldeak eta Baionako ZUP-ekoenak, ez dira batere berdinak. Bestalde, jakina da euskal izatea artzain eta laborariek sortua dutela. Laborantzako teknikak laster aldatu dira: denetan mekanizatze azkar bat zabaldu da; hazkuntza ere aldatu egin da. Idien uztartea haurrek ez dakite gehiago zer den. Non dira ere zaldi eta mandoak? Haien gal-tzearekin gure izate ohiturazkoaren aldaketa bat sortzen da. Zer erran ere turismoaren efektuez, bereziki kosta aldean? Piarres Adame baten ibilaldien ixtorioak nolakoak litezke, gaur, Lapurdiko alde horietan?

### **Eskolatzearen ondorioak: klase berri bat**

Gazteen eskolatzearen aldaketa gaitza da beste gauza premiatsu bat. Zeinnahi euskaldun gaztek, ez bakarrik bigarren mailetan, baina Unibertsitateetan, ikasketak erabili ditu. Ikasle horiek ez dira, 1960ra arte bezala, aberatsen eta gutiengo baten haurrak bakarrik, baina baita langile eta laborarien haur batzu ere (horiek oro neurri batetan, jakina baita zein guti diren klase xumeen haurrak eta zein guti «erreusitzen» duten...). Fenomeno hori biziki inportantea da: lehen aldía da, gure Historian, jakitatea, doi bat bederen, herriko seme eta alaben menea dela. Geroari buruz, esperantza handiko egitatea da. Hortik sortu da gaurko jazarketa berria, duela hogeí urte ezin asmatuzkoa zena.

## Arazoek gainditurik

Mundu bihozgabeko bat sortzen ari da, edonon. Matematikazko multzokatze batek elkarretarik berezten ditu bizilagunak: erlazio bertikal berri batek hainbeste mendek ontu lokarriak hausten ditu eta bakoitzak, bakartasunean, produkzio-kontsumo izate hori jasaten du. Lehenagoko mugak, etxea, hauzoa, herria, euskalduntasuna sortu eta zaindu dutenak, non dira?

Azken hamar urte hauetan, ideia berrien uhaina ere izan da. Botereen kontra jartzea, aurkatasuna, kontestazioa, egin beharriaren eta egin nahiaren arteko borrokak, gerorako zoriona gaur bertan bilatzea, ez dira efektu ttipiko gauzak izan.

Hainbeste alderdi eta ideologiek iraultza hitzeman ondoan, zer gelditzen da? Nor da «iraultzaile» gaur? Hor ditugu stalinismoaren ondorio izigarriak ere... Eta atzo iraultzaile zirenak, gaur boteredunak, zapaltzaile-aurpegidunak... Biafra eta Kurdistaneko populuen lehertzeak bat baino gehiago hunkitu du.

Ikusmolde unibertsal faltsu baten orde, giza neurriko eremuen ikusmoldeak ere sortzen dira. Gero eta gehiago, alderdien boterearen kontra jotzen dute gazteek. Pariseko «maiatzak» eta Portugalgo «apartidarismoak» lilura asko erakutsi dute.

Bizia mundu funditu batetan? Zer da industriaren balioa, hirietako ezin bizia... Ekologismoaren indar berriak ere zutitzen dira, espektro nuklearraren kontra.

Azken urte hauetan agertu diren berritapenek, haur ukaiterearen mailan, bai haurren sorkundearen manakuntzan, bai hilotzea haizu bilakatzean, garrantzi handia dute. Eskontzea, amodioa, elkarrekin bizitzea, biziarentzat hain oinarri premiatsuak diren mailan ere zinezko iraultzak agertu dira. Jauzi handiak egiten ari dira ezagutzen ez dugun mundu berri bati buruz. Hor daude baita, zenbaitek hainbeste espanturekin aipatzen zuten «euskaldun familian» gertatu diren aldakuntza barnekorrak ere.

Beti zerbitzari mailan atxekiak diren emazteek ere hitza hartu nahi dute, eta gizonek beren boterea ez aldatu nahiz, aurkako bideak hartu dituzte. Arazo baitezpadazkoak jalgi dira plazara: bakoitzak bere gorpuzaren kudeatzeko eskubidea, gizartearen lokarrien aldaketa eta beste ainitz oinarritzko egitate.

Azken hamar urte hauetan ere Euskal Herriko etxe bakoitzean telebista sartu da, ohitura berri bat, botere frantses bat familia guztietan. Amatxi zaharren supazterreko ixtorioetat zer jakinen dute 2000. urtekoek?

Holako arazo eta ekintza gogoetagarrien uholdeak gizartearen itxuraldatzeko boterea badu. Aldaketak ez baldin badira ere gaur bertan ageri, erro azkarrak egiten ari dira ondoko urteei buruz.

### Fedea hil dea?

Bizian ez itsumandoka ibiltzeko, «erran nahi» bat sortzeari eta heriotzari emateko, bidean argi bat... hara fedea?

Sekulako erreka batetara eroria dela Eliza, diotela batzuek, mende berri batetarako itxuraldatze bat egiten ari dela... Gisa guztiz, elizak hustutzen dira, gazteek ez dute aipatu nahi ere eta, hiri handietako moldeetan ari dira «parrokia-ekipoak» muntatzen, apez-eskasiagatik.

Ekonomi problemak badirela, ez da dudarik, baina kontzientzia hunkitzen duten iraultza horiek ez dira inportantzia tipia-gokoak. Iparraldearen deskribaketa batetan, herriaren espiritua-litateak barne izan behar du.

Aldatze horiek min eta borroka latzak sortu dituzte bat baino gehiagoren baitan. Erljioaren galtzeak huts gaitz bat ekartzen du. Hainbestetaraino non, batzuek, politikazko dogmatismo batekin, fede ohia ordaindu duten.

Gure baitan omen dugun, J. M. Barandiaranek dioenez, «euskal transzendentzia» hura non dago? Saparik gabeko landare baten pare ote dea gaurko gazteria berriaren oihu garrazi itoa?

«Munduan umezurtz» sentitzen dute beren burua askok; lortsatzea ez dela aterabide bat eta, nahi eta ez, geroko ildoan irekitzea denen afera dela jakin ondoan, nola sineste batekilako Euskal Herri bat sor?

### Izatearen pausoak

Kultura, biziaren espazio bezala azaldu ondoan, izatearen eta ez izatearen problematikarekin behaztopatzen gara berehala. Iparraldean, gure kulturaren adar guztiak eskuetarik joaten sentitzen ditugu.

Aterabide bakar bat da: GURE KULTUR ESPAZIOAREN GUREGATZEA. Ez bakarrik lehen omen genuen botere baten berriz eskuratzea —izan ote du ere inoiz euskal populuak beregaintasu-

nik?— baina etorkizunaren gureganatzea. Ez da beste biderik emazte eta gizon kondizionatu eta alienatuaren salbatzeko; pertsona-itxura bat izan dezan, berkudeantzatik pasatu behar du.

Ikastolek bidea erakusten dute. Botere zapaltzaile batekin, izatearen indarrarekin ihardukiz, euskarari pusako azkar bat eman zaio. Hori da azken hamar urteetako egitate handienetarik bat. Euskara euskaraz zaintzea eta zabaltzea: ximple da iduriz, baina hor da ekintza iraultzaile handia.

Kultura ez da jakitatea, baina jakitatea kulturaren ekarpen bat da. Jakitatea, gaurko gizartean, klase aberatsenen eskuetan da, haien zerbitzuko eta haien geroaren segurtatzeko xedearekin. Hor ere gudaleku hauta bat da: monopolio horren haustea.

Bestalde, langile eta intelektualen artean muga handi bat jarriko dago. Maila horretan ere iraultza baten beharra bada: eskulanaren eta burulanaren arteko mugaren ezeztatzea. Egiazko euskal kultura batek horra jo behar luke.

Demokrazia faltsu batek sinestarazi nahi digu, gure ordez, beste batzuek (pentsatzaile batzuek) erabakitzen ahal dutela. Bakoitzak bere izatearen eta ingurumenaren zati guztien kontrolatzea, euskal izatearen pauso handi bat liteke.

### **Kultur espazioaren eskuratzea**

Duela hamabost urte, «euskal kulturaren salbatzea», politikazko ekintzen ekarpen bezala senditua zen: botere politikoak beste guztiak manatzen dituelakoan?

Behako batek kontrarioa erakusten du: kultur espazio batzuk eskuratuak izan dira eta ekintza politikoak geroztik dira zinez jarriak. Hala nola, ikastolek sator-lan luzea erabili ondoan, elebitasunaren arazo politikoak jarriak dira («Charte Culturelle», «département basque» adibidez).

Baionan, Unibertsitate baten erdiestea, seriooki aipatzen digute, IKAS, LABURU eta beste batasun batzuek funtsezko lanak erabili ondoan. Zinez gurea izanen dea?

Kantua, dantza, pilota, teatroa, bertsolaritza, idazlegoa, eskola: maila guztietan gure herria giderran hartzera doa.

Hor dugu bide bakarra: Euskal Herriari bizi ematea, Kultur espazioaren eskuratzea da eta herrian herriarekin kudeatzea.

L. E.

### LA CONQUISTA DE LOS ESPACIOS CULTURALES LA CONQUETE DES ESPACES CULTURELS

En Euskadi Norte hemos reducido frecuentemente la cultura a la lengua. Hay que extender este concepto. La cultura es el espacio de la vida. En este sentido podemos hablar de la crisis generalizada de la cultura a causa de los cambios en todos los órdenes: en las ideas, en la vida política, social, religiosa, familiar, etc.

Entre nosotros, sentimos que todo lo que sustentaba la «euskaldunidad» está desapareciendo, que la cultura vasca en todas sus dimensiones se nos va de las manos. Contra esto, urge la apropiación de nuestro espacio cultural, no solamente en búsqueda de nuestras formas autóctonas de poder, sino como antídoto contra la alienación. Hace quince años se pensaba que la salvación de la cultura vasca vendría de la acción política. Hoy sabemos que la acción política viene después, como se ha demostrado en los espacios culturales ya conquistados. El mejor ejemplo es la ikastola.

En Euskadi-Nord nous avons souvent réduit la culture à la langue. Il faut élargir cette conception. La culture c'est l'espace de la vie. En ce sens nous pouvons parler d'une crise généralisée de la culture, à cause des changements de tous ordres: idées, vie politique, sociale, religieuse, familiale, etc.

Nous sentons que tout ce que contenait le terme «euskaldun» est en voie de disparition, que la culture basque dans toutes ses dimensions nous échappe. Dès lors une récupération de notre espace culturel devient urgente, non seulement pour retrouver les formes autochtones du pouvoir, mais pour échapper à l'aliénation. Il y a quinze ans on pouvait penser que le salut de la culture basque viendrait de l'action politique. Nous savons aujourd'hui que l'action politique vient ensuite, comme cela se vérifie dans des espaces culturels déjà reconquis. Le meilleur exemple en est l'ikastola.

## **Iparraldeko euskal idazleak gaur**

**Piarres Ehulatei**

Euskal Literaturaren historia bat eskuratzen duzun aldi oroz ohartzen zara Iparraldean dagoela gure literaturaren sorgia eta lehen iturria. Iparraldekoak ziren alabaina bai Etxepare, bai Leizarraga, bai Villasantek Donibaneko Eskolako dauzkan idazle gehienak. Bi mende geroago agertu ziren hegoaldeko idazle nagusiak, Larramendi, Kardabera eta besteak. Baina gaurko idazlaritzaz hitz egin denean, badirudi, anitzen ustetan, agortu egin dela gure eskualdeko jarioa. Horrelako aburu bat, edo beste, gaitzetsi nahiz, artikulua bat agertu nuen neronek, 1969eko JAKINen zenbakian, baina geroztik ez dira gauzak onera itzuli.

Alta bada, J. M. Torrealdayen liburu ezaguna, «Euskal Idazleak, Gaur», irakurri nahi duenak ikus dezake XX. mendean, 1936rarte, bagaudela 13 idazle gure eskualdean eta 1936tik 1976ra badirela 4. Baina baditazke irakurri eta ikasi baino, nahiago baitute hitzegin eta edasi.

Dezagun erran, beraz, besteentzako, zertan dabilen gaur idazlaritza gure aldean; berrikusi behar dira hurbilgotik, J. M. Torrealday adiskidearen zenbakiak ere, alde horretatik.



Hasteko, 1900-1936, tarte horretan sortuak diren Iparraldeko idazleentatik guk geuk kontatzen ditugu 30 bederen —10 Lapurdiko, 15 Baxenabarreko, 5 Zuberoko— oraingoz gutienetik liburu bat argitaratu dutenak. 1936ez geroztikakoentatik beste hiruzpalau baditugu. Bestalde, Euskal Idazleen Elkarteak dioen bezala, «25 artikulua, egunkari edo aldizkarietan argitaratu» dituen euskaldun oro, *Idazletzat* har badezakegu, orduan Iparraldeko Idazleen zerrenda beste 35 izenekin gutienetik luzatu behar genuke. Baina zehazkiago ikus dezagun non eta nola dabilzan gure idazleak.

### Lehen belaunaldia

1900etik 1920rarte Iparraldean sortu idazleen kontua eginenez, 20tik gora igotzen gara:

Lehenik Lapurdin aurkitzen dugu *Piarres Lafitte* Kalonje jakintsua, Luhusoarra (1901) —eta ez atzerritarra, erran eta idatzi den bezala—. Bai eta ere *Piarres Larzabal*, Zokoako apez euskaltzaina, Azkaindarra (1915), bere antzerki eta artikulua guztien ondotik liburu berri bat atera diguna: «Nere Mendixkatik, E.T.A.ko gudariez apez bat mintzo», Donibane Lohitzunen, 1978. Hemen dugu orain *Martin Treku*, Ahetzeko bertsolari aipatua (1916), «Ahal Dena», 1971an, *Auspoak* argitaratu liburuaren egilea. Nahiz ez diren hiru horiek bezain ezagunak, idazleen sailean sar ditzakegu beste bost apez lapurtar: *J. B. Dufau* Bidartiarra (1901) «Katixima ttipia» (1940) liburuaren egilea; *Benoi Olbagaray* Uztariztarra (1918) «Meza saindua» (1955) liburuaren egilea; *Martin Sein* Ahetzekoa (1907), Belokeko «Otoizlari»n asko lan egiten duena; *Andre Beheran* Ezpeletarra (1912), «Herria»ren berriketari jarraikia eta *Leon Pochelu* Gereziatarra (1912) aspaldian isildua, baina duela hogei eta zenbait urte, jakintza eta teknologia gaiez sail eder bat eramanez «Herria»n, «Jakitatez jakitate», «Garralda» izenordearekin.

Gero Baxenabarren guztiz ezagunak ditugu: *Etien Salaberry* kalonjea, Heletara (1903) «So Egilea» sinadurarekin hainbat artikulua, hogei eta hamar urtez, astero, «Herria»n idatzi duena eta azkenik «Ene Sineste», Baionan, 1978an argitaratu duena; *J. B. Etcheverry* Dohoztiritar apez (1903), bere seigarren liburu, «Han Hemenka», agertu berri diguna, Baionan, 1978an; *Pierre Narbaitz* kalonjea, Azkaratiarra (1910), Bikario jeneral zelarik

euskaraz lan asko egin eta eginarazi duena, baina berak ere argitaratu ditu «Kattalinen gogoetak», «Piarres Arradoy» izenordearekin, 1955ean eta «San Frantses Jatsukoa», 1966ean, bere sinadurarekin: *Erramun Idieder* kalonjea. Orzaiztarra (1910), «Gazte» hilabetekariaren sortzaile eta buruzagi izan zena, 1950-1954 urteetan. Hor dugu ere *Pierre Moureau*, erriente ondoa, «Orreaga» pastorala Garazin eman berri diguna (1978); *Pierre Duny-Petre*, garaztar olerkaria (1914), liburu eder baten gaia baluke, Piarres Hegitoaren izenean argitaratu dituen koplak guztiak bil balitza; *Sauveur Narbais*, Behauztar erriente ondoa eta *andere Malharin*, Amikuztar erriente ondoa, biek lan egin eta egiten dutena «Ikas»en aldizkari eta agerkerietan.

Zuberoan askoko ezagutu dugu *Gilen Eppherre*, Altzurukutar kalonje euskaltzaina (1911-1974), zuberotar apez lagunentzat egin liburu eta lanez bestalde, «Gure Herria» aldizkaria zuzendu duena, 1951tik 1974arte. Euskal Herri osoan ezaguna da ere *Pierre Bordaçarre*, «Etxahun» Irurikoa (1908), bere koplak argitaratu aitzin, 1977an, aspaldian Zuberotik urrun helduak zituen (ik. «Agur Ziberoa!...») eta bestalde pastoral berri asko Zuberoan bertan prestatu dituena.

Oro har, 18 izen baditugu hor, baina beste hiruzpalau eraxeke diezazkiokegu zerrenda horri, belaunaldi berekoak baitira *Jean Errecart*, senatore zena, *Etien Pochelu*, Makaiako auzapez ohia, *Felix Ospital* Donibaneko berrikeraria eta *Jean Arbeletche* Armendariztar apez zena. Libururik ez badute argitaratu ere, zenbat artikulua ez dute igorri bereziki «Herria» astekariari, horgei eta zenbait urtez! Dena dela, badirudi 1900-1920ko belaunaldi hau jarraiki nahi ziola bere aintzinekoek ireki ildoari: Beti bezala apezkia nagusi da euskal idazleen artean 22 idazletarik 13 apez —eta erlijio gaietaz edo elizaren ingurumarian dabil maizenik. Bizkitartean aldaketa bat edo beste ere nabari da: Baxenabartar idazleen kopurua goiti doa eta bestalde belaunaldi honetako idazle batzuk— hala nola Salaberry edo Larzabal— bilakaera bat egiten dute beren biziaren erdian, Historiaren uhin berriek Euskal Herria hunkitzen dutela oharturik.

### **Bigarren belaunaldia**

1920tik 1936ra belaunaldi berri bat sortzen zaigula erranenezake. Liburugiletan bakarrik baditugu bederen bost Lapurtar: *Xavier Diharce* «Iratzeder», Belokeko aita abadea, Donibandarra (1920) bere 16-17 urtetako lehen «Pindar eta lanoez»

geroz, kasik urte oroz euskaraz lan berri zer bait, olerki, antzerki, salmo, kantika, historia edo saio atera diguna; *Paul Guilsou*, Senperen sortua (1920) «Petan mediku» eta «Koropillo»rekin poliki abiatua zen 1952an, antzerki lanetan, bai eta beste euskara lan askotan, Parisera joan zitzaigularik orain duela hogeitatu urte, geroztik isilik baitago; *Piarres Charritton* Hazpandar honek (1921) berriz, «Eskualdunak» argitaratu zuen 1943an, Xabier Gazteiz-en izenpean eta geroztik, bere isiluneak izan baditu ere, beti berriz lotu da orainokoa idazlaritzari euskal aldizkari askotan, «Aintzina» edo «Gazte» lehen, «Elgar», «Herria», «Etxea» edo «Zabal» gero, «Enbata» edo «Jakin» gaur; *Piarres Andiazabal* Urruñar (1923) apezaren gain izan dira Baionako diozesiko euskal liturgi liburu berri guztien argitaratzeak, azken 15-20 urte hauetan; *Jean Hiriart-Urruty*, Baionako Bikario Nagusia, Hazpainen sortua da (1927), osaba zenaren artikulua zenbait argitaratu du («Zer eta zer», 1944ean), *Piarres Lafitte* bere irakaslearen laguntzarekin, eta badu berak lerro asko emanik euskara ederrean eta 1969az geroz «Herria»n agertu dituenak, «Eliza Berri» lemapean, bildu berri dizkigu bi tolotan: «Jauna dut Argi», 1977.

Belaunaldi beretik hamabi idazle baditugu Baxenabarren sortuak, gutienetik, liburu bat euskaraz agertu dutenak: Lehenik *Fernando Aire* Urepelekoa (1920-1976), gure ezin ahantzizko Xalbador bertsolaria, «Odolaren mintzoa», (1976); gero *Adrien Gachiteguy* Aldudekoa (1921), beneditarra eta ingindorea, «Laborantza» eman ziguna (1963an), Aguerre kalonjearekin; *Jean Haritschelhar*, Baigorriko seme (1923) eta herri bereko auzapeza, «Etxahun»en koplak eta bizia argitaratu dizkiguna, 1970ean eta aspaldian Euskaltzaindiko hitzaldi eta lanetaz bestalde, «Herria»n astero, Gexan Ponttoren ohar eta zirtoak ontzen dituenak; *Marijan Minaberry* anderea, Bankakoa (1926), iparraldeko idazle ezagunenetakik dugu bere 1961eko «Mari-Gorritz»z geroz argitaratu dituen hiruzpalau olerki, alegia eta ipuin liburu, beste horrenbeste antzerki eta norik daki zenbat artikuluei esker; Belokeko Beneditarretan badaude hiru lagun, bedera liburu eman dizkigutenak, duela hogeitatu urte: *Louis Irigoien*, Donazaharrekoa (1928), Dominico Savio-ren bizia egin baitzuen; *Dominique Bellegarde*, Donamartiriko (1929), Maria Goretti-z ari izan zen; *Jean Etchebandy*, Eihalarrekoak (1929), aldiz, Matt Talbot delako baten biziaz idatzi zuen. *Manex Erdozaincy-Etchart*, Gandiaga bezala frantziskotarra eta poeta dugu, baina oztibartarra, Mixel Garikoitz sailduaren auzoan, Ibarlan,

sortua (1934): «Hinki-Hanka», 1978an agertu duen olerki-saila irakurtzea aski da, gure ustez, gaurko poeta hoberenetarik dugula Manex aitortzeko; azkenik elgarretara genitzake lau garaztar, aski desberdinak, baina belaunaldi berekoak: *Enaut Etchamendy*, Ezterenzubin sortua (1935) kantu-egile eta kantari bezala aski ezaguna, baina bestalde bi elaberri bederen eman dizkiguna: «Elurra zikindurik», 1968an eta «Azken elurra», 1975ean; *Xan Irigaray*, Azkaraten sortua, Parisen irakasle handi izanagatik, ari izana da euskaraz, «Bordatxarreko laboraria» argitaratzeko, duela hogeit urte eta oraino ere ari da olerkitan bederen; *Jean Baptiste Etcharren Lobigorri*, Mayorga ikastegiko buruzagia, Uhartre Garaziko semea da eta bere artikuluez bestalde aurkitu du sorterrian liburu gai ederra, «Huarde»ko Joanesen bizia: «Huarde hator etxerat», 1975ean; *Jean Etchepare Landerretche* zena, (1937-1961) idazle isila, gazteegi itzali zitzaiguna, «Mendekoste Gereziak» eta beste ipuin zoragarri asko eman ondoan Jatsun sortua zen, garaztarra, hau ere, bere mendeko baxenabartar idazleekin sar dezakeguna.

Zuberotik heldu zaizkigu *Junes Casenave Harigile*, betharramista, Santa Grazin sortua (1924), «Santa Grazi» pastoralara 1976an eta «Ibañeta» 1978an idatzi dituen eta *Jon-Luis Davant-Iratzabal*, Larrabilen sortua (1935) anitz artikulua eta hitzaldi sakon eta zorrotz hiru-lau haur liburu polliten ondotik, «Aberri ta klase borroka» argitaratu diguna 1977an. Idazle beren sailean jar ditzakegu bi zuberotar seme, Parisen jaiok: *Jon Mirande Ayphasorro*, (1925-1972) mende honetako euskal idazle garrantzitsuenetarik bat eta *Txomin Peillen* (1932) bere adiskide hurbila; henek artarekin bildu ditu Mirande zenaren idazlanak, baina bestalde berak egin elaberri eta artikulua asko ere argitaratu ditu, hala nola «Gauaz ibiltzen dena» 1967an, «Itzal gorria» 1972an, «Gatu beltza» 1973an, etab.

21 liburugileren zerrendari eratzeki behar diogu aldizkari-mota guztietako idazleen saila. Aldizkariak, ordea, behar genituzke, idazleak berak bezala, sailkatu, hain baitira desberdinak:

Batetik hor ditugu lehen belaunaldikoak, gerla ondoan, gerla aitzinekoek, piztu edo berpiztu zizkigutenak, hala nola «Gernika» Donibane Lohitzunekoak, (1945-1953) gero Argentinara bere sortzaileek eraman zutena; «Euzko-Jakintza Gernika», Joxe Migel Barandiaranen eskutik hamaika zenbaki gotor Baionan eman zituena (1947-1957); «Gure Herria» ere, 1950etik 1976ra iraun duena, bigarren aldi honetan; «Herria» oroz gainetik, «Eskualduna» zenaren hutsa bete beharrez, 1944ean, Piarres La-

fittek sortu baitzuen eta gaur arte baitirau, Emile Larre Baigorriar apez euskaltzainaren zuzendaritzapean. Aldizkari horiek eta bereziki «Herriak», leku eman diete askotan jadanik aipatu ditugun idazle batzuei eta beste anitzi: *Jean Pierre Irachet* Bida-rraitarra (1921) guztiz ezaguna izan da «Piarres Iparla» izenordearekin; bai eta ere *Maurice Borteyrou* Hazpandarra (1921), «Kalakari» sinadurarekin; *Ximun Xori Dubour* (1922) eta bere arreba *Emili Dubour* jarraiki zaizkio beti beren aita, Pierre Duhour, hazpandar berriketari zenaren sailari; sail berdinari jarraitzen zaio ere *Jakes Etcheverry* Donibane Lohitzunekoa, euskal irakasle eta irratilaria, Baionan bizi dena, hau ere 1921ean sortua; eta *Beñat Goity* kalonjea, Izpuran sortua (1926), «Gure Herria»ren buru izana eta «Herria»ren berriketari jarraikia; Parisetik izan ditu beti «Herria»k bere berriketariak: lehen *Beñat Dagorret* Makaikoa (1927) eta *Pierre Charriton* «Pariseko Xoria», Oragarrekoa, eta, hauek herrira itzuliz geroz, *Maurice Etchenic* gaztea, baina beude gazteak geroko.

Beste aldizkari batzu izan ditugu, ez baitute beti iraupen luzerik izan, baina belaunaldi berrikoek berek antolatzen zituzten eta hor moldatzen ziren idazle berri asko. Lehenik sortu genuen bigarren aldiko «Aintzina» (1942-1944), bi urteko bat bizi izan zena. Horretan hasi ginen orduan hogeai urte inguruan genbiltzan iparraldeko gehienak, Iratzeder eta Gazteiz, Xori eta *Michel Labéguerie*, Uztariztar senatore gaia (1921) eta Alhur, *Roger Etchegaray*, Ezpeletar apezpiku gaia (1922). Gero 1956-etik 1963-ra «Gazte»k eman zituen 70 bat zenbaki, orduko gazteak berek hilerok betetzen zituztenak: Ondoan «Herria»n sartu baziren ere Emile Larre, Sokorri (1926) bezala, lehenik hilabete-kari horretan hasi ziren *René Ospital* Aiharreko auzapez zena eta *Xalbat Charriton* horren laguna (1927), *Marcel Récalde* Hazparnekoa, *Beñat Ahamendaburu* Eihalarrekoa, *Jean Pierre Curuchet* Heletakoa, *Jean Pierre Arangoitz* Iholdikoa, *Henri Duhau* Bezkoitzekoa, *Grégoire Eppherre* (1929-1974), *Michel Lekuona* (1930), *Roger Idiart* (1931) eta *Michel Itzaina* Aldudekoa (1933), *Jana Idiart*, J.L. Davant-en andre gaia zelarrik idazkari. 1960-62 urteetan *Joseph Camino* Arnegitar apezak (1927) atera zuen, 15-20 bat aldiz, «Pan-Pin», haurren hilabete-kari aberatsa, *Petan Maitia*, Marijan Minaberri, Jean Etchepare eta Donostiako Valverderen laguntzarekin. Ber denboran, baina beste bidetan zebilen Parisen, Mirande eta Peillenen «Igela». Hats luzeagoa eman zion, aldiz, Iratzederrek Beloken «Otoizlari»ri, orduz geroz honen 90. zenbakia agertu baita.

Ez ditugu aipatu ez «Elgar» Pariseko Euskaldunen hilabete-karia, ez «Agur» Bordelekoa, ez eta ere apezek Donibane Lohitzunen, Hazparnen edo Baionan ateratzen dituzten «Mezulari», «Denak Argian» edo «Etxea», are gutiago Zuberoako edo Amikuzeko aldizkari erdaldunak, nahiz euskaraz artikulua zenbait badiuzten, han hemenka, baina beste horietan hogeitau eta zenbait idazle izen berri aurkitu ditugu, Iparraldeko idazlaritzaren itxura aldatzen digutenak, 1920-1936 tarteko belaunaldi horrentzat: 1936an 15-20 urtetarat heltzen ari ziren gazte asko hunki eta iratzarri dituzte Iparraldean Hegoaldeko gertakariak eta ordutik hazi egin da euskal idazlaritza alde honetan.

Hemen eman ditugun bi belaunaldietako zenbakien kopurua hartzen badugu, 1900-1936 tarte horretan sortu idazleentzat, 60ra errazki heltzen gara. J. M. Torrealdai eman 13etarik urrun gabiltza: Bizkaiko 28 izenak edo Gipuzkoako 51k gaintitzen ditugu.

### Hirugarren belaunaldia

Hirugarren belaunaldirako, hau da, 1936az geroz sortu idazleentzako, besterik dugu menturaz: Gutu dira oraino liburu bat eman diguten Iparraldeko gazteak. Jadanik aipatu dugu Jean Etchepare zena, 1937an sortua baitzen. Urte berekoa da *Jean Pierre Etcheverry* Domintxaindar apezka, «Familia Otoitzean» argitaratu duena 1973an; *Daniel Landart*, antzerkilari ezaguna Dohoztirin sortua dugu 1946an, berak dioen bezala «Aihen Ahula» deitu bere azken liburuan, 1978an; gazteago dugu oraino *Jon Cazenave* Lehuntzako olerkari berria, «Zutaz amoroski» agertu diguna urte berean. Beste liburugile gazterik ez dugu aurkitu. Gaur arte ezagutzen ez genituen «abertzale erdaldun» multzoak agertu dira gure eskualdetan ere, erdarazko kultura (?) eta politika-lanetara lerratzen ohi direnak. Gehiago dena, aldaketa sozial handiak jasan ditu Iparralde honek, azken 15-20 urte hauetan, euskararen alde joan ez direnak: gure umeak gero eta goizago, 2-3 urtetako, eskolara joaten dira, gero, etxean bertan, hori dute, egun oroz, telebista erdalduna eta, udan berriz, udartarren uholde arrotza. Eskolak direla, edo lana aurkitu behar dela, gure gazte gehienak badoaz «Frantzia behereko» hiri horietara, gure herri eta herrixkak beti gehiago beren gaztetarik husten ari direla, Zuberoa ta Baxenabarreko kantoinamendu guztietan. Anartean Lapurdin ikusten ditugu erdaldunak sartzen ari saldoka, beren zahartzaroko kaiola berria gure lurtean eginik.

Horien guztiengatik ihardukitzen du oraino gure kulturak eta muskil berriak ematen enbor zaharrak.

Piarres Lafitte, Jean Hiriart Urruty eta Emile Larrereren sinaduren ondoan, «Herria»n berean aurki ditzakegu belaunaldi berriko idazleen izenak: *Janbattit Dirassar* Hazparnekoa (1937), erdaraz bezain ongi euskaraz ari zaiguna «Sud-Ouest» edo «Deia» egunkarietan; *Ramuntxo Kanblong* Makaiakoa (1939) JAKINekoek aspaldian ezagutzen dutena; *Gexan Alfaro*, Urepele Lantzirikoa (1941) edo honen laguna *Manex Pagola* Landibartarra (1941); gazteago oraino *Mattin Larzabal* Aihertarra (1950), *Leon Haizager* Donamartiritarra eta *Manex Lanathoua* Ahatsarra, Hegoaldeko egunkari ezagun batetan lan egitera zihoana, gure eskualde hau gehixago kontutan hartu balute, guk dakizkigun «progresista» batzuk; gazteena, aldiz, bainan ez herabeena, Bernadeta *Itxaro Borda*, Oragarrekoa.

Belaunaldi berri honek ere sortu ditu bere arauko aldizkariak, idazle berrien lantegi gertatzen direnak: 1974 hondarretik 1976 erdira iraun du «Hitz»ek, 7 zenbaki eman dizkigula; 1973ko hastapenetik 1976 hondar arte bizi izan da «Zabal», 19 zenbaki ateratzen zituela; Zenbaki bat edo beste agertu da 1975 inguruan «Fedegintza»ren izenean; hiru aldizkari hauek euskaraz bakarrik ari ziren. Ez dute zorigaitzez iraupenik izan. Beste batzuen artetik, horien inguruan ibili dira, *Battitta Larzabal Hazpandarra* (1938) eta bere emaztea *Xantiana Idiart* Amenduztarra (1942); *Claude Harlouchet* (1939) Buzunariztarra, «Elhuyar» taldean Donostian lan egiten duena; *Lucien Etchezarreta* Hazpandaira (1947), *Beñat Oyarzabal* (1949) Parisen sortua, *Jon Gonzalez Eppherre* (1951). «Anaitasuna» eta «Zeruko Argia»n aurki ditzakegu oraino *Xarle Videgain*, *Mikel Hiribarren*, *Ermiñe Madariaga* edo beste zenbaiten izenak eta izenordeak, Iparraldetik etorriak «Enbata», «Euskaldunak», edo «Gernika» elebidun aldizkariak euskarari uzten dioten eremu xuhurrean aurki ditzakegu *Mixel Mendiboure*, *Manex Goyhenetche*, *André Saint Esteban* edo *Peio Baratxegarayren* idazkiak. Orogen buru, halere, hirugarren belaunaldi honek ez digu, noski oraino bere hoberena eman. Politika zatiketak pixka bat bazterturik, denen indarrak bil balitza, menturaz mende berrirako kultur bide eta eremu berriak aurki litezke. Eta hori Euskal Herri osoaren onetan.

Badakigu ezen, Joan Mari Torrealdaiyk 1936tik 1976rarte Hegoaldean bildu dituen berrogei eta zenbait idazle izenek (ik. «Euskal Idazleak Gaur» 188 or.) argi eta garbi erakusten di-

gutela, euskal kulturaren aldeko indar berriak Hegoaldean dira alha memento honetan, eta bereziki Gipuzkoa aldean. Ez dauzkagu bizkitartean gutiesteko, azken belaunaldi honetan 24 izenekin, XX. mendeak Iparraldean sortu dizkigun 80 euskal idazleen lanak: Gogoan hartzen badugu 78.450etara bakarrik heltzen dela Iparraldeko euskal hiztunen kopurua, berrikusi beharko ditugu eman dizkiguten porzentaia batzu: Gure Idazleen eta Hiztunen arteko erlazioa 1/933 da, erran nahi baita Gipuzkoako bereko 1/2.945 baino askoz hobea (Ik. Euskal Idazleak Gaur 95 or.). Eta irakurleen azterketa bat egin baledi, menturaz araberako xifrak atera genitzake. Dena dela, begirada bat eman diezaiozun Joan Mari Torrealdayk bere liburuan agertu digun Euskal Liburuaren Katalogo Orokorriari (op. cit. 569-626 or.).

Lehenik hamar urtekal biltzen baditugu 1937tik 1976ra agertu diren euskal liburuak, zifra hauek ikusten ditugu:

## LIBURUAK

Urteak	Orotara	Iparraldekoak	%
1937-1946	37	26	70/100
1947-1956	152	40	26/100
1957-1966	301	49	16/100
1967-1976	857	79	09/100
Batuketa	1.347	194	14/100

Aitortu behar dugu ez dugula Iparraldean aurkitzen azken urte hauetan, Hegoaldean Torrealdayk aipatzen duen bezalako «Boom Editorial»-ik. Baina gogoan hartu behar da ere zer zapalkuntza jasan duen 1937-1956 tarteko hogeitun urteetan Euskal kulturak Hegoaldean. Beraz leheneko zapalkuntza hark eta gaurko hazkuntza honek argi ditzakete atzoko porzentaia, 70/100 eta 26/100 eta gaurkoak, 16/100 eta 9/100.

Oro har, ordea, eta batuketa osoak 14/100 ematen digu, banabeste. Badakigu gure literatura zaharraren historiari begiratu porzentaia horrek apala dirudiela: Torrealdayen beraren kontuen arabera, 1545etik 1879ra argitaratu diren 101 jatorrizko liburu-erarik, 40 Iparrekoak ziren. Eta liburu-mota guztiak kontatuz, 194etarik 92, heldu baita 40/100eko porzentaia (ik. op. cit. 178 or.). Baina denborak aldatu dira: nahiz eremuz beti berdindu euskal herrialdeak, bizilagunez bestelakatu dira eta gaur, Euskadi guztiko 2.800.000 bizilagunetarik, 230.000 gara bakarrik Iparraldean, hau da 8/100. Ez dugu bada zeren lotsa, eus-



kal hitzunen porzentaiak, oraindik ere, askoz hobeak dira gure eskualdeetan, 33/100 baten inguruan dabilenez gerok. Gure liburugintzari aski hurbiletik behatzen badiogu ohartzen gara, hau ere hazi dela poliki, azken berrogei urte hauetan eta ber denboran sekularitu, beste eskualdeetan bezala: 1937-1946 tarteko 26 liburutarik 12 erlijio gaiez ari ziren, hau da % 46, baina 1967-1976 tarteko 79etarik, 19 bakarrik, % 24.

1978ko iragan urte horretan liburu berri bat argitaratu duten gure 8 idazleetarik 3 ziren bakarrik sekularrak: Pierre Moureu «Orreaga»; Jon Cazenave «Zutaz amoroski»; Daniel Landart «Aihen Ahula», beste 5ak apez, fraile edo kalonje dira: Junes Casenave «Ibañeta»; Etien Salaberry «Ene sinestea»; Piarres Larzabal «Nere Mendixkatik»; Manex Erdozaincy «Hinki-Hanka»; Janbatit Etcheberry «Han-Hemenka». Ez da ere hor «Marxismoa» hots handirik ozen, ez batzutan «Aberri» oihartzunik nabari. Han edo hemen bai, aldiz, zaharkeria zaharkituenak ageri dira, jantzi aberatsenaz apaindurik. Berdintsu erranenezake gure aldizkari ezagunenak ikusta eta eskuza bagenitza. «Herria» batek aipamen eta leku eta ohore gehiago ematen diete eliza inguruko gorabeherei edozein astekari «katoliko» erdaldunek baino. Gure eskualdeko bilakaera beste asko tokitakoa baino hurriagoa da. Gazteria apurra dugu-eta. Bizkitartean Erdozaincy eta Landart batzu, bai eta Larzabal, Salaberry edo Cazenave, bakoitza bere moldera, aldaiera baten lekuko dira gure aldean. Guk geuk hemen ikertu dugun Iparraldeko LAROGEI eta zenbait euskal idazleen zerrenda luzea ikusita, erraz da asmatzea, Hegoaldeko haize onak izpi bat laguntzen badio, bereziki, uzta ederrik altxa dezakeela oraino gure mintzairak eskualde honetan.

*P. E.*

#### LOS ESCRITORES CONTEMPORANEOS DEL PAIS VASCO NORTE LES ECRIVAINS CONTEMPORAINS DU PAYS BASQUE NORD

J. M. Torrealdy, en su obra «Euskal Idazleak, Gaur», cita 14 escritores originarios del Norte entre 1900 y 1976. Pero en realidad, son más de 90 los nombres que habría que reconocer si atribuímos el título de escritor a todos los que han publicado un libro o al menos 25 artículos en euskara.

La generación de 1900-1920 depara 11 autores de libros y 11 autores de artículos. Para la generación de 1920 a 1936 las cifras correspondientes son de 20 y de 24. Y para la tercera generación, la que aparece en 1936,

contamos únicamente 4 ó 5 autores de libros pero también más de 20 autores de artículos.

Comparando el número de los escritores con el de los vascófonos de la misma región (78.000), se obtiene la proporción de 1/933, contra 1/2.945 para Guipúzcoa. Sin embargo, el catálogo general de libros vascos realizado por J. M. Torrealday revela un descenso relativo pero cierto de la producción literaria en relación con el conjunto de la edición: 70% de los libros vascos se edita en el Norte en 1946 y solamente el 9% en 1976. Pero estas cifras se deben situar en su contexto histórico y demográfico: la población del País Vasco Norte representa hoy día únicamente el 1/12 del total de Euskadi. La pluma vasca guarda, sin embargo, siempre aquí su fecundidad.

J. M. Torrealday nomme 14 écrivains originaires du Nord entre 1900 et 1976, dans son «Euskal Idazleak, Gaur». Mais en réalité c'est plus de 90 noms qu'il nous faut relever si nous attribuons le titre d'écrivain à tous ceux qui ont publié un livre ou au moins 25 articles en basque.

La génération de 1900-1920 fournit 11 auteurs de livres et 11 auteurs d'articles. Pour la génération de 1920 à 1936 les chiffres correspondants sont de 20 et 24. Quant à la troisième génération, celle qui apparaît en 1936, on y compte seulement 4 ou 5 auteurs de livres mais aussi plus de 20 auteurs d'articles.

En comparant le nombre des écrivains avec celui des bascophones de la même région (78.000), on obtient la proportion de 1/933, contre 1/2.945 pour le Guipuzcoa. Cependant le catalogue général des livres basques dressé par J. M. Torrealday révèle une baisse relative mais certaine de la production littéraire par rapport à l'ensemble de l'édition: 70% des livres basques s'éditent au Nord en 1946 et seulement 9% en 1976. Mais ces chiffres doivent se situer dans un contexte historique et démographique: La population du Pays Basque Nord représente aujourd'hui seulement le 1/12 de l'ensemble d'Euskadi. La plume basque y garde cependant toujours sa fécondité.

# Euskararen Irakaskuntza

Dominique Heguy  
Marta Ithurbide

Denek badakigu gure mintzaira, euskara, azken urte hauetan galtzen ari zela. Ez ote zen zuhaitz zahar baten pare, azala zimurtua, adarrak kraskatzen ari, odol berri egiazko baten beharretan?

Laburzki ikusiko dugu, aihen zahar horri non eta nola ari zaizkion lotzen, gaurko egunean, txerto berri batzu. Lehenik, Unibertsitateetan; gero, Ikastola eta Eskoletan; azkenik, Gau-Eskoletan.

## I. — UNIBERTSITATEETAN

*Bordeleko* unibertsitatean, bada irakasle bat, HARITSCHELAR Jauna, laguntzaile batekin, SALINAS Anderea Lekeitiarra. Horiekin ari dira lanean: 25 euskararen ikasteko, 15 lizentziaren egiteko eta 8 ikasle doktorgoa prestatzen.

*Tolosako* unibertsitatean ere zenbait ari dira ikasten, ALLIERE Jauna buru delarik.

*Pauen* berdin, Eugène GOYHENETCHErekin.

*Baionan* «Institut d'Etudes Juridiques» horretan, hiru mailatan ari direnak, badira orotara hogeitar bat CHARRITTON Jauna irakasle.

Bertzalde, hor bertan, orain berrikitan hasirik eta ikasturte guztirako, asteazken oroz, ikasgai-sail bat eskaintzen du «Ikas»ek:

- gramatika: X. Videgain
- textu-azterketa: J. Haritschelhar
- hiztegia: P. Lafitte
- historia eta geografia: M. Goienetxe
- literatura: P. Xarritton

Norentzat horiek? Euskaltzaindiaren tituluak erdietsi nahi dituzten ikastolako eta bertze eskoletako ikasle guztientzat; eta berdin beren euskal kultura ondu nahi dutenentzat.

## II. — ESKOLETAN

Lehenik ikusiko dugu zer egiten ahal den legearen arabera eta gero egiazki zer den eginik.

A) Ipar Euskal Herrian nola da euskarazko irakaskuntzaren aldeko frantses legea, gobernuko eta elizako eskoletan?

— Bigarren mailan: 11 urtetarik 14 urtetarainoko haurren-tzako deus ez da. 15 urtetarik 18 urtetararte, hamar bat haur biltzen baldin badira, gobernua ordaintzen ditu hiru ordu aste oroz.

— Lehen mailan: Irakasle bakoitzak, euskaraz mintzatzen bada eta gurasoek galdegiten badiote, bere eskolan eta ordu-erdi egun oroz, irakats diezaieke euskara ikasi nahi duten haurrei.

— Ama-eskoletan: Lehen mailako eskoletan bezala. Bertzalde, gobernua ordaintzen ditu «irakasle ibiltariak»,<sup>1</sup> hauek ere hiru ordu aste oroz.

	AMA-ESKOLAK	LEHEN MAILA	BIGARREN MAILA	
	«Maternelle» 2-5 urte	«Elementaire» 6-10 urte	«Collège» 11-14 urte	«Lycée» 15-18 urte
IKASTOLA <sup>2</sup>	dena euskaraz	euskara mintzaira nagusia		
GOBERNUAREN ESKOLAK	3 ordu euskaraz ibiltariak eginik	3 ordu irakasleak dakielarik	deus ez	3 ordu gobernua ordaindurik
ELIZAREN ESKOLAK	3 ordu euskaraz ibiltariak eginik edo berek ordaindu batek	3 ordu irakasleak dakielarik edo berek ordaindu batek	deus ez	3 ordu gobernua ordaindurik

B) Lege hori baliatuz, zer egiten da?

— Bigarren mailako eskoletan, erran nahi baita hamabost urtetarik unibertsitatean sartu arte.

*Gobernuaren eskoletan*, Lycée-etan, Baionan, Miarritzen, Donibane-Lohitzunen, banabertze hiru ordu astean; eta Euskal-Herri-tik kanpo, Akizen (Dax), Oloronen, Mont de Marsan-en oren bat edo beste.

*Elizaren eskoletan*, Baionan bertan «Villa Pia», «Largenté» eta «St Bernard»-en; Donibane Lohitzunen «St Thomas»-en, 9 ordu; gero Donapaleun eta Uztaritzeko seroretan.

— Lehen mailako eskoletan, sei urtetarik hamaika arte.

*Gobernuaren eskoletan*, hirurehun eta berrogeitamar bat erriert badira; larogeitalauk (84) euskara badakie. Horieta hamarre bakarrrik egiten dituzte hiru oren euskaraz, hogeitamai-kak (31) zenbait ordu (bat edo bi) eta beste berrogeitairuek (43) ez dute ahal edo nahi egin. Herriz kanpo, Frantzia behere horie-tan, badira euskaldun erriert anitz, berriz plazerrez herrira jin litezkeenak.

*Elizaren eskoletan*, berrehun eta hirurogeitamar (270) bat erriert eta errientsa dira, ehun eta hogeí (120) bat euskara da-kitenak. Horieta, hogeik nonbait han, egiten dituzte hiru ordu euskaraz. Kontuan ukan behar da, gainera, Donibanen, Urruñan, Kanbon eta Hendaian ez dutela erriertek bakarrik egiten, bainan batasun berezi batzuek ordaindutako irakasle batzuez lagunduak direla (hala «Haize-Garbiak» Hendaian edo «Hauxoak» Doni-banen eta bertze).

— Ama-eskoletan.

*Gobernuaren eskoletan*, hamar irakasle ibiltariak, aste guttiek, ikusten dituzte mila bostehun eta berrogeitamar (1.550) haur, bi urtetarik sei urtetarainokoak, heldu baita ehunetarik larogeitasei; gehienak Zuberoan eta Baxenabarren, aldiz aise gutiago itsas hegian.

*Elizaren eskoletan*, lau ibiltari dira, aurten hasiak, hogeitama-lau (34) eskoletan, segitzen dituzte zazpirehun eta hogeitamairu (733) haur. Ibiltari horiek ohartu dira, haiek hasiz geroz, etxean bertan haur ttipiekin, zenbait guraso euskaraz mintzatzen hasi direla.

Ama-eskoletan ibiltariak eskas dira: gobernukoetan baliteke bertze hamarren enplegua, eta elizakoetan dagoeneko eskeak heldu dira datorren urterako.

Eskas izanik ere, ama-eskoletan gobernuak ordaintzen ditu ibiltariak, baina ez lehen mailakoetan. Eta ibiltari horiek egin lana, parte bederen, debalde liteke lehen eta bigarren mailan segitua ez balitz. Horra non den «txerto» berri baten behar gorria!

Escola horietan egiten den lanak zinez gauza guti ematen du. Ez uste holakorik. Bistan da errientea irakasle ibiltariak dituzten baldintzak ez direla onak: ez dira hasieratik behar bezala moldatuak<sup>3</sup>; bestalde, astean hiru ordu emanez bakarrik euskarari, haurrek ez baitute gauza haundirik ikasteko biderik.

Zernahi izanik, ez dira debalde hor egin lanak. Haurrei eskolan irakatsiz bestalde, erriente horiek baldin badakite haurrei euskal mintzairari gustua ematen, euskal kultura maitarazten eta euskal izatea sostengatzen, orduan, haurrek etxea ere gurasoekin euskaraz mintzatu nahiko dute eta egun oroz mintzatuz hor dute hobekienik ikasiko. Ez ote da mendez mende «etxean hazia» izan gure mintzaira zaharra!

### III. — IKASTOLETAN

Baionan, 1969an, Ipar Euskal Herriko lehen ikastola aberzale-multzo batek ireki zuen. Geroztik egin du bide: orain hogeitabi ikastoletan larehun bat haur dabilta, bi urtetarik hamai-ka urtetakoak: Baionan, Donibane Lohitzunen, Senperen, Hendai-ian, Donapaleun, Azkainen, Uztaritzen, Maulen, Hazparnen, Garazin, Miarritzen, Arrangoitzen, Kanbon, Mugerren, Atarratzen.

Lehen mailako ikastolak ireki ziren duela lau urte, bat Angelun, bertzea Donibane Lohitzunen; hirugarrena Donapaleun 1977-an, sortu orduko zenbaitek hilarazi nahi bazuten ere.

Ikastola guztien kurrída SEASKA batasunak aurrítzen edo koordinatzen du: behar den diruaren biltzeko gobernuak ez baititu ordaintzen, andereñoen formazioa bere gain hartuz irakasten hasi aitzin eta ondok (hogeitamalau (34) irakasle dira bost andereño gairekin).

Gaurko egunean, epe berri bat atera da ikastolentzat. Lehen mailan diren haur zaharren horiek bigarren mailan sartu behar lukete heldu den urtean. Non? Frantses eskola batetan... arte horretan ez baldin badu SEASKAK bigarren mailako ikastolarik irekitzen. Erran gabe: doa, holako erabaki bat ez dela nolana-hi eta aitzinetik gogoetarik egin gabe hartzen. Zeren oraingo dirua-

ren aldetik dituzten buruhausteak ez bait dira ttipituko, eta bada bertze karkulorik egiteko.

Nola ari dira lanean Ikastoletan?

Ikastoletako irakaskuntza, aita-amen eta irakasleen artean muntatua da eta, guti edo aski, urte oroz berritua. Ama-ikas-toletan hizkuntza bakarra euskara da, esan nahi baita ez dela euskara ikasten kanpoko mintzaira bat bezala, baina euskaraz dela ikasten. Lehen mailatik goiti, frantsesezko irakaskuntza mailaka sarrerazten da, euskara egonez mintzaira nagusia.

Haur horietarik gehienak ama-ikastolatik landa, lehen mailako frantses eskola batzutan sartzen baitira, arrenguratzen ahal gintezke beren ama-eskoletako frantses lagunak bezain badirenez?

Xehetasunetan sartu gabe, erraten ahal dugu ez dutela traba berezirik ukan frantses irakaskuntzari lotzeko; eta gehienak bertzei nagusi direla. Bistan da, zenbait nekez hasi dira irakurtzen: ardurenean irakasle berria ez zen batere ikastolen aldekoa!

#### IV. — GAU-ESKOLETAN

Gau-Eskoletan ez dira haurrak ikasle, baina adineko emazte eta gizonak; eta hor, gaurko egunean galde edo eske anitz bada.

Baionan bertan, sei lekutan larogei bat pertsona ari dira lanean (Orai-bat, Balichon, Mende-Berri, Musée Basque, St.-Amand, ZUP biltokitan).

Angelun, hirurogeitamar (70) bat, El Hogar-en, lau taldetan.

Bertzalde, ikas-lekuak badira Lapurdin: Miarritzen (2), Baionan (7), Donibanen (2), Hendaian (2), Bidarten, Angelun, Kanbon, Uztaritzen, Hazparnen, Urketan, Hiriburun. Baxenabarren: Donapaleun, Garazin, Baigorri eta Irissarin. Zuberoan: Maulen eta Atarratzen.

Herriz kanpo: Parisen, Bordelen (3), Pauen (2).

Orotara, Gau-eskoletan bortzehun bat (500) pertsona ari dira euskara ikasten, Parisen bertan ehun bat, berrogei irakaslek lagunduz.

Horra beraz larri-larri egina Euskal Irakaskuntzaren itzulia Ipar Euskal Herrian.

Txertoak aipatzen genituen hastapenean. Zenbait eskas dira, hala bigarren mailako eskoletan; bertze batzu, ahulak ama-eskoletan, lehen mailakoetan eta unibertsitatean; bertze bat, guttiz baliosa baina nekez lotzen dena, ikastola.

Txertoa beti gauza txarra da itxuraz, baina geroari buruz itxaropenez bete. Denen burrukari esker biziko da gure euskara. Lehenik, ditugun armak baliatuz eta denbora berean, gobernuari kenduz bertze erdi berri batzu, adibidez, irratia eta telebista euskaraz.

*D. H.*

*M. I.*

<sup>1</sup> «Irakasle ibiltariak» edo «itinérants» direlakoak, Gobernuak izen-datuak dira, baina ez daude, gainerakoen antzera, ikastetxe bati lotuak, bospasei lekutan ibiltzen baitira euskara irakatsiz.

<sup>2</sup> Hemen ikastolak beste eskolekin kausitzen dira. Horrek ez du erran nahi ikastolak frantses legearen arabera dabiltzanik. Alde batetik gobernuak ez ditu ordaintzen. Bestalde, inork ez du ahantzi gurasoen borroka, Prefetak nahi zuclarik Donapaleuko lehen mailako ikastola hetsarazi: Jaun horrek ez zuen uste hainbeste jende aterako zenik Baionako karriketara!

<sup>3</sup> Formazioa bere gain ez harturik ere gobernuak, irakasleek pasatu dituzte, bistan da, beren diploma eta etsaminak (C.A.P.); bestalde «Ikas» batasunak muntatzen ditu noizbehinka ikastaldiak (ondarrekoan, hirurogeitamarrek segitu dute); erran behar da ere ibiltarien laguntzeko, hor dela «Conseillère pédagogique» gobernuak ordaindua, Angele ERRANDONEA anderea, bera lehen irakasle ibiltaria izana.

#### LA ENSEÑANZA DEL EUSKERA EN EL PAIS VASCO NORTE L'ENSEIGNEMENT DU BASQUE EN PAYS BASQUE NORD

En el plan universitario habría que señalar sobre todo la cátedra de lengua y literatura vascas de Burdeos III donde el profesor Haritschelhar y su asistente agrupan unos cuarenta estudiantes, entre los que hay 3 candidatos al doctorado.

En el nivel de la enseñanza secundaria el vascuence es considerado como «materia de opción» para el bachillerato. Se enseña a los que lo pidan, durante dos o tres horas por semana, en la mayoría de los colegios o liceos del País Vasco: Bayona, Biarritz, Saint Jean de Luz para la enseñanza pública; Bayona, San Juan de Luz, Ustaritz, Saint-Palais para la enseñanza privada. Pero esta enseñanza no se imparte sino durante los tres últimos años de la secundaria (15-18 años) y en condiciones defectuosas. No se prevé nada para el primer ciclo (11-14 años).

En el nivel elemental, desde hace un año los maestros están autorizados para dar dos horas de euskera por semana, pero el número de los maestros que lo pueden y lo quieren hacer es muy reducido: 1/10 más o menos en la enseñanza pública, algo mejor en la privada. Sin embargo, desde hace unos años, los maestros itinerantes enseñan regularmente en las clases maternas (10 en el sector público y 4 en el privado). Se llega



así a 2.300 niños de 2 a 6 años durante tres horas por semana, sobre todo en el País Vasco interior.

Todo esto es reciente y responde a la fuerte demanda de los padres. De ellos nace igualmente la escuela vasca «ikastola». Esta ha nacido en el Norte en 1969 en Bayona y toca actualmente a más de 400 alumnos agrupados en una veintena de escuelas federadas en «Seaska». A pesar de las dificultades de todo orden, el nivel primario (tras los seis años) se da en tres centros: Bayona, San Juan de Luz, Saint-Palais.

Los Gau-Eskola o cursos de tarde para adultos se han multiplicado (siete centros en el mismo Bayona), lo que indica también un importante cambio de mentalidad en relación con los años anteriores.

Au plan universitaire il faut surtout signaler la chaire de langue et littérature basque de Bordeaux III où le professeur Haritschelhar et son assistante regroupent une quarantaine d'étudiants, parmi lesquels 8 candidats à un doctorat.

Au niveau secondaire le basque est considéré comme «matière à option» pour le baccalauréat. Il est enseigné à ceux qui le demandent, pendant deux ou trois heures par semaine, dans la plupart des collèges ou lycées du Pays Basque: Bayonne, Biarritz, Saint Jean de Luz pour l'enseignement public; Bayonne, Saint Jean de Luz, Ustaritz, Saint Palais pour l'enseignement privé. Mais cet enseignement ne se donne que durant les trois dernières années du secondaire (15-18 ans) et dans des conditions défectueuses. Rien n'est prévu pour le premier cycle (11-14 ans).

Au niveau élémentaire les enseignants sont autorisés depuis un an à donner deux heures de basque par semaine, mais le nombre des maîtres qui peuvent et veulent le faire est très réduit: 1/10 environ dans l'enseignement public, à peine mieux dans l'autre. Depuis quelques années cependant des instituteurs itinérants enseignent régulièrement dans les classes maternelles (10 dans le public et 4 dans le privé). On atteint ainsi 2.300 enfants de 2 à 6 ans durant 3 heures par semaine, surtout en Pays Basque intérieur.

Tout ceci est récent et répond à la forte demande des parents. C'est d'ailleurs de là que vient aussi l'école basque «ikastola». Celle-ci a démarré au Nord en 1969 à Bayonne et atteint aujourd'hui plus de 400 élèves regroupés dans une vingtaine d'écoles que «Seaska» fédère. Malgré des difficultés de tout ordre, le niveau primaire (après 6 ans) est atteint dans trois centres: Bayonne, Saint Jean de Luz, Saint Palais.

Enfin les cours du soir pour adultes se sont multipliés (7 centres à Bayonne même) ce qui indique aussi un important changement de mentalité par rapport aux années antérieures.

# Pintura Ipar Euskal Herrian 1930az geroztik

René Gelos

## I. — Donibane Lohitzuneko Margolari Eskola

1930 eta 1940 artean, artelan ororen biltegi edo zentro garrantzitsu bat izan da Donibane Lohitzune.

Kasik egun ederra zen aldi oroz, Ziburuko eta Donibane Lohitzuneko karrika ttipi eta bihurrietan gaindi ibiltzen nintzen, orduko margolarien xibeleten edo zaldittoaen ondotik. Eta atzematzen nituelarik, haien ondoan egoten nintzen, orduak eta orduak. Ordu luzeak iragaten nituen horrela margolariekin gogo-bihotzez bat eginik, haien jestu eta bekain-etzpain zimurtze ttipien barrandan.

Beti beren gibeletik edo atzetik ikusiaren bortxaz, azkenean elea ematen zidaten, eta, nik ere, egun batez margolari izateko nuen gogoagertu nielarik, ene xede hartan lagundu ninduten.

Ene aitak, arte plastikoetara zer jitea nuen ikusirik, ene margolari irakasletzat *Jean Charles Colin* hautatu zuen. Ongi ezagutzen nuen. Bakarrean aldi goxoak baintuen harekin iraganik.

Margolari hau, zizelkari, musikari eta olerkari zen denbora berean. Ama euskalduna zuen eta

aita XIX. gizaldi edo mende bururatzean eta XX. gizaldiaren hasieran aipamen haundiko potretalari edo itxuralaria izan zen.

*Jean Charles Colin*-ek bere bigote, bizar gorrail eta betaurrekoekin, izate bitxi bat zirudien. Gizon bat zen hauta edo aukerakoa, adimenduz, jakitatez eta umore onez. Haren egoitza, egiazko zuhaitz zaharrenez osatu oihantto batetan da, bere bidexka bihurriekin eta mila usainekin. Haren laneko lekua edo margola, Bordagaineko patarrean edo aldapan kokaturik dago, zuhaiztiaren aldean, Ziburuko karrika edo kale zaharrenetako baten gain aldean.

*Jean Charles Colin*-ek ohartarazi nau arteari, bere osoan harturik, zeren, berak erratea maite zuenez, «bata ez baitoa beste gabe». Irakasle jakina eta fina zen. Arratsalde osoa zirauen ene ikasaldiak. Halako batean, gogoz irakurtuz bere olerkiak eman zizkidan eta zenbait urte lehenago moldatuak zituen euskal operen zati batzu harmoniumean jo.

Decrept-ek izenpetu liburuttoan agertu opera horiek, Donibane Lohitzuneko Antzoki Libroan, (erdaraz: «Théâtre de la Nature» deitzen dute) joak izan ziren, sekulako arrakasta biltzen zutelarik.

Zizelkari bezala, Ziburu bere herriko hil-orotarria zor diogu.

Jean Charles Colin-ek bere adiskideekin talde bat moldatu zuen, zeinetan ere aurkitzen baititugu:

GEORGES MASSON: Ravel deitu kaia bazterrean bizi dena, honen sortetxetik bi urratsetan. Bazter margolari bat da. Hegoaldeko euskal portu xarmagarriak gisa edo era berezi batez agertzen ditu, eguzkitan, kolore bizienez jantzirik. Haren margoetan, bazterrak oro kantari edo abeslari daude, zeru eta uraren urdin ñiñir dirdiratsuen. Urdin, gorail eta gorriak zolatzat harturik, kolore horien egiazko sinfonia bat iduri, arraintzarien barku ttipiak zazpi kolorezko batel baten antzera, uraren gainean dardelarik.

PIERRE LABROUCHE: Baionako Museoko kontserbatzaile edo etxezain izan dena. Grabatzailea da, biziki ona. Kolore ilunen baliatzailea. Badu zernahi «gouaches» eder eginik.

PERICO RIVERA: leindako pertsona harrigarri bat iduri duena, bere kapa jantziarekin eta kapela haundiarekin. Espainiar eskolatik etorria, baina aspalditik ziburutartua. Espainiar eszeretan espezialdua, «flamenco» dantzarietan halaber. Biluzien itxuratzeke esku habila duena. Dohain haundiko margolaria, hegoaldean anitz estimatua.

CHOQUET: abere margolari paregabea. Kasik beti pottoka uher batzuek, edo oraino, iratze gorrailduz jantzi menditako bidexketan tiki-taka doazen asto ttipi zaredunek bizarazten dituzte haren bazterrak, haize hegoaren firrindak udazkeneko kolore beroak oraindik gehiago agertzen dituelarik.

Geroago talde horretara bilduko da gipuzkoar gazte bat, Parisen lanean ari izan dena, Picasso, Juan Gris, Picabea batzuekin. Han ordea, laster deserrotua sentitu du bere burua eta Donibane Lohitzunera etortzen da gero alde bat hor kokatzeko.

RAMIRO ARRUE du izen deitura. Nahiz haren margolanak doi bat zuhurrak, xumeak, isilak eta taldeko zaharrenentzat doi bat modernoak diren, hala ere inpresionismoari leialik daude. Eta sartze bat herabe airekoa egiten du horrelako taldean. Baina, luza gabe euskal margolari dohatsuen bezala agertuko da, gure Euskal Herriko egunaren ordu bateko argidura berezia hobekienik sentitu eta kolorez bihurtu duena. Lekuko laborari, arraintzari, dantzari eta pilotarien margolaria du. Berak egin margo haundi batek edertzen du Arrangoitzeko antzokia. Zalan-tzarik gabe, Euskal Herriaren egiazko margolaria du. Donibane Lohitzuneko herriak haren dohaina ohoratu du, hiri erdiko kale bati haren izena emanez.

Sei margolari horiek, anitz urtez batasun lagunkin bat moldatuz, omen azkar bat bilduko dute, beren agerraldi bakoitzera jendalde ederra bilduz. Talde hori da zinez urtealdi horretako Donibandar eskolaren oinarria.

Talde horretatik aparte, badira ere beste margolari batzu, eta ez ttipienak. Hala nola:

PHILIPPE VEYRIN: bazter-margolari dena, kolore-sail eder baten baliatzaile izanez eta gainera idazle aipatua, Euskal Herriaz ikertze bat baino gehiago utzi diguna.

FRANCOIS BIBAL: kolore biziaren margolaria. Donibane Lohitzundar bat, bere Herria airostasunean, mugimenduan eta koloretan agertzera beti entseiatu dena.

DE LATOURASSE eta ELIZAGA: biak margodoinu gris, estilizatu, desberdin eta finekin ari dira lanean. Margo moderno eta beratza.

LEFEVRE: Urruñan kokatua, irakasle eta gero Arte Ederren zaindari edo inspektore orokorra. Klasikoen iturritik ari dena margotzen.

D'AUSSY PINTAUD: Sokora etorri dena bizitzera. Egin dituen agerraldi ugariak duen jakitatearen lekuko izan dira.

Opor edo lanarte ordainduen abiadako urtealdi horretan jadanik, bi margolari laneko lekuan bertan muntatzen dute margo denda edo saltegia, barrikaren gainean. Horietaz geroztik, beren agerraldiak, udakari, dendetan egin dituztenak izan dira. Eta badira oraino.

Lehen jinak edo etorriak, FLOUTIER-ek benetako arrakasta biltzen du udatiarren artean. Langile porrokatu bat da. Aro ederra delarik kanpoan eta txarra delarik barnean, bere lantokian, ari da margotzen. Eguzki dirdiratsuaren margolaria du. Ardura edo askotan horren laneko lekuan ibiltzen naiz eta haren tiki-taka, jestu eta ohitura edo usaia guztiak ezagutzen ditut. Gizon haundi bat zen, bizartxoduna, beti artilezko galtzerdi batzu galtzen gainera emanik larruzko espartinak herrestan zebilana.

Noiznahi euria ari duen eskualde batetan, beti eguzkitan ziren bazterrak margotzen zituela erran zion adiskide bati ihardetsi zion, «bere egonaldi guztian *kaka* erori baldin bada ere, paristarrak beren etxera itzulita ez dira guti fier, beren bakan-tzetako Euskal Herri miragarria, tematuki eguzkitsu, erakusten dietelarik beren adiskideei!»

Beste margolaria, ALMES: miresten dudana, honen atzetik nagoelarik. Ez da egun biziki ezaguna, baina iduritzen zait honen margoihalak luza gabe biziki ezagunak izanen direla, zeren egiazko artista honek ernetasunez, eskubiziz eta argi harrigarritz margotzen baitzuen, beharrezkoena, funtsezkoena agertuz baka-rrik, inpresionistalari haundiaren inguru baten jabe izanez.

Margolari talde eder horri dagozkiola, hor zeuden ere erdi ofiziale zirenak, hala nola:

ETXEBERRIGARAI: margolaria bere orduetan, baina gehienbat musika egile: fandango, arin arin, pasakalle eta serenada.

Beste bi zizelkari ere aipatu behar ditut.

Bata, REAL DEL SARTE, bere «Jeanne d'Arc» margoengatik mundu zabalean ezagutua dena. Besomotza zen, 14ko gerlaz gero. Harek egin «Jeanne au bucher» edo Joana sutan eta «Kurutzearen bidea» deitu margoihaiek edertzen dute Donibane Lohitzuneko eliza.

PUYFORCAT: Parisetik etorria, Santa Ana oihanean, ehunka urteko aritzen artean egoitza eder bat eginik. Zizelkari moderno, jaun aipatu anitzen itxurak zizelkatu ditu.

Bestalde, udakari, Donibane Lohitzunek margolari haundiak ikusten ditu, hala nola, Van Dongen, Gabriel Domergue, etab.

Bai eta idazle aipatu batzu, hala nola. CLAUDE FARRERE, Erromardin kokatua, eta PIERRE BENOIT, Ziburuko Bordagaineko egoiliar jarraikia. Gure MAURICE RAVEL haundia ahanzi gabe, bere sortetxera heldu zena, Ziburura, bere musika ederrenen moldatzera. Ez dioa beste guztien artetik, honek eman gure Euskal Herriari aipamen?

Urtealdi hartan, Donibane Lohitzunek aro eder bat bizi izan zuen, arteen abantailetan, ez baitzen ere guti fier zeukan margolari eskola ariaz eta aipatuaz.

\* \* \*

Eta egun zertan gara? Nolakoa da Donibane Lohitzuneko kultur bizia? Donibane Lohitzuneko margolarien eskolak ez du jarraipenik edo segidarik izan. Bi margolari ofiziale ditu bakarrik, urte osoan Donibane Lohitzunen edo Ziburun beren lanetik bizi direnak.

ANTONINI: inpresionismoari leial egonez, Donibanen Lohitzunen duen denda bere margolanetan ari dena. Udan biltzen duen arrakasta gero eta haundiagoa du.

ORTZADARRA taldea entseiatzen da bere aldetik bizi artistiko baten ematera, lan-saioak eta margo agerraldiak urtero antolatuz.

## II. — Baionako Margolari Eskola

Eta zer berri da Baiona aldean? Baionako margolari eskola betidanik izan eta da oraino lanean ari den eskola haundi bat. Baionako eskola diogularik, bistan da, Angeluko eta Biarritzeko artistak ere barne hartzen ditugula. Aldi eder ospetsuak ezagutu ditu eskola horrek.

Graziatzko aldi bat bezala, Léon Bonnet-ena izan da, hain dira margolari horren lanak eta hedadura haundiak.

Hogeigarren urteko aldia ere aipagarria izan da, Etxeberri, Duluc, Marie Garai eta abarrekin. Baina, hemen, gure aldiaz edo garaiaz ariko gara bakarrik. Zeren Baionan artistak gero eta gehiago lanean ari baitira.

Nahiz ez duten leku aski beren agerraldien egiteko, nahiz ez duten arte modernoan museorik edo erakustokirik, nahiz oraino Arte Ederren Eskola Nazionala (Estaduarena) kendua izan den,

hala ere Baiona kultura bizi baten jabe den hiria da, artisten beren erretasunari esker gehienbat.

Urtero Baionako mintzaldien kariatara antolatzen den artista-lanen agerraldiak, aldi oro, goi maila jotzen du, Hiriko margolari eskola zuzendari den Pierre Mallet-en asmamenari esker.

Baionako mintzaldien kariatara ere, *Bonnat* Erakustokian antolatzen da agerraldi eder bat, non ere bere baitan dauzkan obra ederretarik, beti agertzen baitira obra arraro eta agertu gabeak.

Ducourreau jaunak zuzentzen duen museo hori luza gabe gainez gain berriturik ikusiko dugu.

BENJAMIN GOMEZ zenak moldatu zuen artista taldea «Union Bayonnaise des Arts» deituak, margoera edo tendentzia guztiei zabaldurik dagoenak, bere aldetik urtero antolatzen du agerraldi bat, gazte anitzentzat jauzigune gertatzen dena. Arrangoitze-ko Markesa buru zuelarik lan ederra egin zuen talde horrek. Eta orain, PIERRE ESPIL olerkaria kudeari, ez da gutiago mugitzen.

Hamar bat urtez, LE GRENIER deitu talde ttipiak, MARIXA margolariaren babespean, antolatzen ditu agerraldi batzu, jende anitzek gogotik jarraitzen dituenak. Talde hau margolari eta zizelkari multzo batek osatzen du. Arteaz ideia berezi bat eta gusto beretsuak dauzkate: betiko bidexka ibilietatik urrundu nahi dutenak eta beren izaera osoki beren obretan agertu nahi dutenak.

MARIXA, bere sorterria duen Asturiasetik etorria zaigu. Margoarean benetako «pasionaria» bat da. Alemanian bezanbat ezaguna da Suezian, Frantzian, Espainian eta Ameriketean. Bere artea osoki eskutan duen margolaria dugu, dena finezia eta romantizismoz betea.

MALLET, Baiona hiriko margolari eskolako irakasle zuzendari dugu, irakasle ezin hobea, artist agerraldien antolatzaile paregabea eta hogeigarren mendeko arteak zer izan behar duen ongi dakiena.

CASAMA goizegi zendu margolari kapablea; taldeak harekin adiskide kementsu eta dohatsu bat galdu zuen.

RAMBIE margolari oldartsua, izakera aiherkoiduna. Margolan eder batzu zor dizkiogu. Baionatik joan da Pariseko abentura eroan sartzeko. Talentu haundikoa baita, dudarik ez da erreusituko duela.

LAURENDEAU DE JUNIAC: egur zizelkaria, lan miragarriak egin dituena.

Bost artista horiei juntatu behar diegu LUIS FREDERIC DUPUIS Baiona eskola berri horren kudearia. Kalitate arraroko margolaria. Bere apaltasunak eta intereszdun izateak frantses margolari haundi bat izatera utzi ez duena.

Beste zizelkari haundi bat, Kanbon bizi den JESUS ETXEBARRIA, bai eta honen ikasle izan den PANTXOA SAINT-ESTEBEN, Azkainen bizi dena.

CHARLES CARRERE, mitragin edo beringin eta margolaria Fantasma harrigarrienen margotzaile dena.

Eta neroni, R. GELOS, talde horretan barne izan naizena.

Ondikotz, *Le Grenier* desegina da eta gure eskualdeak anitz galdu du.

Talde horren ordaintzeko bezala, beste bat muntatu da, «8. Taldea» deitua, margolari adinekoek osatzen dutena: Marixa, Dupuis, Gelos, Laurendeau de Juniac, Mallet, Haramboure, Lafargue eta Otxoa.

Baionako itxura haundi bezala hor dugu oraino, PAUL BAZE margolari itxuralaria. Bonnat Erakustokiko buru eta Erromako lehen prima ukan zuena: HENRI LAULHE bazterren eta folklo-rearen margolari. Balio haundiko beste margolari hauk: ALCALDE, AUGER, BLANDIN.

Mitra edo berin-margolari haundi bat, LESQUIBE, han-hemen-ka gure elizetako berinak ederturik ezarri dituena.

KILLY BEAL, hau zeramikalaria.

Arte Ederretako eskolatik jalgi gazte talentodun batzuk segurtatzen dute geroa:

HARAMBOURE: egunetik egunera, nortasun haundiarekin goiti ari dena. LESTIE, gazte izanagatik margolari moderno bezala toki bat guztiz ona eskuratu duena eta «Pompidou» kultur zentroan bere agerraldia daukana.

Patrick Rouleau, bere eskuaren balia haundiarena galdua izanagatik, marrazkilari harrigarri bat bilakatzen ari den gazte suharra.

Francine COUTURE, arras bere gisa baina balio seguruaren jabe dena.

LAFARGUE, jadanik hemen aipatua, Casama zenaren ikaslea. OTXOA, surrealismoan ezin finagoki ari dena.



MARIE AGNES MALLET, marrazkilari haundi bilakatzen ari dena.

Zizelkarietan bertiz, BERT HOMME eta LASSERRE anaiak.

Beharbada nor edo nor ahantzi duket. Baina horra hor egungo Baionako Artisten Eskola. Eskola bat aitzina doana, bizibizia eta gogoz betea.

R. G.

(*Gexan Lantziri-k laxoan euskaraz emana*)

---

\* *P. Lafitten obarra*: M. F. Kaperotxipiren «Arte Vasco» liburu abertsak (Ekin, Buenos Aires, 1954, ik. 163-186 or.) aipu ditu Pablo Tillac Kanboko margolari ezaguna, P. Choribit Hazpandarra eta beste, bai eta «Les Saltimbanques» Miarritzeko taldea (1940-1945).

#### LA PINTURA EN EL PAIS VASCO NORTE (1930-1978)

#### LA PEINTURE AU PAYS BASQUE-NORD (1930-1978)

De 1930 a 1940, San Juan de Luz constituye un centro artístico importante, gracias a maestros como J. C. Colin y sus amigos G. Massen, P. Labrouche, P. Ribera, Choquet, y luego el joven Ramiro Arrue. Añadamos a este grupo Philippe Veyrin, François Bibal, De Latourasse, Elizaga, Le-fèvre, D'Aussy Pintaud, etc. Además de estos profesionales, señalemos todavía el pintor Etcheverrigaray, los escultores Real del Sarte y Puyforcat, como también el más ilustre de los artistas vascos, el músico Maurice Ravel. Hoy el grupo «Ortzadarra» trata de conectar con esta gloriosa tradición.

La escuela de Bayona se ilustró a primeros de siglo gracias a los alumnos de Bonnat, los Etcheverry, Garay y Duluc. Desde entonces, el «Grenier» reúne, durante una decena de años, un pequeño grupo de artistas: Marixa, Mallet, Casama, Rambié y Laurendeau. El «Groupe des huit» le sucede hoy, que comprende además de Marixa, Mallat y Laurendeau, Dupuis, Gelos, Haramboue, Lafarque y Otxoa. Fuera de estos grupos habría que relevar los nombres de escultores Etchevarria y Saint-Esteben, del vidriero Lesquibe, del ceramista K. Beal y sin duda de otros. Lo esencial es señalar que «L'Union Bayonnaise des Arts», fundada en su tiempo por Benjamín Gómez, está en plena actividad. Realiza exposiciones regulares. El museo Bonnat está restaurándose y el Conservatorio de música, perfectamente instalado, reúne a más de mil alumnos.

De 1930 à 1940, Saint-Jean-de-Luz constitue un centre artistique important, grâce à des maîtres tels que J. C. Colin et ses amis G. Masson, P. Labrousse, P. Ribera, Choquet, puis le jeune Ramiro Arrue. Ajoutons à ce groupe Philippe Veyrin, François Bibal, De Latourasse, Elizaga, Lefèvre, D'Aussy Pintaud, etc. Outre ces professionnels signalons encore le peintre Etcheverrigaray, les sculpteurs Real del Sarte et Puyforcat, ainsi que le plus illustre des artistes basques, le musicien Maurice Ravel. Aujourd'hui le groupe «Ortizadarra» essaie de renouer avec cette glorieuse tradition.

L'école de Bayonne s'illustra au début du siècle grâce aux élèves de Bonnat, les Etcheverry, Garay et Duluc. Depuis lors, le «Grenier» réunit, pendant une dizaine d'années, un petit groupe d'artistes: Marixa, Mallet, Casama, Rambié et Laurendeau. Le «Groupe des huit» lui succède aujourd'hui, qui comprend outre Marixa, Mallet et Laurendeau, Dupuis, Gelos, Haramboure, Lafarque et Otxoa. En dehors de ces groupes il faudrait relever les noms des sculpteurs Etchevarria et Saint-Esteben, du verrier Lesquibe, du céramiste K. Beal et sans doute d'autres. L'essentiel est de noter que «L'Union Bayonnaise des Arts», fondée naguère par Benjamin Gomez est en pleine activité. Elle assure des expositions régulières. Le musée Bonnat est en cours de restauration et le Conservatoire de musique parfaitement installé réunit plus de mille élèves.

## Herri kanta egungo Iparraldean

Maite Idirin

Batzutan, horrela baderitzagu ere, egungo abesti herritarra ez da onddo galdu bat euskal oiha-netan. Ez den bezala, azken hogeitau urte hauetan, munduan zehar birberritu izan den abesti herritarren fenomeno. Historiaren konpasean, eguzkiaren eguneroko legez, argi eta ilun aldiak ematen direla, giza hegi iraunkorrenei buruz aitortu behar dugu. Eta giza hegi iraunkor hauetarik bat, ez-pairik gabe, abesti herritarren saila dugu. Gizona, *homo sapiens* bilakatu denez gero, bere espresio-moldeetan abestia beti egon izan dela, tronpatzeko beldurrik gabe baiezta genezake. Izan ere, «natura», erritmo da. Simetria, aldizkatasuna, joan-etorria, dilinda eta oihartzuna tributarioak ditu naturak. Nahiz eta lehen itxurara desordena dagoela badirudi ere, natura beti «neurrian» bizi da. Egunaren eta gauaren mekanika, itxas uhinaldiak, urte-aroak, ugalmena, ernekuntza, loratzea eta zimeltzea, abere eta landareen bizitza eta heriotza, erritmoaren disziplinan bilakatzen dira, hots, monotoniaraino hertsirik den erritmoan»<sup>1</sup>. Dena dela, gure lanbidez gaur aipatu nahi dugun esparrura gehiago hurbilduz esan dezagun, euskal gizona, historian katalogatu aurretik ere, «ez litzakela benturagarri sinestea musikaz ere bizi izan dela, nahiz eta musika hoik guregana ez zaizkgun

heldu»<sup>2</sup>. Horregatik, egungo abesti herritarra aipatzerakoan, beharrezko deritzat historikoki katalogatu ditugun abesti tradizionalak ere zertxobait esateari. Gainera, gaurkoaren ataria, ulergarriago egingo dugu molde horretan.

## I. — EUSKAL KANTA TRADIZIONALA

Euskal abesti tradizionala Aita Lafittek dioenez, «gure ahozko literaturaren bairenean gauza funtsezkoenetarik da»<sup>3</sup>. Hain zuzen, gure hizkuntza idatzia ez zen aroko nebulosa ilun horretatik atera orduko, XV. gizaldian, lehen literatur textuak herri kanta zaharrak ditugu. Lehen textu ezagunak esan behar dut, zeren, lehenago, hots, XIII. gizaldian, Nafarroako erreinuan, Thibault de Campagne erregea, trobadore izan zela jakinaren gainean bait gaude. Ondorioz, ziur da literatur texturik izango zuela. Frantsesez bai! Baina beste hizkuntzatan ari izan ote zen? Euskaraz eta okzitaneraz izan zitekeen. Zeren Nafar erreinua Okzitaniarekin nahasturik bait zegoen. Eta historiak dakiguna da, XII. mendetik XIV.era Okzitanian abesti herritarren mugimendu zabal bat ematen dela. Bi korrontetan zatitua. Alde batetik, abesti herritarra egiten jarraituko da, horren protagonistak «jongleurs eta menestrels» deituko izanaz. Eta bestalde, jauntxoek abesti-mota bat sortuko da. Bere egileak «trouvadour» deituko dira. «Trouvadour» hauek oso ikasiak ziren eta gehienetan Limousin-eko monasterioetan ikasten zuten<sup>4</sup>.

Eta Okzitanian sorturiko herri-kantaren mugimendu hura hain garrantzizko izango da, non Emile Vuillermoz-ek bere «Histoire de la musique» liburuan bait dio: «Frantzian abesti herritarra dago musika guztiaren haseran». Baina, garai hartan Frantzia egin gabe zegoenez, trobadoreek zerabilten hizkuntza «romance» edo «langue d'Oc» zela seinalatu behar dugu. Lehen aipatu dugunez, Nafar erregearentzat gauza bera da. Beharbada, egun batez, Toulouse aldeko artxiboa batetik euskarazko poema zaharren batzuk aterako dizkigute Okzitanoek. Baina, oraingoz, horretan ez gaudenez, gure abesti zahar ezagunetarik «Urrutiako andrea» 1422koa eta «Bereterretxen kantorea» 1434koa aipatzen jarraitu beharko dugu<sup>5</sup>.

Edukinari dagokionez, gai epikoak zein maitasunezkoak erabili, esan dezagun gertatuaren edesti direla. Honela, Bereterretxeren kantoreak agertzen duen gaia Nafartarren arteko borroketan kokatua dago, hots, Beamontesen eta Agramontesen arte-

ko borroketan. Ingleesen aurka egindako 100 urteetako guduaren barruan dago. Eta Urrutiako anderea deitu abestian, andere horren gizonak zituen jelosiak kontatzen dira.

Eta oraino ildo beretik doan beste adibide bat aipatuko dugu: «Atarratzeko jauregian» abestia. 1584ean Lukureko jaun zaharra Mari Jaurgainekin ezkontzean neskak egindako kexak aipatzen ditu. Esan dezagun, bidenabar, Mari senarra baino 30 urte gazteago zela.

Eta horrela beste anitz abesti aipa genezake. Ikusten dugunez, guztietan errealitate bera topatzen dugu, hots, gure olerkari herritarrek abesteko poemak egin izan dituztela edo eta «Euskal-herrian herritar poesia kantatua dela»<sup>6</sup>.

Haritschelharek bere lan aipatuan dioenez:

«Detxeparek bere Linguae Vasconum Primitiae 1545-an inprimatu zuenean bazekien bera zela lehena euskaldunen artean bertsoak inprimatzen, nahiz eta ez zan lehena bertsoak egiten, zeren bertso liriko eta epiko batzuk bizkaieraz idatziak bilatu izan dira geroago eta zihurra da XV. gizaldikoak direla. Zer nahi gisaz, bere liburuaren aitzin-solasean Detxeparek ondoko hau adierazten du: «idazten ba dut, euskaldunak eta gaineati-koak euskaraz idatzitako doktrina bat ukan dezaten egiten dut eta diberti, solasta eta *kanta* ahal dezaten»<sup>7</sup>.

Dena dela, Etxepareren gogo hori ez dakigu haren garaiko jendeak bete zuen, baina, dakiguna da, gure egunetan haren poemak berriro musikatuak izan direla. Hor dauzkagu lekuko Oskorriren diska haundia, Xabier Leteren «Euskara» eta nik neuk aspaldidanik haren lau poemaz eginikako diska txikia.

Oraino ba dago beste aipagarri bat ere. Alegia, tradizioetik jaso ditugun abesti guztiak egile anonimoz heldu izan direla gureganaino. XIX. gizaldiaz gero bakarrik hasten gara euskal abesti herritarren egileen izenak ezagutzen. Lehen hauetarik ditugu: Oxalde aduaneroa Bidarrain, Dibarrat zapateroa Baigorriin, Elizanburu kapitaina Saran. Azken hau oso gizon ikasia zen eta denok ondo ezagutzen dugun abesti baten egile izan zen, hots, «Nere etxea edo laboraria» abestiarena. Bere hasiera aipatuko dut, izenburua baino ezagunago denez: «ikusten duzu goizean, argia hasten denean...»<sup>8</sup>.

Baina, batipat, XIX. gizaldian poeta eta koblakari bezala Topet Etxahun Barkoxekoa dugu aipagarri. 1786tik 1862ra bizi

izan zen. Nolabait haren figura hitz gutxitan agertu nahirik esango dugu, bere ezkontegun malerusetik eskandaloz eta garzelaz beterik bizi izan zela. Eta egoera horretaz tindatua dago haren poeta- eta koblakari-lan osoa. Bera hiltzean, erre egin zizkion familiak idatzi guztiak. Horretarako, bistan da, garai hartako moral dominatzailearen gidariek eginikako presioak ikaragarria izan behar zuen. Guzti hau dela eta, urte luzez geroztik haren izena bera anonimatoan egon izan da, nahiz eta herriak etengabe eta aspergabe haren abestiak erabili izan. Honela, Etxahunen abesti gehienak ahoz aho heldu izan zaizkigu.

Molde honetan euskal abesti herritarraren arloan hain garrantzi handia duen koblakaritza edo bertsolaritza aipatzera heldu gara. Abesti herritarraren barruan hori da espresio-molderik sinpleena, zeren metrikarekin jokoan dabilen ahots soilaz egiten baita. Halere, bertsolaritza inprobisazio denez, kolpeko metrika jartzea denez, jenioz, teknikaz eta buru-bizkortasunez beterik dago. Beti izan badira ere bertsolariak Ipar Euskal Herri honetan, geroago aipatuko dugunez, gure egunetan batipat figura betikorrak eman izan dira. Eta hauetariko batek, hain zuzen, Xalbadorrek, bertsolariaren kalitateak ikusgarri ondo izendatzen dizkigu: «Pertsulariak, lan hortarako zaletasunaren edo gogoaren ondotik, baitezpadako duen dohaina, rimaren edo berdin bururatzen diren hitzen bilatzeko errestasuna da. Hori ez duena, beti nekez ariko da. Nik ba dakit ondo»<sup>9</sup>.

Finean, esan dezagun Hego Euskal Herrian hain herritar den abesti korala 1936ko abertzaleek helarazi izan dutela Iparraldera. «Denbora luzez orfeoiek eta koralak eman izan direlako aintzinatiko eta tradizional dela polifonia joera Hegoaldean esan dezakegu, baina aldi berean, Aunamendien alde honetan berri dela aitortu behar dugu» zioen P. Navarrek<sup>10</sup>. Honela, aipatu dugun fetxa horren ondoren bakarrik bilakatzen dira Iparraldean omena lortuko duten taldeak. Hauetarik ditugu, *Eresoinka*, *Olaeta*, *Oldarra*, *Orok Bat*, *Batz Alai*, *Etoriki*, eta abar.

## II. — HERRI-KANTA BERRIA

«Herri-kantari berriak» aipamena erabiltzean, lasterka bizi zian zera datorkigu gogora: kitarra eskuetan dutela gure herri eta herrixketako plazetan azken hamabi urte hauetan ikusi izan ditugun euskal gizon eta emakume abeslariak. Eta, ezbairik gabe, herri-ableslari berri aipamenaren esan-nahi propioa horientzat

dugu. Zeren, euskal abeslari herritar tradizionalaren irudia horiek berritu izan baitute. Hain zuzen, hogeigarren gizaldian aurrerapen tekniko elektriko eta elektronikoen sortu dizkiguten moldeak abesti herritarraren zerbitzuan ezartzen entseiatu izan zaizkigu. Halere, abesti herritar berriaren dimentsioa hezurmamitu duten aktoreak eta hauen ekintza aipagarrienak izendatu aurretik, egungoan ere herri-kanta tradizionalaren jarraitzaile herri diren pertsonaia batzuk aipatuz hasiko naiz.

### a) Etxahun Irure

Ehunka abestiren sortzaile dugu. Horietarik batzuk Euskal Herriko zazpi probintzietara hedatuak dira, nahiz eta jendeak beti ez jakin nork eginak diren. Berriki honen abestien bilduma bat argitaratua izan da<sup>11</sup>. Bestalde, Etxahun Irure, hain tradizionala eta zaharra kontsideratzen den *pastoral* generoaren berritzaile haundienetarik dugu gure gizaldian.

Pertsonaia mardul honetaz hara zer dioen Madalen de Jaurigiberri Zuberotar emazteak:

«Etxahun, badizü denbora hanitx lehentze entzün zütüdala khantatzen, eztei egün batez, Ziboze-Sibasian. Ene anaiak ordükoz estimü handitan züntian eta harek jinerazirik zinen espus-espusa elibati kobla zunbaiten emaitera.

Denbora hetan enizün ikhusten zer huntarzün paregabia zen gure mintzajia; gure etxekuek ber denboran erakusten zeiküien bai elhestan eta bai bizitzen behar den bezala. Geruan baizik eztit enthelegatü, ene bi anaiak argitürrik, eta haiekin dit üskal gaizetan zerbait ikhasi.

Eta zü bethi khantüz... Ni Sibase huntan etxenko zaharrek ützi fediarene eta mintzajiaren begirale mündüzün. Zü aldiz mündüko gaiza ederren: amodio, familia, zelü, lür eta gure üngürünetako gaiza oroen.

Begia argi, izpiritia zorrotz, erri eijer bat ezpañetan. Iruri Etxahuneko etxekojaun, zure büriaren eta lanaren nausi, mündüko ofiziorik ederrenian zure familiaren ogia geñhatu düzü.

Kabalen onduan, phertika bizkarrian edo makila eskian, khorpitza txüt phentsamentükan, bardin ko-

blakan, zankhuak eta enthelegia ber denboran eбил-eraztez, hcla zütügü maite, faizurik gabe, laborari simple düzün gano amaigarria izana gatik.

Arren guatzan aitzina, Etxahun adixkidia, Üskal-Herriko txori khantari eta maithagarria, Jinko Jaunak plaser diano, zü koblakari ni aldiz begirale, etxenko zaharren xender jarraikitzez baztertü gabe.

Azkar bizi bedi haiñ eijerki khantattü düzün mündüko xokhorrik eijerrenian; Xiberua»<sup>12</sup>.

## b) Xalbador

Urepeleko artzainak lortu zuen bertsolaritza mailarik gailurrenekoa da. Hitza eta metrika batasun hertsu batetara jaso zituen. Bere adiskide min den Mixel Itzainak Xalbadorren diska aurkeztea zela eta, ondoko hau idatzi zuen bere olerkaritzaz:

«Izan ote da ere egundaino nehon Jainkoaz bertze olerkaririk?» dio Xalbador-ek Odolaren mintzoan. Hori dionari badio Kreatzaileak zerbait erakutsirik. Olerkaria delakotz muin eta hezurretaraino. Xalbador izaitearen funtsean sartzen da. Profetaren begiarekin ikusten du hizkuntzaren eta herriaren lokarria, goseak eta hotzak hil baditu mendian gizonak, dirudunak «gelditu dira ixilik». Olerkaria BIZIAREN amodioak dabila. Begitarte ilun haren gibelean, zer BIZI egarria! «Mixterioz entzun» du mendiko artzain etxolaren «hitza»! Atzerriratu semeak ez du «txistura beharrik». Eta munduratzean hil den haur hura, «agertu orduko gorde den iguzkia» baldin bada, zer osagarria, zer bizi hatsa, haur sortu berrian iguzki bat senditzen duenaren baitan! (Haur ttipiak biziki maite zituen Xalbador-ek).

Bizi osagarri hori nehon ez da «Amets bat» deitu bertsu zoragarrian bezala azaltzen. Xalbador-ek bertsu hauk egin ditu biziki joa zuen gertakari baten ondotik, amodioaren ukatzaile zaukan gertakari baten ondotik. Orduan bere etsimenduaren barnean, olerkaria ixildu da eta egor entzuten bere barnatasunetan sendi zuen murmurika entzuten. Bihotzaren ele urruna hurbildu da, klartu, haunditu, oihu batean atera eta hedatu irrintzianaren oldarrean:



«Amodioa, gaur egun ere hoin sendo bada abalez.  
Bihotzez bihotz mundu guzia kurri dezala begalez»<sup>13</sup>.

#### d) Mattin

Ahetzeko laboraria Xalbadorren lagun eta kide izanaz gain bere pareko ere bada. Euskal laborari kulturadunen artean hain ezagun den ziri eta irria beti ahotan du. Honela, laborari munduko kulturaren adierazle jator agertzen zaigu. Gure laborarien bizitza astunak emandako sendotasunaz baina sendimendu beroko agertzen zaigu. Horren lekuko Xalbadorren bertso bat aipatuko dut:

«Mattin, zu atzo arte irriaren giltza,  
gaur euskal mingainetan kurri zabilta;  
izpiritua duzu argi ta zorrotza,  
jend'artean omore pitzarazle gaitza;  
gainerako gauza ginaukazun hotza,  
zure nigar-otsa ginuen arrotza;  
atzo ikusi dugu zure bihotza»<sup>14</sup>.

Sail honen osagarri bezala esan dezagun, bertsolari gazteagoen multzo bat ba dela egungo Iparraldean. Hauetarik ditugu, Ezponda, Xanpun Saratarra, Mixel Aire edo Xalbador semea, Urepelekoa, Jean Arrosagarai Aintzilakoa, Jean Mendiburu Heletarra, eta Ernest Alkate Iholdiarra. Hauetarik aparte bada beste gazterik, hasi ez hasi, dabilenik. Itxaro Borda neskatila bera ere ikusia dut bertsolari-festibal batetan parte hartzen.

#### e) Herri-kantari berriak

Euskal abestiaren berritzean *Robles Arangiztar* neba-arrebek izan zuten hasieran zerikusirik. *Soroak* taldearen eratzailleak horietako batzuk izan bait ziren. Iparralderako ere «Soroak» delakoa ematen du itzartzaille bezala P. Navarrek<sup>15</sup>. Hegoalderako Robles Arangiztarrekin ibili zen bat Txabi Villaberde Bilbotarra izan zen. Kitarra batez garai hartako laukote amerikanoen modura abesten zuten.

Iparraldeko jatorria duen norbait ere laster plazaratzen da: hots, *Mixel Labeguerie*. Honen abestiak Iparraldean *Enbata* oldearekin sortu berri den gazteriaren ideien mezulari dira. Zenbait hitzetan Aita Larzabal Sokoakoak laguntzen dio.

Oraino gogoratzen naiz zelako emozioarekin entzun izan niten bere bi diska txiki haiek 1964 inguruan. Gure lagun batek Iparraldetik ekarri zituen diska horiek, eta oso misterio haundiz horiek entzutera bere etxera eramán gintuen. Orduan, Euskal Herri guztiar gazteria berri bat hartzigarri bezala mugitzen hasi zen. Diska haien entzuteak itzalezko zartada eginerazi zigun gaztetxo urdurioi:

«Gu gara Euskadiko gazteri berria,  
Euskadi bakarra da gure aberria...»

Izan ere, «Eusko Gudarien» oihartzunak itzaliak bait zeuden aspalditxotik. Eta orain, abesti haiek su berri baten piztearen adierazle ziren. Ni neu ere, 68an abesten hasi nintzenean, mezu haren jarraitzaile bilakatu nahirik hasi izan nintzen.

1967an *Gratienné Hastoy* bi diska txiki argitaratuz gero Pariseko munduan desagertu zen.

Geroago, aldi berean abeslari sail bat dator Iparraldeko abesti arlorá. Dena dela, hrietariko zenbaiten hasierak eta jarraipenak seinalatuko ditugu.

#### **Etxamendi-Larralde**

Nafartarrak aipatuz hasiko gara. Hasiera hasieratik, herrikoitasun bereziz datozkigu plazara. Gure abesti herritarren doinu arkaikoenen moldeetan eginikako aireak hitz berriekin josten dituzte. Entzuleen hezurretaraino sartzen direla, berehala ukanen duten arrakastak erakutsiko du. Hauen hitzek Euskadi osoaren aberri-kezkak eta laborarien nahiak aldi berean erabiliko dituzte. Abesti horietarik anitz herritar bilakatu bada ere, YUP LA LA! delakoa dugu famatuena. Gaurdainokoa, lau diska single eta cassette bat argitaratu dizkigute.

#### **Gudu Latz taldea**

Talde bezala argitara den abeslarien multzo hau, geroago, piskanaka banakatuz joango da. Hasiera batetan ondoko hauek dira osatzaile: Manex Pagola, G. Alfaro, Sarasola, Borda, Patxika, Carrère, Ospital, Etxegoin, Martxelin eta abar<sup>16</sup>.

#### **Manex Pagola**

*Gudu Latz* talde honetan, abestiaren historia egiten joan denean, *Manex Pagola* agertu zaigu abesti egilerik garrantzizkoena bezala. Ehun bat abestiren egile dugu. Gainera, Iparraldean

egin izan diren abesti-emankizun zenbaiten ideia-emaile eta egilerik garrantzizkoena ere bera dugu, hots, Zazpiribai, Ortziken eta Kanta-bi espektakuloetan. Halere nahiz eta sortzailerik garrantzizkoena izan, euskal abesti herritar berriaren sailean haren abestiak herritartzeko unean beste abeslari batzuk ere partaide izan dira. Honen abestien popularizatzailek ezagunenak Ospital eta Carrère ditugu. Hauen erreperatorioan Manex Pagolaren abestiek kopuru handia osatzen bait dute.

Manex Pagolak abeslari bezala gaurdainokoa bi diska single eta cassette bat argitaratu dizkigu. Badakigu, baita, laster argitaratzekotan dituela *Kanta-Bi* abesti-emankizunaren diska eta cassetteak.

*Martxelin Arbelbide*: Manex Pagolarekin agertu zaigu askotan kantari. Azkenaldian *Kanta-Bi* emankizunen partaide da.

#### **Sarasola eta Borda**

Haseretan *Gudu Latz* taldean partaide dira. Geroago Sarasola bere aldetik diska txiki bat egiten ikusten dugu. Gero, Bordarekin lanean hasten da. Elkarlan horretan, laster berekin partaide berriak ere badituzte, hain zuzen, J. P. Lacarrieu, P. Bercaïts, B. Davant. Honela, diska txiki bat ateratzen dute. Eta isilune baten ondotik «Aita semeak laborari» espektakuloarekin plazaratzen zaizkigu. Arrakasta gorenekoa lortzen dute Iparraldean. Herriz herri ibili behar dute, hirurogei bat lekutan emanaz espektakulo hori. Herren ondotik, «Laborari, langile eta nagusi» espektakuloa muntatzen dute. Eta aurreko espektakuloan egin ez zutenek, orain «Album» doble batetan argitaratzen dute.

#### **Ospital eta Carrère**

Batez ere abeslariak dira hauek Hauen azken diskan, halere, sortzaile-lan zerbait ikus dezakegu. Carrèreren hiru aire daude. Ospitalek itzulpen bat du. Hauen abeslari-fama Euskal Herri guztian zabaldua da. Gaurdainokoa, bi diska txiki (single), «Album» doble bat eta diska handi bat (L.P.) atera dituzte. Hauen erreperatorioan Manex Pagolaren kantuez gain Telesforo Monzon-ek eta azken aldian Roger Idiartenak dira gehienak.

#### **Patxika**

Abesti zenbaiten egile dugu. Haurrentzat diska txiki bat prestatua du. Gainera, Zazpiribai eta Ortziken espektakuloetan partaide izan zenean abestutako lau abestirekin diska txiki bat egin du.

*Gexan Alfaro.* Ez da behin ere abeslari izan, baina, abesti-hitzen egile bezala partaide izan da.

#### **Telesforo Monzon**

Abesti-egile bezala, aipagarri dugu. Honenak dira hain ezagun bilakatu den zenbait abesti: «Batasuna», «Ikastolen Ereserkia», «Itziarren semea», «Bai Euskarari», «Lepoan hartu eta segi aurrera», eta abar luze bat. Gainera, honen hitzaldi eta abestiz moldatutako diska haundi bat atera berria da.

#### **Belaunaldi berriagoko abeslari herritarrak**

Abeslari herritarren iturria ez da agortu. Beti, pixkanaka, noski, baina etengabe abeslari berriak sortuz doaz. Banan-banan aipamen zabal bat egiten ahaleginduko naiz.

#### **Roger Idiart**

Lapurtar idazle hau Zuberoan bilakatzen da abesti egile eta abeslari. Bertako gazte batzuekin lehen diska txiki bat argitaratzen du. Geroago, berak abesten du beste diska txiki batetan. Eta finean, egungo abeslari ezagun batzuentzat abestiak egiten ari da. Zuberotar doinu zaharretatik dabil gehiengan.

#### **Niko Etxart**

Zuberotarra dugu. «Zazpi gara» eta «Odol berria» diska txikietan parte hartzen du. Baita Pierre Topet Etxahun koblakariari buruz Donostian egindako diska haundi batetan ere. Gainera, *Minxoriak* izenarekin dantzaldietako musikaz cassette bat egina du. Une honetan Madrilen ari da diska haundi bat prestatzen. Honekin partaide izan dira ere, gehiengan Jean Etxegoien eta Jean Etxart. Azken honek diska txiki bat berak bakarrik ere egina du.

#### **Eneko Labeguerie**

Aitak konposatutako abesti zenbaitez diska txiki bat egin du. Geroago Örtzikenen parte hartu du.

#### **Mikel Erramuzpe eta Xalbat Berterretxe**

Gazte hauek diska txiki baten egile dira. Azken aldian isilik daude Euskal Herritik urrun dabiltzalako. Hain zuzen Afrika aldera joanak dira soldaduskaren orde zerbizuetan lan egiteko.

**Nekez ari**

Donibane Garaziko abeslari gazte multzo batek bere taldeari emandako izena da. Izen horrekin diska haundi bat ere egina dute. Korral tradizionalaren eta musika berriaren artean mugitzen dira.

**Eiherabide anaiak**

Oso bikote ezagun bilakatu dira denbora laburrean. Gogoz beterik ari diren abeslariak dira. Diska txiki bat emana dute eta une honetan diska haundi bat prestatzen ari dira.

**Jojo eta Bernardette neba-arrebak**

Hamalau eta hamairu urtekin diska haundi polit bat egin izan duten haurrak ditugu. Gainera, zenbait abesti berek hitz eta aire eginak dira. Ahots eztsu eta biribilak dituzte.

**Etxeberri anaiak**

Heletar abeslari hauek tabernako abestia egiten dute. Hori dela eta, arrakasta haundia dute gainerako abeslariak ailegatzen ez diren medioetan. Anaia biek elkarrekin diska bat egin zuten eta orain, berriki Mixelek Beheretxe soinularien laguntzaz bigarren diska haundia eskainia digu. Ameriketako euskal emigra-tuek estimu haunditan dauzkate.

**Martikorena artzaina**

Baigorriar honek abesti zaharrez osatutako diska haundi bat eskaini digu. Ahots ederrenetarik du.

**Urria**

Sei lagunez osatutako taldea dugu. «Argi ttirrintan» izenaz diska haundi bat argitara emana dute. Abesti zaharrez gehienbat osatuta dago. Gainera, gazteleraz emandako abesti bi ere baditu.

**Eltzegor**

Nahiz eta orainokoan diskarik ez egin aipatzekoak ditugu beren espektakuloa dela eta. Itxaropenez espero dugu horien lehen diska.

Eta munduan zehar, beste herrietara bezala, gurera ere *Rock*-a ailegatu da.

### **Errobi taldea**

Iparraldekoa dugu. Aurrez diska txiki bat egina zuen Anje Duhaldekin eta geroago berarekin batu den Mixel Ducauk osatzen dute. Halere, ibilian, beste musikarari batzuen laguntza darabilte. Hegoaldean indarrez sartu den talde honek bi diska haundi eginak ditu eta bi hauetariko abesti ezagunenekin publikoan zintan hærtutako hirugarren bat ere atera berri du. Seinalagarri da beren abestietan darabiltzaten poemak Daniel Landartek eginak direla.

### **Gaston Jocu**

Abeslari gazte hau ere rock-eko diska txiki batez plazaratu zitzaigun. Geroztik, Manex Pagolarekin «Kanta bi» emankizunetan parte hartzen du.

### **Abesti talde folklorikoak**

Ezagutuena hauek ditugu: Arrantzaleak (3 diska), Hegoak (diska 1), Zuberoko «Festara» (diska 1), eta abar.

### **Atzerritar euskaldunduak**

Iparralde honetan baditugu abeslari bi, jatorriz atzerritarak izanik ere, euskaraz ikasiz gero, euskaraz abesten dutenak. Euskal abestiak gazteengan duen sarkortasuna adierazten digute, noski.

### **Sabin Harrixuri**

Lorraniako Diedenhoffen (Thionville) hirian 1954ean sortua den gazte honen kasua aipagarria da. Zeren 1969ko uztailean udakari etorri zen lehen aldiz Ipar Euskal Herrira. Urte bete geroago, 1970eko abenduan, euskara ikasten hasi zen. 1972an erabat etorri zen Iparralde honetan bizitzera. 1973an, Euskaltzaindiko irakasle-agiria edo diploma eskuratu zuen. Urte bete geroago euskarazko ikasbide berri baten argitaratzen hasi zen eta urte berean abesti berri egile eta abeslari bezala agertu. Oraingo, diska txiki bat du euskaraz. Baina 1977an Déi Vum Museldall zenaz diska haundi bat egin du bere jatorrizko hizkuntza den Frantzikeran.

**Tilia**

Ahots ederreko emakumea dugu. Honen gurasoak Sortaldeko Europatik etorriak dira. Bera, berriz, euskaldun berria da eta euskaraz abesten du. Oraingoz ez du diskarik egin.

**Hegoaldeko abeslari Iparraldetuak**

Halabearrez, Iparraldean bizi garen Hegoaldeko abeslari bi bagara: Estitxu eta neu, Maite Idirin.

**Estitxu**

Ahots zoragarriko emazte honek luzez abesten du. Ameriketako euskaldunen artean ibilia dugu abesten. Gainera, dantzalekuetan ere euskal musika sartu nahirik esperientzia bat egina du. Hiru diska haundi ditu oraingoz. Eta bere anaia Ikerrekin igaro den urtearen buruan «Zirikan» emankizuna prestatu zuen.

**Maite Idirin**

68an hasi nintzen abesten. Laster, exiliatu beharrean aurkitu nintzen. Eta gertakizun honek ene abeslari-bizitzan izugarizko garrantzia du. Zeren, hori dela eta, Europako nazio menperatuen artean euskal abestiaren ordezkari bezala egotea tokatu zait. Horrek egin du noski, euskal herri-kantari berririk ezagunena izatea nazio zapaldu horietan. Eta azken sei urte hauek, Iparraldean daramatzadanez, hemengo abeslari ere bilakatu izan naiz. Lau diska txiki eta diska haundi bat ditut argitaratuak. Egun hauetan amaituko dut diska haundi berri bat. Geroz eta gehiago musika eta hitzak neuk egiten ditut. Oraingoan, adibidez, bederatzitik sei musika-aire nereak dira eta poema bi ere. Beste hitzak Jokin Apalategirenak dira gehienbat.

**f) Dantzaldiak**

Iparraldean ere dantzaldiak ugari ematen dira urtearen buruan. Hiruzpalau urterarte aire eta hitz atzerritarrak ziren nagusi. Azken urte hauetan euskara eta abesti herritarraren aire berriak leku haundi bat lortu dute. Fenomeno honen esanahia seinagarria da. Badira euskara hutsean ari diren dantza-taldeak ere: *El fuego*, *Minxoriak*, *Ximinorak*, *Gazteak*, eta abar.

### g) Abesti-emankizunak

Hitz batzuk idatzi nahi ditut Iparraldean sortu izan diren abesti-emankizunei buruz. Izan ere, euskal abesti herritarraren sailcan garrantzi haundiko diren emankizunak Euskal Herriko beste inon baino Iparraldean zenbakiz eta kalitatez aberatsago izan baitira. Hori zerk kausatu ote duen? Beharbada, Iparraldearen txikitasunak berritze gehiago eskatzen duelako edo eta mugaren alde honek egoera politiko lasaiago bat eduki izan duelako, Hegoaldeak azken urteetan pairatu izan dituen olde errepresiboen aitzinean.

Lehena, *Zazpiribai* izeneko emankizuna izango da denboraren baitan.

Ipar- eta Hegoaldeko abeslariak ideiatu eta aurrera eraman dute. Partaideak ondoko hauek ziren: Manex Pagola, Ugutz Robles Arangiz, Patxika, Ospital, Carrère, Iñaki Urtizbera (txistulari eta txirulari), Lurdes Iriondo, Xabier Lete eta Benito Lertxundi.

Abesti emankizun honek ez zuen hari bateratzailerik. Abestien bilduma bat zen. Hori bai, argien jokua, abesti batzuen saileko interpretazioa eta abar egiten zen.

Ez zuten diskarrik egin.

Bigarrena, *Biper beltz* zuberotar emankizuna izango da. Hogei bat lagunek parte hartzen zuten. Hemen, mimikak eta gorputz-espresioak garrantzi handia hartzen du. Biziki lan handia eta ederra!

Hirugarrena, *Aita semeak laborari* izan zen. *Guk* taldeak ideiatua eta emana. Orain, publikoaren parte hartze zuzena bilatzen da eta baita lortu ere. Iparraldeko laborariak eta hauen inguruko jendeak dituzten arazoak agertuaz abesti berri batzuekin, aldi berean, abesti zaharra aldizkatzen da.

Emankizunaren gaia ondoko honetan zegoen: Laborari baten semea etxeko ezina eta bizitza gogorra ikustean Parisera bidean jartzen da han bizitza hobeagoa bilakatzeko asmoz. Baina, han bizitzen hasiz gero, pentsaketa egiten du euskaldun eta langile bezala duen egoeraz. Ondotik herrira itzultzeraz deliberatzen du: Herrira heltzean, laborari bezala bizitzea eta beste laborari kideekin batasun baten bila abiatzea, hots, burruka egitea hautatzen du.

Harrera ezin hobea eduki zuen emankizunak. Ezbairik gabe, Iparraldean, emankizun guztien artetik arrakastarik haundiene-



koa izan da. Ez digute horren diskarrik utzi. Lankideak ondoko hauk izan ziren: Sarasola, Borda, Lacarrieu, Davant, Berçaits.

Laugarrena, *Ortziken* izan zen. Egoera gogor batek inguraturik geundela ideiatutako emankizuna da. Euskal aberriaren gudu luzea agertzen zuen.

Emankizunean partaide izan zirenak, ondoko hauk dira: Manex Pagola, Maribel Etxezarreta, Iñaki Urtizbera, Iker Robles Arangiz, Patxika, Ospital, Carrère, Eneko Labeguerie. J. C. Larzabal, Maite Idirin, eta emankizun bakoitzeko bertsolari ezberdinak. Ondoko hauek partaide izanak dira: Xalbador, Mattin, Xanpun, Mendiburu, Alkate, Igarzabal, Amuriza eta abar. Gero, argi eta soinutan ari zirenak: Francis, Joseph, Trelu, eta abar.

Emankizun honi hari bat edo horrelako zerbaite eman nahi izan genion baina ez genuen nahi bezala lortu. Gure ideia zera adieraztea zen: nahiz eta azken historian Euskal Herria beti galtzen agertu, bazirela historian une ederrak ere. Horrela, erromanoek nahiz eta gure herrian bizi izan, ez zuten gure hizkuntza galtzea lortu. Gero, Karlos Haundia eta Ibainetako pasai aipatzen genituen. Baita gure historiako pasarte triste zenbait ere. Eta finitzeko itxaropenez bururatzen genuen gure emankizuna.

Iparraldean ez zuen harrera gehiegi izan, Zuberoan salbu. Gero, Parisera, Bretainara atera ginen. Azkenik Hegoaldera igaro ginenean arrakasta haundinez bukatu genuen: Durangon 4.000 jende; Ugaon, Basaurin, Zarautzen, 2.000 jende bakoitzean, eta abar.

Diska doble bat atera genuen.

Bosgarrena, *Laborari, langile eta nagusi* emankizuna zen. *Guk* taldeak prestatua zen: Sarasola, Borda, Lacarrieu, Davant, Berçaits.

Hauen lehen emankizunaren jarraipen izan nahi zuen. Eta gaia horrela zen. Baina publikoak ez zion lehen emankizunari egindako harrerarik berritu.

Seigarrena, *Zirikan*, izan dugu. 1978an Iker eta Estitxu Robles Arangizek ideiatu eta egin zuten. Antolaketan, arazo teknikoetan partaide izan ziren Jean Garin, Mario Gachi, Francis, Joseph, eta abar.

Ikusi duten guztiek aho batez aitortzen dute abesti-emankizun berrietan honek izan duela teknika-aberastasunik haundie-

na. Baina, mamia eskasa zuen. Beharbada, publikoaren hoztasuna horrek ekarri du.

Zazpigarrena, eta oraingoz azkena, *Kanta-bi* emankizuna izan da. Manex Pagola, Martzelin Arbelbide, Gaston Jocu eta Panpi Dagerre ziren partaideak. Bereziki, laborari-herri txikientzako pentsatutako emankizuna izan da. Eta biziki ondo lortzen zuten herri xehea partaidetzea. Abesti ederrak, kolpe komiko egokiak, ziren emankizunaren dohainak. Ez zen bereziki haridun emankizuna.

Diska batetan laster ezartzekotan dabilta.

### III. — AMAITZEKO HITZAK

Euskal herri-kanta berria bidea eginez joan da. Jaialdieta-ko entzuleen kopurua goitituz, disken erosleak ugarituz, abeslarien zenbakia haziz. Halere, duela urte bi Hegoaldean nolana nahi bi mila jende biltzen bazen eta Iparraldean igaro den urtean bostehunetik milara abeslarietara entzuteko etortzen baziren, (horiek izan dira urte klabeak entzulegoaren aldetik), gaur egun beharakada batetan sartuak gaude. Zergatik ote? Arrazoiak anitz tankeratakoak dira, noski. Eta ez da erraza guztiak aipatzea. Baina nik horietariko zenbait agertu nahi nituzke. Aldi bateko, abestiaren herritartzeak, abestia edozertarako eta edonola erabiltzea ekarri izan du. Eta hori, kaltegarri gertatu da. Abestia gauza askoren morroi bilakatu bait da. Abestia politikarako. Abestia arazo sozialetarako. Abestia ikastolarako. Abestia hauzoetako beharrak konpontzeko. Abestia txokoen irikitzeko. Eta abar amaigabe batetarako. Honela, bazter guztietan ageri den gauza bilakatu da. Aspergarri, presentzia gehiegizkoa izan duenean. Eta presentzia batek, aspergarri ez dadin gerta, aldakortasun minimoz emana izan behar du. Eta hau da euskal abesti herritar berriari falta izan zaiona. Kalitatez hobegotuz eta sendotuz joan behar du, iraun nahi badu. On da ere, abeslariak kanpotatzea eta barrenak airetzea. Euskal abeslariok alderdi hau ez dugu behar hainbat azpimarkatu. Kultur mugimenduak, airetzea, kontrastatzea behar du. Gurea egosteko, gurea egiteko kanpokoen argi eta ilunak lagungarri zaizkigu.

Krisialdia igaroko da eta egun berria agertzean lana eta kalitatea ospatuko dira. Bienbitartean, horien bila gabiltzanok ez gaitezela ito!

- <sup>1</sup> VUILLERMOZ, Emile: *Histoire de la musique*. Fayard. Paris, 1973. Introduction, II or.
- <sup>2</sup> HARITSCHELHAR, Jean: *Le poète souletin Pierre Topet-Etxahun (1786-1862)*, Société des Amis du Musée Basque, Bayonne, 1969, 382 or.
- <sup>3</sup> LAFITTE, Pierre: *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Bayonne, 1941, 24 or.
- <sup>4</sup> VUILLERMOZ, Emile: op. cit. 41-42 or.
- <sup>5</sup> LEIZAOLA, J. M.: *Romances vascos y literatura prehistórica*. Ekin. Buenos Aires, 1969, 17 or. eta ondorengoetan.
- <sup>6</sup> HARITSCHELHAR, Jean: op. cit. 381 or.
- <sup>7</sup> Ibid.
- <sup>8</sup> VEYRIN, Philippe: *Les basques*. Arthaud, Grenoble, 1975, 222 or.
- <sup>9</sup> XALBADOR: *Odolaren mintzoa*. Auspoa. Tolosa, 1976, 57 or.
- <sup>10</sup> NAVARRE, P.: *Essor ou déclin de la chanson basque?* Gure Herria. Bayonne, 1970. 7 or.
- <sup>11</sup> Bildumaren izena eta gainerako datuak hauek dira: ETXAHUN IRURI KHANTAN. Agertazilia, Jakes Larrondo. Inprimeria, I.P.A. PAU-en 1977 urthian. 276 or.
- <sup>12</sup> *Etxahun Iruri khantan*, op. cit. Aitzin-solas. 7 or.
- <sup>13</sup> XALBADOR: *Herria eta bizkuntza*, diskaren portada, 1977. Elkar. 26 or.
- <sup>14</sup> XALBADOR: Op. cit. 163 or.
- <sup>15</sup> NAVARRE, P.: Op. cit. 25 or.
- <sup>16</sup> Ibid. 54 or.

#### LA CANCIÓN POPULAR EN EL PAIS VASCO NORTE LA CHANSON POPULAIRE AU PAYS BASQUE NORD

La canción popular vasca tradicional remonta al menos un siglo de la literatura vasca escrita con dos canciones suletinas, «Urrutiako anderea» y «Bereterretxen kantoria» que el historiador Jean de Jaurgain sitúa alrededor de 1422 y 1434 respectivamente. El siglo XIX llegamos a conocer los autores de numerosas canciones, como Etxahun, Otxalde, Elizanburu o Dibarrat.

Hoy día se ha mantenido la tradición gracias a autores como Etxahun Irure, Xalbador y Mattin. Pero el género se renueva a partir de autores cantores como los hermanos Robles Aranguiz, Michel Labéguerie y luego el dúo Etxamendi-Laralde, Manex Pagola y su mujer Martxalin, Sarasola y Borda, Ospital y Carrère, Patxika y Gexan Alfaro, como también de la obra poética abundante de Monzón. Hay también nuevos equipos que no podemos citarlos en su totalidad: Rogert Idiart, Niko Etchart, Errobi, los hermanos Eiherabide, etc., a los que habría que añadir los vascos venidos del Sur, Estitxu y Maite Idirin, o los nuevos vascos como Harrixuri y Tili.

Toda esta renovación ha permitido la presentación de espectáculos vascos de valor en el curso de los últimos años: Zazpiribai, Ortziken, Biper Beltz, Aita Seme laborari, Zirikan, Kanta-bi, pero en este momento el éxito de los Festivales clásicos se atenúa. Estamos a la espera de una nueva renovación de la canción vasca moderna.

La chanson populaire basque traditionnelle remonte un siècle au moins au delà de la littérature basque écrite avec deux chansons souletines, «Urrutiako anderea» et «Bereterretxen kantoria» que l'historien Jean de Jaugain situe autour de 1422 et 1434 respectivement. Au XIX<sup>e</sup> siècle nous parvenons à connaître les auteurs de nombreuses chansons, tels que Etxahun, Otxalde, Elizanburu ou Dibarrart.

Aujourd'hui la tradition a été maintenue grâce à des auteurs tels que Etxahun Irure, Xalbador et Mattin. Mais le genre se renouvelle à partir d'auteurs chanteurs tels que, les frères et soeurs Robles Aranguiz, Michel Labéguerie et puis le duo Etxamendi-Larralde, Manex Pagola et sa femme Martxalin, Sarasola et Borda, Ospital et Carrère, Patxika et Gexan Alvaro, ainsi que l'oeuvre poétique abondante de Monzon. De nouvelles équipes se produisent aussi qui ne peuvent toutes être citées: Roger Idart, Niko Etchart, Errobi, les frères Eiherabide, etc., auquel il faudrait joindre les basques venus du Sud, Estitxu et Maite Idirin, ou les nouveaux basques comme Harrixuri et Till.

Tout ce renouveau a permis de présenter des spectacles basques de valeur au cours des dernières années: Zazpiribai, Ortziken, Biper Beltz, Aita Seme Laborari, Zirikan ou Kanta-bi, mais en ce moment même le succès des «Kantaldi» classique s'atténue. On attend le second souffle de la chanson basque moderne.

## Baionako euskal irrati-telebistak

**Xabier Gasteiz**

1963an hasi zen frantses irratia lehen emankizunak ematen Baionatik. Frantsesez ari zen eta udatiarrentzat lehenik. Artetik igandetan euskal meza bat edo beste ere sartzen zuten folklore kondu. Uda joan eta, Paristarrak Parisera itzultzen ziren eta Baionako irratia isiltzen.

Uda bat edo bestez, adiskidantza batzuei esker, Piarres Larzabal, Roger Idiart, Pantxoia Etxezaharreta eta hiruzpalau lagunek, lehen euskal emankizunak prestatu zituzten Udako Paristar irrati horri esker, baina laster beren abertzale kutsuarengatik baztertuak izan ziren.

1967an, irratilari-multzo bat ekarri zuen frantses irrati ofizialak Baionara eta hor jarri eguneroko emankizun labur batzu presta zituzten erdaraz eta euskaraz. Ezen euskarazko emankizunentzat irratilari euskaldun bat bazen, Maite Barnetche. Honek bildu zituen laguntzaile berriak eta orai egunero euskara izpi bat entzun dezakegu Baionako irrati ofizialetik: goizetan 7,15etan, agurra (minutu bat) eta 12,15etan, hitzaldi labur bat (bost minutu), Maite Barnetche bera, Ramuntxo Kanblong, Gexan Lantziri, Jakes Etcheverry, Janbattitt Dirassar eta P. Narbaits kalonjea aldizkatzen zaizkigula astelehenetik larunbatera.

Bestalde igande oroz Maite Barnetche eta Janbattitt Dirassarek ordu erdi bateko elkarrizketa bat emanarazten diote euskal kantari, bertsolari, idazle, edo ezezagun norbaiti. Hori 9,30etan. Bospasei aldiz urtean entzuten dugu ere euskal meza bat Piarres Andiazabal-ekin. Besterik ez.

Bospasei urte hauetan, bizkitartean, Maite Barnetcheren inguruan baditugu Baionan hiru tekniko eta beste bat Bordelen telebistako euskal emankizunak prestatzen dituztenak.

Emankizun hauek ordu laurden bat irauten dute eta hama-bostero bakarrik agertzen dira, larunbat eguerditan lehen katean eta gero hura bera bigarren katean ondoko astelehen eguerdian. Udan, bestalde, gelditu egiten dira. Hauen gaiek ahal bezain maltsoak izan behar dute: errotazain edo agure zahar baten solasak, laborari baten bizia, pastoral zati bat, Axularren historia eta holako...

Frantziako administrazioak ez du bakarrik gure mintzairaren denbora hertsiki neurtzen, baina baita gure izpituaren hatsa gogorki tinkatzen.

Oraingoz beren «zuhurtziaren» frogak eginak baitituzkete irratilari euskaldunek, lasaitasun doi bat uzten omen diete goiko buruzagiek, bainan telebista-emankizunak hurbiletik kontrolaturik daude: ez gai politikorik, ez ekonomi solas funtsezkorik, ez da aipatu ere behar. Debekatuak izan diren emankizunen saila nolakoa den ez zenezake sinets. Daniel Landarten antzerkiak eta berdin Labéguerie senatorearen abestiak gai beroegiak dira. Euskal departamentuaren elkarte eta Mauleko espartinaren edo al-pargataren krisialdia ez dira hunkitu behar. Are gutiago Espainiaren Merkatu Komunean sartzea edo Iholdiko aintzira famatuaren historia.

Hots, ez da harritzeko Inchauspe deputatuak erran izan baitu: «emana zaion denbora apurra ez dakiela nola bete gure Maite Barnetchek». Bazka-lekua kentzen bazaio, gure behiak ere ez daki zer jan.

Dena dela, azken hilabete hauetan berria badabil, Frantziako gobernuak zenbait ordu gehiago nahi lizkiokela eman euskarari, bere irratitelebistetan. Guk ez dakigu. Baina diogu, nahiago genukeela lehenik, euskal irratitelebistei ezarria dieten barne-kontrol zorrotz eta astunaren kentzea. Delako gobernuak ez duke zorigaitzez bere baitarik egingen holakorik.

Hegoaldetik Herri Irratia hasia zaigu Iparraldeko berrien biltzen eta adierazten, baina gaztelaniazko itsasoaren erdian gal-

duak bezala heltzen zaizkigu. Bestalde, «Radio Adour Navarre» delako bat ere mintzo zaigu Loiolako antenatik. Baina nehork ez daki nondik duen dirua irrati berri honek, ez zer diren zuzen horren helburuak.

Gu, Iparraldeko euskaltzaleak, zain gaude oraindik euskaldun zahar eta berriok noiz izanen ote dugun aski indar eta kemen guhaurentzat guhaurk eraikitzeko gaur eta egun osoki euskaraz Euskal Herri osoarentzat ariko zaigun irratietxea.

X. G.

---

**RADIO-TELEVISION VASCA EN BAYONA**  
**RADIO-TELEVISION BASQUE A BAYONNE**

Las primeras emisiones en lengua vasca tuvieron lugar en Bayona en 1963. Luego han sido regulares una vez que se constituye en 1967 un equipo dirigido por Maite Barnetche. Estas emisiones son apenas simbólicas: un minuto a la mañana, cinco minutos al mediodía y media hora el domingo. Desde hace cuatro o cinco años, la Televisión emite igualmente cada quince días un programa («magazine») de un cuarto de hora. Pero este programa tiene que permanecer totalmente «folklórico» y evitar toda intervención política, sindical o aún económica.

Les premières émissions en langue basque ont eu lieu à Bayonne en 1963. Elles sont devenues régulières depuis qu'une équipe dirigée par Maite Barnetche s'est établie là même en 1967. Elles sont cependant à peine symboliques: Le matin une minute, à midi cinq minutes et le dimanche une demi-heure. Depuis quatre ou cinq années, la Télévision émet également tous les quinze jours un magazine d'un quart d'heure. Mais ce magazine doit demeurer parfaitement «folklorique» et s'interdire toute intervention politique, syndicale ou même économique.

# **Ipar Euskal Herriaz mahain ingurua**

**Askoren artean**

Martxoaren 19ean, larunbatez, arratsalde oso batetarako bildu gara Baionan. JAKIN 9an eta 10ean IPAR EUSKAL HERRIAZ idazten dutenak elgarretaratu dira, hots, J.L. Davant, A. Errotabehere, L. Etxezaharreta, D. Heguy, M. Idirin, M. Ithurbide, R. Klanbong, J. Suhubiette, P. Xarritton, Eta JAKINen aldetik, J. M. Torrealday eta J. Azurmendi. Ezin etorria adierazi dute J. Basurkok eta G. Lantzirik.

Elgarrekin lanak komentatu eta osatzeko bildu ginen, horretarako bi zenbakietako idazlanak oro aurretik ezaguturik.

Esan dezagun hasieratik lan-formula honekin orain hasi bagara ere, gure asmotan ez dela berria, baizik eta aspalditik pentsatua, eta orain praktikara eramaten hasia. Beste zenbaki batzutan ere aurrea eramatekotan gara. Elkarlan horren asmoak, hauek dira: elkarren lana ezagutu eta, ondoren, idatzitako lan horietaz azterbegi eta ikuspuntu desberdinen arteko solasaldi eta konfrontazio bat egin; eta bidebatez, elkar ezagutu.

Gehiago atzeratu gabe zenbaki honekin hasteko, bagenuen beste arrazoi ulerterraz bat: JAKIN-ek Iparraldearekin harremanak bereziki zaindu nahi dituela.



Hemen publikatzen duguna, bada, solasaldi baten ondorio da, eta esperientzia berri bat. Modelu bat izan nahi luke, zera erakutsiko lukeena: estudio-gorputz bat dagoenean, lanak aztertu eta osatzeko aukera. Guk idazleen artean egin dugu elkarlan hori; politikoekin, ekonomiariekin, nekazariekin, arrantzaleekin beste hainbeste egin daiteke.

Jarraiko lerrook, bada, elkarrizketaren lau ordu horietan erabili genituen gaien puntu nagusi batzuk besterik ez dira.

### **Inmigrazio-emigrazio: kalitate problema**

Jean Suhubietteren artikuluak argi eta garbi erakutsi du azken bi mendeotako jendetzaren mugimenduaren nondik norakoa. Azken urteotako joera zenbait ere ageri agerian dago lan horretan, kasurako, barne mugimenduan Laburdi ateratzen dela irabazle Baxenafarroaren eta Zuberorearen pentzura, Laburdiren hazkuntzan %60 atzerritarrek osatzen dutela, eta abar.

Demografiaren ikerketa honetan, arazo larrietako bat aipatu nahi genuke: emigrazio-inmigrazioa.

Esan eta idatzi izan da urteko 2.000 ipar euskaldun bere herritik atzerrira joan ohi dela, lan bila gehienak. Badirudi, inoiz egia-antza izan badu ere, zifra hau esajeratua dela. Gaur, gainera, emigrazioa gutituz doa, bistakoa denez, eta arrazoiak ugari dira.

Ez aldegitara jendea bultzatzen duten faktoreak oro analizatzeko asmorik gabe, inportantetxoena aipa genitzake. Momentu honetan, langabezia da lehena: kanpora, Parisera, joanda ere, nekezago da orain lana aurkitzea. Lanak ditu lana aurkitzeak. Bestalde, ezin hainbestek aldegin orain, egon ere garai batetan baino gazte gutiago baitago aldegitoko. Gainera, eta hau oso inportantea da, Ipar Euskal Herrian, nor bere herrian gelditzeko joera, langabeziaren eta krisiaren aitzinekoa da: kontzientzia politikoak sortu duena. «Euskalduna Euskal Herrian» sloganak geroz eta arrakasta handiagoa du eta hemen gelditzera eta herrian lanbi-deak sortaraztera bultzatzen du gazteria.

Eta ez dezagun ahantz, azkenik, eskolaren eragina. Oraintsu arte emigrazioaren aldekoa izan da honen eragina. Euskaldun gazteari eskolan bertan erakusten zitzaion kanpora joan behar zuela, normaltzat jotzen zen lan bila Parisera edo artzain bezala Ameriketara joatea. Orain, aldiz, herrian gelditzearen eta lanegitearen alde jokutzen du eskolak, gaztea jakintzaz eta herri-kon-

tzientziaz jabetzen den heinean. Herrian gelditzearen aldeko erreazioa gazte eskolatuen artean sortu da.

Emigratio-inmigratio bikote honetan, beste puntu bat ere ikus genezake: Ipar Euskal Herria ez da hustutzen ari, hau da, zenbakiz berdin samar dira ateratzen eta sartzen direnak. Baina zein alde! Kualitatiboki galtzen dugu euskaldunok. Izan ere, gaztea —langilea edo diplomatua (honek errazago aurki lezake lana atzerrian, nekezago hemen)— doa kanpora, eta erretiro bila dabilen zaharra datorkigu hona.

Iparraldeko inmigratio modu honek izigarri baldintzatzen du herriaren bizitza. Herri tipi batzutan bertako jendea baino kanpoko gehiago izateko arriskua dago. Bestalde, inmigrante hau ez da produktzailea: atsedenera dator, lur-zatiño bat eta etxe-bat erosten ditu.

Zer ondorio? Herriaren dinamika moteltzea dakar. Lurraren garestitzea, espekulazioa eta lanerako erabil daitezkeen lurren gutitzea ekarri du. Horrela, bigarren ondorioari gagozkiolarik baserriaren, nekazaritzaren eraberritzea eta reorganizazioa eragozten ditu. Udal anitz tranpa horretan erori da: lur komunalak ere saldu egin dituzte. Beste zenbait udalek, zorionez, politika argiagoa eraman dute, eta alokairutan edo alkilerrean uzten dituzte lurrak. Goratzekoa da Zuberoan gertatzen dena.

## **Euskaldunak ez du bere historia ezagutzen**

Xarrittonen artikuluan oin-harturik salakuntza pare bat egin daiteke, geure buruari egin ere. Hegoaldean gertatzen denaren kontrara, Iparraldean ez dago historia-zaletasunik. Egon da, bai, baina hemengo historia-aztertzaileak duela 70 bat urte hil dira, eta ez dute segidarik izan. Egun ez da erreleborik. Hemengo kolonizazio arazoa ez da ongi ezagutzen, horregatik.

Iparraldekoek ez dugu geure historia ezagutzen, egia da. Baina, zoritxarrez, Hegoaldekoek ere ez gaituzte ezagutzen. Hegoaldekoek ere historiarik gabeko herritzat hartzen dute Ipar Euskal Herria.

## **Abertzaletasunaren indar eskasa**

J. L. Davantek aurkeztu dituen datuetan nahikoa argi dago abertzaletasunaren indarra zertan den. Eskasegia, tamalez. Fenomeno hu ulergaitz gertatzen zaio Hegoaldeko askori. Ez du

aise konprenitzen abertzaletasunak Iparraldean dituen kondizionamendu bereziak.

Fenomeno hau esplikatu nahian, hiruzpalau arrazoi —jatorri oso desberdinekoak— aurrera daitezke.

1. Demografiari so, gazteriak lan bila ihes egin du. Herriak gaztez hustu dira. Gazteriaren urritasun honek herri-bizitzaren dinamika arras kondizionatzen du.
2. Kontzientzia historikoaren gabezia bat ere somatzen da. Iparraldearen historia hurbila Frantziarenarekin nahasten da, askorentzat. Eta Hegoaldearentzat Foruak hain garrantzizko badira ere, Iparraldean deus guti mintzo dira kategoria horiek.
3. Estatuaren aurreko pasibokeria. Estatuaren funtzioa, maiz, Frantzian, Jainko berri batena da: badirudi Estatuak eman-go digula gure problema guztien soluzioa. Hori dela eta, Parisera begira bizi da Ipar euskalduna.
4. Elizak indar eskuindar, monarkiazale eta frantses bezala jokatu du. Ezaguna da eskema: Zeruan Jainkoa, lurrean erregea, eta gizonaren lehen bertutea, obediencia, menpekotasuna.
5. Jauntxoan eragina eta indarra ere ezin da ahantzi, eta jauntxo horiek ez dira abertzale izan. Barnean lur-nobleek eta jauregitakoek eta Kostan indiano-seeek, burgesek aginte handia izan dute. Notarioen indarra ere ez da arbuiaitzekoa.
6. Lekuan lekuko administrazioak ez du aginterik. Parisen erabakitzen da dena. Eta Paris urruti dago. Nola iritsi, ordea, instantzia anonimo horretara, eta nola gauzak ardietsi? Parisen erlazio onak edukitzea de hoberena. Jauntxoek dituzte han harreman on horiek. Beraz, jauntxoek soluzionatzen dituzte jendearen problemak; haiek, eta haiek egindako politikak bakarrik. Horrela, sistema honi esker, Pariseko harreman horiei esker, Administrazio hotzaren eta herritar soilaren tarteko izanik, beren irudi publikoa ontzen dute jauntxoek, eta indarra finkatuagotzen. Kazike sistema honetan, paternalismoak eta klientelismoak hartzen dute politikaren lekua.

Egoera honetatik irtetzea, nekeza da oso, alokairu, kredito, seguru eta holako bidez frantses administrazioari oso kateaturik baitago jendea. Autonomiarik, nortasunik lortzen ez deino, egoera honek iraungo du.

Beste arazo bat, ezker abertzalearena da.

Abertzaletasun ezkertiarrek zer etorkizun du hemen?

Abertzaletasuna zaila bada, abertzaletasun ezkertiarra are zailago da. Ezker estatalista (PSetik hasita) euskalduna baino sinesgarriago gertatzen zaio ipar euskaldunari: labur esanda, frantsesa delako, moderatu delako, eta agintea irabaz lezakeelako. Bitartean, euskal ezkerria ez da efikaza, eta, gainera, antzetan, ez du irudi onik. Adibidez, askorentzat, oraindik ere EHAS bat, ETA kamuflatua da.

### **Euskalduna industriaren beldur**

R. Kanblongek behin baino gehiagotan esan du bere artikuluan euskaldun guti dagoela industriaren gidaritzan. Industria guti eta enpresa-buru euskaldun gutiago.. Hegoaldean gertatzen denaren alderantzira.

Iparraldeko joera hori nola esplikatu daiteke?

Noski, faktore askok partehartzen du hor, elkarri hertsiki lotuak denak. Hona batzu:

1) Euskalduna: laborari eta fededun.

Egiazko euskaldunak, laboraria behar zuen, lurrari eta arbasoen tradizioari atxekia. Industria arrotza zen. Industria hitzak zer idarokitzen zuen?: kea, zikina, eta sindikatoak, grebak, istiluak, eta komunistak, gorriak, fedea galtzea... Elizak gaizki ikusi izan du industriaren sartzea.

2) Eskolan ez da teknika irakatsi. Medikuek, abokatuak, apez izateko presta zitekeen eskolan. Horiek ziren karrera nobleak. Iparraldeko eskolaren tradizioa, humanismotik joan da, eta ez teknikatik. Teknika-irakaskuntzarik ezaren hutsunea nabarmenki senditzen da herri bizitzan.

3) Euskaldunak ez du sinesten bere herrian jabe izan daitekeenik.

Berdin ekonomian, berdin politikan. Kontseiluetan euskaldun guti dago. Enpresa-buru guti. Alkate izatea bera ere, ohore bezala onartzen da, eta ez herria zerbitzatzeko edo herria aurrera ateratzeko modu bezala. Beti kanpokoak ikusi ditu nagusi ipar euskaldunak, eta hala izan behar duela beti uste du.

Honi loturik, geroari buruz, beste arazo bat. Nola pentsatu behar dugu Ipar Euskal Herriaren etorkizuna? Hirugarren sektorea potentziatu behar al da? Ipar Euskal Herria, turismo-leku soil egin behar ote dugu? Industria azkartu behar ote da? Bi-

zimolde merkeago, errazago, «naturalago» eta ekologia-zaintzaleago batetara jo behar al dugu? Hitz batetan, ba al dago modelurik, eredurik?

Etorkizuna definitzeko orduan, eta modelu bat hautatzekoan, solaskideak ez datoz bat, ez eta gutiagorik ere. Gizarte-eredu crokor bakoitzak badu bere bide-proposamena, eta, noski, bere aplikapen posiblea Euskal Herrian. Baina besterik gabe kopia daitekeen modelurik egon ez dago. Honetan bat zetozen denak, eta beste honetan ere bai: modelu bat pentsatzeko ere nortasun politiko definitu bat beharko genukeela. Herri nortasun bat, eta izpirituak aldatzea.

### Lurraren defentsan

Iparraldeko baserriak, A. Errotabehereren datuak ikusita, ba al du etorkizunik, iraunen al du?

Nekazaritzak Ipar Euskal Herrian aurrera egin dezan nahi bada, baldintza minimo batzu kontuan eduki beharko ditu.

Maiz samar aipatu da Iparraldeko explotazio edo lur-eremuak tipiak direla. Egia da. Baina etxalde tipiak ez luke problema izan behar. Lur-eremu hori hobekien nola erabil: hori da problema. Bada produktibitate handiko erabilera errentablerik.

Iparraldeko produkzioak hazkuntzatik, ganadutik, eta kalitatezko produktotik jo behar du etorkizuna segurtatzeko. Honetarako, eskolatuago izan behar du laborariak.

Iraunen duen ala ez?

Zalantzarik gabe, langabeziak irauten duen bitartean, errazago lotuko da laborari gaztea ere baserriari.

Joera bat finkatzen ari da, gainera, azkenaldi honetan: legetaz edo legezkantzeko jokabideetaz baliatuz, laborari gazteak elkartasunak sortzen ari dira, sindikatoak eskuratzen, beren arteko kooperazio-modu batzuk asmatzen (tresna kontuan, etc)... Iratzartzen ari dira laborariak. Bai eta artzainak.

Laborarien artean lurraren defentsak geroz eta aldeko gehiago ditu. Era batera edo bestera, azken urteotan ere burruka horien oihartzunik izan dugu (laborarien eta artzainen manifestapenak, bonbak, eta abar). Gerora, lur-burrukak ugalduz joango dira segur.

## Pintura kanpora begira

R. Gelosek pinturari buruz egindako artikulua irakurle asko txunditurik utziko du, deus guti ezagutzen baitugu Iparraldeko arte-ekintzari buruz. Ez zela inor uste genuen, eta badela pintatzailerik frango ikusten dugu: dexente aipatzen ditu Gelosek, eta bada besterik ere.

Gure kultur ingurunean pintatzaile horien ezagutzapenik ez badugu, ez da kasualitate; arrazoi ximple bategatik da: J. Etxeberri eta P. Saint-Esteben (eskultorea) salbu, gainerakoak euskal kulturaren dinamikan integratu gabe daude. Artista hauek Ipar Euskal Herriaren geografikoki daude, ez izpirituz: gehienak kanpokoak dira, estudioak Parisen egin dituzte eta salmentak ere han dituzte, Iparraldean «atelier» dute, ez askoz gehiago. Biarritzen galeria anitz dago, uda partean erakusketa ugari egingen dira: turistentzat gehienbat.

Bazterleku honen beste arrazoi batzu ere badira: bertakoek kasu guti egiten diete artistei; kritika-falta nagusitzen da gure komunikabideetan; eta, batez ere, burgesia arte-eroslea falta da.

## Frantsesa euskararen aitzinean

Irakaskuntzaz luze iharduteak mereziko luke. Baina oso labur arituko gara gu, astirik ezagatik.

Zein da, Iparraldean, ikastolaren lehen problema?

Ikastola, erakunde bezala barrutik begiratuta, dirua da arazorik larriena. Baina marku zabalagoan, eta arrazoi sakonago bezala: kontzientzi falta, herriaren euskaltzaletasunik eza. Gainera, hau ere kontuan hartzekoa da: euskara tradizionalisten esku egon da orain arte, eta hauek ez dira ikastolazale; planteamendu folklorikoan agortzen da hauen euskaltzaletasuna.

Hegoaldean aurkitzen ez dituen problema batzuekin ere topo egingen du hemen irakaskuntzak. Bi aipatuko ditugu: Estatuak irakaskuntza ordain dezan ohiturik dago jendea hemen. Ikastola, aldiz, nork bere faltrikeratik ordaindu behar. Egia da badirela eskola pribatua ikastola baino garestiago pagatzen dutenak, baina, jakina, hauentzat, euskarak «ez du baliorik».

Bigarren oztopoa, frantses hizkuntzaren zailtasunetik dator. Frantses hizkuntza ikasgaitza izanik, beldur dira gurasoak haurrek ez dutela sekula frantsesa ongi menderatuko, eta are gu-

tiago tikitan euskara ikasten eta lantzen badute. «Ez dugu haurraren geroa hipotekatu nahi», dio guraso askok.

Zer jokabide izan du Elizak? Ikastola mailan, Hegoaldearen alderantzira, Elizak ez du parterik hartu, ez eta hartzen.

### **Hego-Ipar: harreman zailak**

Iparraren eta Hegoaren artean zer harreman modu dagoen jakin-minez ibili gara han eta hemen. Alferrik. Ezin jakin. Baina egon badaude, komertzioan, nekazaritzan, industrian, arrantzian. Ikerketarik ez dago, ostera. Harritzekoa bada ere, ikerketak falta dira: gure batasun kontzientziari datuak falta zaizkio. Ahobatez salatzen dugu denok gure arduradunen utzikeria —interesatu!— hau. Konponduko al da etorkizunean.

Bidasoaren bi alderdien arteko harremanak, gutiegi eta misteriosoak (ez ezagunak) izanaz gainera, biziki zailak dira. Arrazoi askogatik. Arrazoi politikoengatik batez ere, jakina denez.

Baina gutiago aipatu ohi den traba-mota batetaz jabetzea ere komeni zaigu, berantegi izan aurretik.

Hegoaldekoen eta Iparraldekoen arteko kolaborazioa eta elkar ulertzapena ez da beti erraz erraza gertatu, jadanik izan ditugun kontaktoetan (esate baterako, Arrasatera joan ohi diren hemengo gazteen kasuan). Hizkuntza problemak daude: bateko, erdaraz mintzatzen direla gehienak; eta besteko, euskara batuaren faltaz nekez ulertzen dutela elkar. Politika problemak daude: Iparraldeko askorentzat Hegoa Espainia da; eta hangoentzat Iparra, Frantzia. Are mingarriago: Hegoaldeko askok Ipar Euskal Herria, herri subdesarroitatu bezala tratatzen dute. Kasu honi!

Elgarrekin bizitzeko, beraz, egiturak eta bihotzak soilki ez baino buruak ere aldatu beharko ditugu. Elgar ezagutzetik hastea, hoberena.

BILTZAILE: *Joan Mari Torrealdai*  
*Joxe Azurmendi*

MOLDATZAILE: *Joan Mari Torrealdai*

## Bibliografia

- ALDECOA, Ignacio: *Le Pays Basque*, Noguer, Barcelona, 1963.
- ALTABIZKAR: *Les basques, un peuple, une nation*, Elkar, Bayona, 1974.
- ALLIERES, Jacques: *Les basques*, P.U.F., 1977.
- ANGULO, Miguel: *Guide des Pyrénées basques*, Imp. Marrimpouey, Pau, 1977.
- BAULNY, Olivier: *Les grands basques dans l'histoire universelle*, Société Pyrénéenne de Reproduction Offset, Pau, 1975.
- BIDART, Pierre: *Le pouvoir politique à Baigorri, village basque*, Ipar, Baiona, 1977.
- BIDART, Pierre: *Récits et contes populaires du Pays Basque, 1*, Gallimard, Paris, 1978.
- BLADE, Jean-François: *Etudes sur l'origine des Basques*, Laffitte Reprints, Marseille, 1978.
- CASENAVE, J.: *La vie quotidienne à la Belle Epoque, Pays Basque*, Delta Expansion, Paris, 1977.
- CORNU, Dominique: *Les travailleurs de la chaussure de Hasparren*, Elkar, Baiona, 1976.
- CHARPENTIER, Josane: *La sorcellerie en Pays Basque*, Guénégaud, Paris, 1977.
- CHARPENTIER, Louis: *Le mystère basque*, Robert Laffont, Paris, 1975.
- DAVANT, Jean-Louis: *Histoire du Peuple Basque*, Elkar, Baiona, 1977.
- DENDALETSCHE, Claude: *Montagnes et civilisations basques*, Denoël, Paris, 1978.
- DICHARRY, Marguerite: *Les agriculteurs et le remembrement*, Elkar, Baiona, 1977.
- ERREZAIN, J.: *Les basques à Paris*, Ipar, Baiona, 1976.
- GACHITEGUY, Adrien: *Les basques dans l'Ouest américain*, Ezkila, Urt, 1955.



- GACHITEGUI, A., AGUERRE, L.: *Laborantzatik hobeki bizitzeko*, Ezkila, Urt, 1963.
- HIRIART-URRUTY, Jean: *Mintzaira, aurpegia: Gizon!* Jakin, Oñati, 1971.
- INTXAUSTI, Joseba: *Iraultzaren bildotik*, Jakin, Oñati, 1972.
- LACHAGA, J. M.: *Minorités nationales et liturgie romaine. L'exemple de la liturgie en basque*, Centurion, Paris, 1979.
- LAFITTE, Pierre: *Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak*, Gure Herria, Baiona, 1974.
- MAINHAGUIET, A.: *Le Royaume de la Basse Navarre (1523-1790)*, Ezkila, Urt, 1978.
- NARBAITZ, Pierre: *Le matin basque*, Guénégaud, Paris, 1975.
- NARBAITZ, Pierre: *Nabarre ou quand les basques avaient des rois*, Iruinea-Baiona, 1976.
- NARBAITZ, Pierre: *Orria ou la bataille de Roncevaux*, Iruinea, 1978.
- ROUSSEAU, Monique et Francis: *10 itinéraires en Pays Basque*, Barberousse, Paris, 1978.
- SACX, Maurice: *Bayonne et le Pays Basque*, Ikas, Baiona, 1968.
- SACX, Maurice: *Géographie des Basses Pyrénées*, Ikas, Baiona.
- SALLABERRY, J.D.J.: *Chants populaires du Pays Basque*, Laffitte Reprints, Marseille, 1977.
- SUHUBIETTE, J., LEIZAGOYEN, M.: *Problèmes du développement économique*, Baiona, 1975.
- TORRE, José Miguel: *Historia del País norpirenaico. I-II*. La Gran Enciclopedia Vasca, Zalla, 1976.
- VEYRIN, Ph.: *Les basques*, Arthaud, Grenoble, 1975.
- VIERS, Georges: *Le Pays Basque*, Privat, Toulouse, 1975.
- X. X.: *Kantu kanta kantore*, Kordelieren Irarkola, Baiona, 1967.
- X. X.: *Mobilier basque*, Charles Massin, Paris.
- X. X.: *Villes basques*, Charles Massin, Paris.

## Liburu gabeko gerrateondoa

Jordi Verrié-k, *Permis per a llegir* artikulutxoak argitaratu berria du *Serra d'Or* aldizkarian. Liburu katalanak jasan zuen persegizioaz ari da lana. Jakinagarria dateke gerrateondo hartako historia guretzat ere.

«Liberación»-aren biharamunean, gehiago luzatu gabe, 1939ko urtarrilaren 27an, hasi zen zeharbidez liburu katalanaren jazarpena: «estad seguros, catalanes, de que vuestro lenguaje en el uso privado y familiar no será perseguido» esan zuen Alvarez Arenas jeneralak.

Non persegituko ez zuten jakinda, asma zitekeen non persegitu nahi zuten ere.

Errepresioaren makilkadak eta katalanzaleen ihes-bidezidorrak nahiko gisa bitxitan moldatu ziren. Lehendabizi, Gobernuaren aginduz (*intentsiyo* guztiarekin, ba), Fabra-ren Hiztegi Araucemailearen plantzak apropos hondatu zituzten: politika berriari ez zion onik egiten *Diccionari General de la Llengua Catalana* harek. Urte haietako batetan, «Liburu Eguna» ospatuz alegia, San Joan sua ere egin zen liburu katalanekin.

Kalez kale, dendaz denda eta etxez etxe gidatu zen liburuaren persegizioa. Lehenik, argitaletxeen eta banatzaileen eskuktan gelditutako aleak bilatu ziren: gordetako guztiak gerra-irabazleen eskuetara pasatzeko agindu zuten hauek. Liburudendari eta editoreek imen-tario bat egin behar zuten, titulu eta aleak kontatuz. Bat edo besteri baimena ere eman zekiokkeen inoiz, salmentara iriteteko. Gehienek zakarretara joan behar zuten. «Catalònia» liburudendatik bakarririk hamar bat tonelada liburu joan ziren paper fabrikara: kiloko hamar xentimotan ordaintzen zuten kilo papera...

Baina inkisizio harek Fabra-ren katalan arautua hartu zuen begitan, hau da, Generalitatean ofizialki onartua izandakoa eta hizkuntzaren batasun zentzua zeraman idazkera. Politikaz indartuz eta nazionalki gora zetorren hizkuntza moldeari moztu nahi izan zitzaion bidea.

Horregatik, batasun kontrako bidea indarberritu nahi izan zuen

frankismoak, eta, 1932az geroztik behera zihoanaz baliatuz, hizkuntzari etorkizuna moztu. Ez zen hori itsu-itsuan egiten. Horrela, aspalditxoan irteerarik ez zeukaten edizio zaharrek gerrateoan ezagutu zuten nolabaiteko loraldi bat. Dena zegoen persegitua, baina katalan zaharkitua (!) eramangarriago gertatzen zitzaion okupatzaileari. Molde zaharra eta berria nahasian zuten liburu bildumak («Lectura Popular», esate baterako, bere 365 titularekin) heriotzera emanak izan ziren.

Lehenagokoak salbatzeko nahiz berriak ateratzeko, frankismoak baldintza ezagunak ezartzen zituen: ortografia zaharra, Elizaren liturgia, jainera eta katekesia. Irteerarik erosoena hortxe aurkitzen zen. Jaunartzeko oroigarri bat izan zen gerrateoan lehenengo argitalpen katalana (1939): *Mes de Maria Eucaristic*. Hola moduzko beste titulu batekin etorri zen bigarrena (1942): *Rosa Mística*. Biak olerki lanak ziren. Sorketa lanetatik hirugarrena *Comunió* deituriko oroigarria izan zen, hau ere poesia (1945). Lanok eliz-baimenarekin agertzen ziren, Gobernuarenik gabe, «Nihil Obstat» hutsarekin alegia.

Baimen administratibo guztiekin agertutako lehenengoa Plutarco-ren itzulpena izan zen, 1942an. Obra hau «Bernat Metge» sortakoa zen, hau da, klasikoak katalanez eman dituen bilduma ezaguneko; orduan 80 ale zeuzkan sortak, geroztik 200etaraino heldu da. Argitalpenerako baimena oso arrazoin argigarri batekin eman zuten: harekintxe «bildumari amaiera» eman ziezaiola eskatuz baimendu zen liburua.

1943an Verdager-en Obra Osoak berreditzeko baimena lortu zen, liburuki bakar batetan eta, jakina, ortografia zahar arautugabea, noski. (*Era com recoinèixer el valor arqueològic de la literatura catalana i afirmar-ne la falta de vitalitat*). Egoera haretan, eta ez eztabaidarik gabe, 1932ko batasunaren aldekoek ere makurtu beharra izan zuten, halanola Editorial Selecta-ko Cruzet-ek (1946raino ez zuen honek ortografia arautua erabiltzeko baimena eskuratu).

Argitalpen banaka hauen ondoren, Europan Gerratea amaitzean agertzen dira literatur liburu sortak. 1936-39etako gerratearen irabazleetako idazle zenbaitek izango du katalanez kalera irteteko lehenengo aukera; baina lehendabizi, abantaila hori gaztelaniazko kazetaritza-lanaren «penitentziatz» irabazi behar izan zuten haiek ere. Bestalde Kristau Ikasbideek orduan ukan zuten beren egokiera.

Horiek horrela, orduan ere baimen bila zebilenak nonnahi topa zitzakeen oztopoak, eta saltinbanki lana egin behar izaten zen, esate batetarako, liburuci zabal-altuak haundituz, ahal zela Barcelonako zentsura-ordezkaritzari zegozkion neurrietatik (32 or.) at geldi ez zitezen.

Hemen, gure artean, alderaketa bat egin liteke Kataluniako eta Euskal Herriko errepresioen artean. Hona edizioen zerrrenda:

URTEA	EUSKARAZ	KATALANEZ
1937	deusez	zernahi (Gerrate barnean)
1938	deusez	zernahi (Gerrate barnean)
1939	deusez	<i>Mes de Maria Eucaristic</i>
1940	<i>Cristau-Dotriña</i>	deusez
1941	deusez	deusez
1942	deusez	<i>Rosa Mistica</i> <i>Vides Paral. leles</i> (t. IX) Verdaguer: <i>Canigó</i>
1943	deusez	Verdaguer: <i>Obra osoak</i>
1944	<i>Bederatziurrena</i>	Verdaguer: <i>L'Atlàntida</i> Verdaguer: <i>Montserrat</i>
1945	deusez	<i>Comunió</i>
1946	<i>Argi Donea</i>	<i>Bildumak</i> sortzen dira

Zerrenda honek ohar bat edo beste beharko luke. Esan beharra dago Estatuaren barnean argira emanei buruz diharduela, edo hobeki: Hego Euskal Herri barnean egindako edizioez ari da, gurean, eta Principat-aren barruan egindakoez. Jakina da urte haietako gehiena herbestean egin zena.

Euskaraz, hamar urteetatik zazpi ezergabeak dira. Katalanez, oster, urte beretan *bi* bakarrik dira ezergabeak; eta, gainera, beste bitan, gerratea luzatu zitzaielako, ez zeuden Franco-ren menpean eta lehengoan iraun zuten argitalpenek. Obra berrien lehenengo edizioak ere ezberdinki ematen dira: euskaraz bi urtetan bakarrik (1940, 1944) eta bietan eliz-liburuak; katalanez, berriz, lauetan gutienez (1939, 1942, 1945, 1946). Katalanez berchalaxe hasten dira literatur lanak, baita sorkari berriak ere; euskaraz, ordea, 1948ra arte itxaron beharko da, Lekuona-ren *Iesu aurraren bizitza* kaleratu arte, edo, nahi bada, Mitxelena-ren *Arantzazu, Euskal Poema* 1949an azaldu arte.

Eta bukatzeko: badirudi, ortografi berrikuntzak (Fabra-rena nahiz Sabino-rena, edota 1968koa) politikaren amodioak eta gorrotoak berenganatzera kondenaturik daudela. 1940ko euskal *Cristau-Dotriña* ere erdal ortografiaz agertu zen, nonbait, gure autore zaharren antzera edo. ■ *Joseba Intxausti*.

## Valencian ez da «katalanez» mezarik nahi

Joan zen urtarrilaren 21eko eta 28ko igandeetan jesuiten elizara eskubiko talde bat sartu zen balentzianoz ematen ari ziren meza galeraztera. Oihuka eta irainka ekin zien han bildutakoei eta, batez ere apaizari, homilia egiten galeraziaz eta sagarakoan

bertan ere meza moztu nahiez. Giroa kiskalita jarri zenean, poliziari deitu zioten. Baina ez zen sartu, baimenik ez zuela elizara sartzeko eta. Astean zehar bonba amenazoak, dei anonimoak eta desapioak ugaritu ziren, meza kentzea erabakitzeraino. Badaezpada ere han etorri zen berriro aurreko igandeko taldea.

Garaipenak emandako ausardiaz han joan ziren beste elizetara. Otsailaren 11an *Pilar* eta *San Pedro Pascual* parrokiatan egin zuten beren aziotxoak. Azkeneko honetan «*Llibre del Poble de Deus*»-ren egileari, A. Pere Riutort-i egurra eman nahi izan zioten.

Meza hauek antolatzen dituen «*La Paraula Cristiana*»koek gora jo zuten. Baina ez bikario jeneralak ez Miguel Roca apezpikuak arazoa argitu nahi izan dute; alegia, zerabilten hizkuntza textu ofizialetan datorrena dela. Alderantziz dudan jarri omen ditu Valencia erreinu zaharreko lurralde osorako ontzat ematen dituzten aurreko artzapezpiuaren eta beste Eliz barrutietakoen dokumentuak.

Gertakizun hauek «balentzianismoaren» eta «katalanismoaren» hauzia Elizan ere badagoela adierazten digute. «Katalanismo imperialistaren» beldurrez bandera, eskualdearen izena eta hizkuntza bera eztabaidatzen da. Hizkuntzak «balentziano» behar du izan eta ez «katalana», biak hizkuntza beraren bi hizkelgi badira ere. Valenciako eskualdearen autonomiaren zale direnak ez dute «arrisku katalanik» nahi. Horregarik Katalunyan nagusitu den hizkuntza ofiziala ez baino Valenciako hizkelgia bultzatzen dute. Badira ordea kultura balentzianoaren etorkizuna gaur «katalana» deitzen zaion hizkuntzarekin loturik ikusten dutenak. Eta badira balentzianismoaren eta katalanismoaren arteko borrokari su emanez eta honen aitzakiaz, Madrilgo zentralismoa defenditzen dutenak.

Kultura balentzianoa, bertako hizkuntzari dagokion alorrean behintzat, oso ahula da. Eta ikusabar daiteke, «katalanarekin» batzen ez bada, gaztelaniak ez ote duen irentsiko laster hizkelgi balentzianoa. Ahultasuna nabari da kontzientzi faltan ere. Badirudi hizkuntz hauzia katalanismoari aurpegi emateko gehiago erabiltzen dela «balentzianoa» promozionatzeko asmoz baino.

Hizkuntzarekiko kontzientzi eza hori bera dago Elizan ere. Textuak itzultzeko izendaturiko batzordeak ez du funtzionatu. Orduan Pere Riutort apaiz mallorkarrak, textu katalanen gain prestatu zuen bere «*Llibre del Poble de Deus*». Apezpikuek onartu egin zuten nonbait. Baina gero hura katalana balentzianori inposatzea zela eta sortu ziren eztabaida biziengatik edo atzera jo zuten. Orduan zabaldu zuen apezpikuek emandako baimenaren egiaztasunari eta ofizialtasunari buruzko zalantza. Baimen ofizial horrek benetakoa izan behar du. Pere Riutort-ek hauzitara jo nahi izan omen du, eta inor ez omen da ausartu joatea behintzat.

Kontzientziaren apurrik ere ez dagoen seinale triste izan daiteke, Valencia bezalako hiri haundian, dozena bat meza baino ez

dela egongo «balentzianoz» edo «katalanez» jakitea. Herriak ez omen du eskatzen eta apez-jendeak ez omen du beharrik ikusten.

Autonomiarekin eta «balentzianoa» eskoletara eramán nahi bada izango al du indarrrik aski hizkelgi «katalanaren indarrari» aurpegi emateko? Argi dagoena zera da: Katalunyan sortu den hizkuntza batua eta eta hizkuntza berorren hizkelgi balentzianoa, ez direla berez batu eta ezta batuko ere. Euskalkien hazkunde eta bilakaera hutsez euskara batuko dela uste duenak ere baduke zer pentsa. ■ *Manolo Pagola.*

## Udara begira...

Azken urteotan udalekuak hartzen diharduten bizitasuna argia da denontzat. Udaldia iristean ikastolak, parrokiak eta beste zenbait erakundek babesturik egun batzu lagunartean eta atsedén gisa igarotzera joateko aukera ederra izaten dute gaztetxoek, lekua, giroa eta ekintza aldatuz.

Hegoaldean Nafarroa, Errioxa eta Araba aldera jo ohi dugu gehienetan udalekuen bila. Era berean esan beharra dago Iparraldera oso joera guti izan dugula, eta izan dugunean ere frantsesa praktikatzeko izan dela.

Euskaldun guztiontzat da beharrezko elkarren berri jakitea hizkuntza, ohitura eta kultura mailan. Haurrei, ikastolan dabilzanezi eta ez dabilzanezi, mesedegarri zaie «beste» Euskadi ez ezagun horren berri jakitea. Muga guztien gaindi Ipar eta Hego aldeko gaztetxoak elkarrekin ikusi nahi genituzke. Lehen elkarrekiko izan ez ditugun harreman horien hutsunea bete beharra dago; honela, gero euskaldunek ere gaztetandik hasitako harremanak izango dituzte kultura, ohitura, kezka eta hizkuntza mailan lana elkarrekin egiteko. Eta gero geroakoak.

Une honetan onuragarri litzateke Ipar eta Hego aldeko jendez osaturiko udaleku bat. Honek zera esan nahi du: antolatzaile, arduradun eta haurrak bi aldetakoak beharko luketela izan.

Posible ote da euskal udalekuentzat mugak haustea? ■ *Antonio Iraola.*

## LANTZEN, ELA-ren aldizkari sindikala sortu da

Ohartxoek idazten ditugun momentuan, LANTZEN aldizkari sindikalaren 2gn. zenbakia kalean da, ELA/STV-ek aterea. Zuzen-

daria, Jose Elorrieta. Redakzioa, Euskalduna, 11 1.º, Bilbao-8. Hamasei orrialde zerbaki bakoitzak. Aldizkaria erdaraz dator, zertxobait euskaraz.

Lehendik badu ELA-k bere «ELA/STV Sindikal Astekaria», *astekaria* alegia, dagoeneko 50gn. zenbakia pasata dihoana. LANTZEN bestelako proiektua da: informaziokoa baino gehiago formaziokoa. Astekariak baino hilabetekariak egokiagoa bait dirudi eginkizun horretarako.

LANTZEN honen helburu bat, hain zuzen, «langile guztiok geure egoera sakontzea eta bideak bilatzea» da, Alfonsito Etxebarriak aurkezpenean agertzen digunez. Eta bada hor gauza bat seinalagarria: sindikalistentzat, baina sindikalistek berek eginga izatea. «Askotan entzun dugu —azaltzen digu aurkezpenak— langileen helburuak ipintzea politiko edo intelektualen lana dela. Nire ustetan, hori parte bat da, baina guk sindikalistok, beste zati handi bat ipini behar dugu, eta horretarako ez dago beste modurik, geure bideetan sakontzea baino».

LANTZEN, beraz, «una revista de militantes sindicalistas» duzu alde bietatik, irakurleenetik nahiz egileenetik. Langilearen arazoetan sakontzeko responsabilitatea ELA-k bere gain hartu nahi du: eta ez «intelektualei» edo utzi; ez eta Alderdi «proletariaci» ere... Izan ere, hori egin izanak, sarriegi hori egin izanak, zenbat aldrebeskeria sortu duen, langileriak berak daki inork baino hobeto. Besteak beste, Alderdientzat oso komodoa izan da, langileriaren estrategia eta, berak markatu behar omen zituztelako, sindikatoen bizkarretan jaun eta zaldun ibiltzea: langileak berriz ere morroin, eta berak hain zuzen nagusi berriak altxatzen. Eta, besteak beste, hainbeste intelektualek bere burua langileriaren defentsa teorikotara dedikatu digunez gero, langileriaren teoriok askotan ez dakigu zer ikusi behar duten langilearen egiazko errealitatearekin: langilearen arazoekin, —eta ez lantokikoekin bakarrik; langilearen pentsatzeko modu propioekin.

Ez dago zergatik ezer esan teoria orokar eta unibertsalen kontra. Beharrezkoak dira. Baina LANTZEN-ek egunoroko esperentzia sindikaletik, konkretutik, nahi du konklusio orokarretara poliki-poliki iritsi; eta ez teoria orokar unibertsaletatik errealitate sindikalerari jaitsi, goitik behera. Hankak lurrean beti. Horregatixe, munduan bestelako ikuspegirik franko kabitzen da, baina ELA-k ikuspegi sindikaletik ihardun nahi du berak. «Nosotros, los de ELA, siempre hemos entendido que somos todos los trabajadores y sindicalistas los que hemos de elaborar el proyecto sindical analizando y examinando los fenómenos actuales de nuestra sociedad y dando una respuesta adecuada precisamente desde la perspectiva sindical».

ELA-k ez du bere bidea batere erraz egin. Hasieretako nekeak alde bat utzita ere, gerra ondoan, eta frankismoaren azken urteetan, eta «demokraziaren» hasieran, ez da egongo beste sindikato bat.

langileria «intelektualen» eta politiko «proletarien» burla eta kritika gehiago izan duenik. Inor bada, ELA izan da, prestamotatik bizitzerik izan ez duena. Izan, proiektu sindikal denak izango ziren kritikagarriak; baina historigintzak eta kritikak *Eusko Langileen Alkartasuna* baino zorrotzago hartu duten beste Sindikato bat ez dakigu, euskal giroan bertan. Halare ELA-k aurrera egin du. Zabaldu eta indartu bada, edo gehiago zabaldu eta indartu ez bada ere —Nafarroan, esate baterako— euskal arazoetaz iharduten ginuen besteok asko lagundu diogulako behintzat ez da izan. Berak ibili behar izan du eta berak bilatu behar izan du bere bidea. Ondo bere-bereak ditu bere indarrak.

ELA-k, errespetorik ez zitzaion giro batetan, sartu egin du errespetoa. Eta gaur ELA-ri edonon errespetoa baldin bazaio, lanak eta bere seriotasunak eman diona da.

Halare, ELA-k badaki, beti gehiago dela egiteko dagoena, egin dena baino. Ekainean bere IVgn. Biltzarra egitekotan da (ez dugu esango «ospatu», «zelebratu» egingo duenik, ez bait da jaialdi bat izango, lanaldia baino). Euskaldun langilearen geroak kezkatzen gaituenok, interes adina esperantzaz begiratzen dugu hara. Ez bait dugu dudarik egiten pauso haundi bat izango dela euskal langileria historian. Langile mogimendua, sindikala bereziki, eremu hertsiki bat gerta ez dadin gizartean, baizik eta gizarteko beste ekintza molde, erakunde, mogimendu guztiakin lotu-loturik ibil dadin, egiteko haundia dute komunikabideek, idazleek, historigileek, ikasleek. Sindikatoek ez daukate sindikatoei berei bakarrik interesatzen zaien gauza bat izaterik. Sindikatoak denoi interesatzen zaizkigu, sindikatoekin zuzen-zuzenean behintzat zerikusirik ez dugunoi ere. Ikastetxeetan, esate baterako, konferentziak eta filmak antolatzen diren bezala Patagoniako floraz eta faunaz, hitzaldiak antolatu beharko lirateke ekintza sindikalaz; elkarriketak antolatu beharko lirateke, ikasle eta sindikalisten artean, etab. Gutxienez Alde diekin eta politikoeekin egiten diren elkarriketak bezain probetxugarriak izango lirateke. Ez bait dirudi oso arrazoizkoa, gure mutilek eta neskek eskola urteetan zeruko eta lurreko komeria denak entzutea, baina azkenean ekintza sindikalaren informaziorik batere gabe uztea eskola, lantokian buruz behera sartzeko.

Ez langileek bakarrik: denok daukagu, gizarte osoak dauka, sindikato sendo, serio eta crantzuneko baten premia. Ez da aski langileek beren erakunde bat edukitzea, apuroan daudenean apurorik ateratzeko. Hori ere bai: zeren eta, holakoetan langileak berak momentuan irabaz dezakeenez gainera, indar errebindikazale borbiz bat gabe, ez ekonomia moderno batek, ez gizarte pluralista modernoak, bait daukate behar bezala funtzionatzerik, arin eta garbi eta bakean, bake erlatibo samarrean bada ere. Alabaina, sindikatoak askoz gehiago eman diezaioke langileari, eta —langileari emanez— gizarteari: langileria responsable, organizatu, kontziente bat, arci zozo edo ahuntz: zalapartari taldeen orde. Gizarteak, ondo ibiltze



ko, langileria responsable eta aktibo bat behar du, egiteko sozial guztietan ondo finkatua. Baina gizartean, langilea, bere sindikatoan situatzen da ongienik. Sindikatoan, eta beti ikuspegi sindikalistaz baliatuz, ikasi behar du langileak gizartearekin josten, bat egiten, gizartean parte hartzen, bere esperentziaren eremutik beste eremuetara irekitzen eta ailegatzen: politikara, kulturaingintzara, Deretxora, musikara, zinemara... LANTZEN aldizkariak badu bere sailtxoa, zinemaz, musikaz, liburugintzaz, llabur-llabur berri emateko: eta langileari interesatzen zaion kriterioz emateko, zorionez. Badu bere sailtxo politikoa (Estatutuari buruz lgo zenb.; hauteskunderi buruz, 2gñean), etab. Gauzak langileari interesatzen zaion moduan eta alderditik eginda. Hau da, sindikalistaren ikuspegia inoiz galdu gabe. LANTZEN, halare, gehien-gehienbat arazo laboralez ari da, bidezko denez. Eta langileriaren egoera, helburuak, argitzeko eta sakontzeko asmoz, hain zuzen. «El militante sindicalista acostumbra a vivir intensamente los problemas diarios con riesgo de olvidar la proyección hacia el futuro, de discutir, problematizar, investigar y elevar, en fin, sus conocimientos globales que son imprescindibles porque, a fin de cuentas, son los que sirven de guía a las decisiones cotidianas». Eta horretantxe nahi dio LANTZENek langileari lagundu.

LANTZEN aportazio haundi bat izan daiteke: euskal sindikalismoari, aurrenik; baina gero, eta ez gutxiago, euskal gizarte osoari. ELA-ren esperantza: «beste pauso haundi bat eman dugu LANTZENekin», gure esperantza da orobat: euskal gizartean berez dagoen tokia, eginkizuna, geroz hobeto bete ahal izan ditzan euskal langileak. ■ *Joxe Azurmendi.*

## Hamar urtetik hamar urtera, ideologia berri bat?

1950eko testuak aztertu eta esistentzialismoaren orduko gora nabaritzen duzu euskal letretan: 50 inguruko «modako ideologia». Orduan, Luis Mitxelena berak, euskal letren biderakusleak, bera esistentzialistarik ez zela, hola adierazten zituen euskal literaturako eginbeharrak:

Eta euskara biziko baldin bada —eta gure aurrekoena ez baina geure izaera benetan azalduko baldin badugu—, gure herrietako biziera nahasia euskaraz jarri behar nahi ta ez: gaurko ezinegona, bizibeharra eta ezin bizia, handi-nahia, diru-gosea, maitasun-gorrotoak; gaurko gizonen ametsak, zuhur edo zoro; ezerezaren gau beltzean —hiltzeko sortua—, nondik datorren eta zertarako den ez da kienak daraman huskeriazko ibilera galdua eta bera baino

goragoko zerbaiten alde gizona bere buruari uko egitera behartzen duen indar izkutua.

Esistentzialismotik «budismora»: 50. urteotan budismoaren gora ikusten dugu (*Peru Leartzako*, etc.). Agian budismo etsi, bigun bat zen hasieran: «Gauzen izaitea Ezerezean dago... Gauzck barruan gezurra baitaukate. — Lanho da oro, mundua elhea /. Ezer eztago, eztago Gogorik /, Spiritua ezta khimaira baizik» (Krutwig, 1952).

60ra iritsi orduko, budismo agresibo bat izango da, Txillardegiren eta eskuetan («gure arteko munduan garaitu-nahiak eta teknikeriaren izurriteak higuindurik»).

Gure zibilizazio osoak, beraz..., itsutu eta egiatik baztertu egiten gaitu (Txillardegi).

1960an Luis Mitxelenak *Asaba zabarren baratza* publikatu zuen eta, ordurako, budismoaren erasotik «Europa», «zibilizazioa», etab. defendatu beharrean zebilen.

1970: marxismoaren moda. Rikardok 67an idatzi zituen bere saio haundiak: *Sozialismoa modan dago*, *Ezkertiar berriak*, *Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu*, etab. Baina marxismoa nagusitu, benetan nagusitu, eta bere aurretik beste uhin ideologikorik ez bezala, 68 ondoan egin da Euskal Herrian. Agian esistentzialismoak eta «budismoak» nardagarri sentitu zuten zibilizazioa, jasan orde, iraultzeko gogoa biztu zen. Marxekin batera, eta hura adina, Freinet, etab. sartu ziren; eta kultur iraultzaren ideia. Uhin batak bestea berak balekar bezala.

Uhin berri bat hamar urtetik hamar urtera: 50, esistentzialismoa, 60, «budismoa»; 70, marxismoa... Zein izango da hurrengo uhin ideologikoa, 1980an? Marxismoa ere gainbehera doala bait dirudi, honez gero... ■ *Joxe Azurmendi*.

## Linguistika eta Herrigintza Katalunian

Joseba Intxausti

Pozik hartu dut autorearen onginahiarekin etorri den liburuxka hau<sup>1</sup>: *sabrà comprendre l'esperit que batega dins aques-tes pàgines*, «jakinen duzu, noski, orrialdeotan taupaka dagoen izpiritua ulertzen». Liburu ttipia da, baina asmoz eta gogoz gurtzat ere egokia.

Une honetan, autoreak bere gain hartu duen egitekoarengatik, garrantzi haundiagoa dute hor barruntatzen diren helburuak. Izan ere, autore hori, Antoni Badía i Margarit alegia, Barcelonako Unibertsitatean Erretorea da, hain zuzen, frankismoaren ondoko lehenengo Erretore demokratikoa (1.219 bozemailetatik 965 izan zituen bere alde).

Geroztik, egin dituen azalpenetan garbi utzi du Badía-k bere politikaren funtsa: aginte politikoak Unibertsitateari norabideren bat eman behar balio, Generalitat-aren kultur politikaren barnean izan beharko luke. Kataluniako Unibertsitatea, Gobernu autonomikoaren egitekoa da, ez Madrilgo Ministerioena.

\* \* \*

*Ciència i passió* honetan, 1976-77ko Unibertsitate ikastaroaren hastapenean emandako hitzaldia jasotzen da. Mintzaldiak, Kataluniako Linguistikaren baitan bizi izan den herri grina jarri nahi zuen argitan. Ez da harritzekoa, Badía-gan kezka hau: autorea ezagutu ahal izan duenak badaki, historian aurkitzen duena

lehenagotik bere golkoan bizi izan duela harek, dolorez eta isilik urte luzetan. Alde horretatik, liburuxka hau eskarmentu pertsonal baten aitortpena gertatzen da.

Liburuan esandakoek bestelako interes bat ere badute euskaldunontzat. Sarritan —eta gehienetan ere esango nuke— Kataluniaren eta Euskal Herriaren arteko ñabardurek gehiago urruntzen gaituzte elkarrengandik, berdindu baino; hala ere, kasu honetan (liburu honetan aipatzen direnetan, alegia) ez da maiz kidesasunik falta hango eta gure hemengo egoeraren artean. Guri bezala hari ere, hegoak Estatu berak moztu dizkion kultura hartako hizkuntz maisu hau hurbil baitago gureen antzeko arazoetatik.

Izan ere, hango hizkuntz batasunaren eztabaidak, hango izanahia eta ezina, herriaren berokeriak, jakintsuen maisutza ezin onhartua, normalizapenaren bilaketa, hizkuntzalarien arteko ezinikusiak, hango itxaropenaldiak eta politika abaguneak, erorialdien gogorra... Hori dena dugu Euskal Herriaren azken mendean ere. Hain zuzen, horregatik dakart hona Badia-ren lana.

\* \* \*

Zazpi kapitulutan biltzen ditu Badia-k bere pentsakizunak: sarrera llabur baten atzetik, azterketarako hipotesia ematen du (*zientzia konnotatua*), gertaera historiko batzuetan oinharrituz; datu horien berezitasunak azpimarkatu eta beroien zergaitia erakusten du hurrena, eta, herbestekoak hizkuntza katalanarengana zein jarrerarekin hurbildu diren azaltzen du, azkenik arrazoiak osoaren ondorio eta ikuspideak eman aurretik.

## Hipotesia

Susmo eta uste bat du autoreak, Linguistika katalana ez dela izan arrazoinbide hutsez eginiko lan hotza eta inolako interesik gabeko zientzia birjina bat. Mendez mende eta, batez ere, Renaiença-tik honakoan egin dena *interesatua* izan da, bihotz mugidaz bultzatua, barne munitetan sorterriak joa. *Zientzia konnotatua* esaten du Badia-k.

Gizarte normaletan (*establishment* normala dutenetan, noski) bada zientzia «objetiburik». Arruntki horrelaxe izan ohi da, e.b., Frantzia eta Espainia ofizialetan. Baina hizkuntza katalana (urte gutti batzuk aparte) ez da ofiziala izan, XVIII. men-

dearen haseratik gaurdaino, eta, ondoriobidez, Linguistika katalana ere ezofiziala bilakatu zen. Egoera horrek markatu egin du Linguistika horren bizimoldea. Beste edozein tokitan bezala, *edukiaz* zientifikoa zen Kataluniakoa ere; baina zientzitasun hau, bizi izan dituen *jarrerengatik*, afektibitatez koloreztatu da (*la ciència catalana és indefectiblement connotada d'afectivitat*, 13 or.), eta, zentzu batetan, herritartu egiten zen, erre-mediorik gabe.

Hortik zientzi objetibutasunari datozkiokeen arriskuak litezke berehala: zientziak behar duen hoztasuna galtzeko arriskua, alegia. Arrisku eta guzti, herriak ere bizi izan duen problema bat gertatu da Kataluniako Linguistika. Herriaren aurrera-minak eta herriarekiko haundinahiak bultzatu zuten zientzia hau. Jakintsuak —askotan ohartuki ere— herri naziotasunaren zerbitzuan ahalegindu dira, eta, bestaldetik, herri eskolatuak berak ere beretzat hartu du haien lana: *la nostra ciència es un afer de tota la comunitat, un afer no confiat als erudits, sinó sentit i compartit pel pobles culte* (13 or.). Egin, jakintsuek egiten dute zientzia, noski, baina berehala herriaren eskutara pasatzeko, herri kulturtzaleari eskaintzeko. Kataluniako zientziak eduki duen herritartasun horrek emango luke aditzera zergatik piztu diren han hainbat eztabaida eta liskar: «zientifikoa da Linguistika katalana, baina oso kasu berezia da zientzia unibertsalaren barnean, halakoxe grina eta talde-intereseekin zirikatua eta sostengatua izan baita» (50 or.). Hizkuntzalarri jatorrengan —eta horietaz ari da beti autoreak— «jarrera herri-grinatu» horrek ez du zientzi edukirik hondatu, eduki zientifikoaren bilaketa suspertu eta bizkortu baizik. Ezofizialtasunak ukatu ziona, beste era batera herri eskolatuaren atxikimenduak eman zien Kataluniako hizkuntzalariei.

### Gertaerak

Hipotesi hori egiztatzeko Linguistika katalanaren historiara jotzen du autoreak, batez ere XX. mendean gertatutakoetara. Elkarren segidako sei une ezberdin aztertzen dira: 1) Ortografia katalanaren normalizapena (1891-1913), 2) Alcover eta geroago Moll-en *Diccionari-a* (1901-1913), 3) «Institut»aren jaio-tza eta lehen urteak (1907-1920), 4) Oparoaldia (1920-1939), 5) Zarpaldia (1939-1960), eta 6) Azken urteetako loraldia (1960-1976).

### Ortografiaren normalizapena (1891-1913)

Hizkuntzen ortografia arauetan normaltzea, hizkuntzalarien zientzi lan bat da, berez; baina, normalizapenak gizartearen ohitura linguistikoak finkatu eta berdindu nahi dituenez, herriaren arrankura eta iritziekin egiten du topo. Bestalde, hizkuntzalaria bera ere, kasu honetan, errazki lerratzen da zientzikanpoko zenbait helburutara (herri bat = hizkuntza bat?, berrikuntza ala tradizica?, etab.).

Ortografia katalanaren normalizapena ez zen arazo hotza gertatu. Pompeu Fabra eta lagunek (*L'Avenç* aldizkariaren ingurukoek) 1891n eman zioten hasera beren *campanya lingüística* deitu denari. Berriz ere, zientziaren printzipioak, jakituenengan eta herriarengan, *konnotatuak* gertatzen dira. Zientzikanpotiko baldintzarik bazegoen ortografia berriturako egiten zen proposamen haien inguruan. *El millor sistema ortogràfic que podiem tenir* izanarren, bortizki eraso izan zen. Izan ere, hizkuntza maitale bakoitzak zekarren bere batasun proposamena. 1913ko *Normes Ortogràfiques* haiek «anti-normistes» deitzen taldearekin topo egin zuten: *organitzà una polèmica violenta i sostinguda, esgrimint tots els arguments i acudint a tots els mitjans*, dic Badía-k. Hau da, gogorkeria eta setakeria ez ziren alden du berehala eztabaida hartatik. Gutti, baina gorrak zirela «anti-normistes» haiek gehitzen du autoreak (*els anti-normistes —que eren tan violents com escassos— crearen un clima enrarit de polèmica*).

Hizkuntza katalanaren historiako garrantzizko une berezi hartan, herri osoaren beharizan hartan, linguistek herriaren bihozkaidekin batera lan egin zuten. Eta, eztabaidak eztabaida, herriak bere osoan konfiantzazko baiezkoa eman zien hizkuntz gidariei. «Herritar ekintza izan zen normalizapena. Esateko, gizarteak bere-beretu egin zuen hura», 1906ko *Primer Congrès Internacional de la Llengua Catalana* hartan ikusi zenez, 3.000 lagun izan baitziren kongresukideak.

Kataluniako burundara haiek gertuagoko iskanbila gogorazten digute.

### Obra del Diccionari (1901-1920)

Bilketa lana da obra honena. *Lletra de convit* baten bidez eman zion hasera Alcover-ek lanari: katalana maite zuten guztiak deitzen zituen. Ehundaka eta milaka lagunek erantzun zuen, eta, horregatik erē, denen arteko harremanak eramateko, *Bo-*

*lletí del Diccionari* bat argitaratzen hasi behar izan zuen autoreak. Milaka eta milaka txarteletan emanak zetozen Mallorca-ra berriak, Katalunia-ko xoko guztietatik. «Nornahik bazekien bidean zela hiztegi haundi bat, zerbait maitagarriren baieztapena zen lan ura: galdutzak edo emandako fronteak irabaztera irten zen fede berritua» (24 or.).

Herriak lagundu eta bildu-bildutako lan hura aitzina joan zen, geroago F. de B. Boll-en gidaritzapean *Diccionari Català Valencià Balear* izan arte. Linguistek ere bazekiten herriarentzat lanean ari zirena, eta egin beharreko zientziarako haren laguntza biziki estimatu zuten. Jakitunaren eta herriaren arteko sinbiosi hau behin eta berriz agertzen da Alcover-en inguruan.

Euskal Herrian Azkue-k egin zuen horrelako zerbait; baina, herri mailan, bildutako lankidetzaz askoz mugatuagoa gertatu zen. Oraindik eginkizun diren hainbat lanetarako ikusi egin beharko litzateke nola erakar denen hauzalan hau gure jakitunen ingurura. Euskaltzaindiak, bere asmoetan, ez luke hor irtenbide txarra izanen.

#### **Institut d'Estudis Catalans (1907-1920)**

Institutuaren lehenengo urte hauetako lana ere herrira itzulia izan zen, eta katalanaren normalizapena gidatzera zuzendu, hiru zutabetan oihartzuz: ortografia (1913), gramatika (1918) eta hiztegia (1932).

Institutuko gizonak (F. Valls i Taberner eta Antoni Griera gogoratzen dizkigu Badía-k) «ez zuten beren bizitzaren, ikerketaren eta gizarte betekizunen artean bereizketarik egiten. Zientzi bilaketa, herriarekiko hitzarmenarekin lotuta egiten zuten» (27 or.).

Urte haietan, P. Fabra-k esan ohi zuen bezala, hizkuntzaren normalizapena burutu gabe zegoen, egiten ari zen oraindik. Institutuak zuzentzen zuen kaleko katalangintza berria: egunkarietakoa, aldizkarietakoa, ikastaroetakoa eta lagunen artekoa ere. Herrigintza hartan, hizkuntz maisutza aparteko bat aitor-tzen zitzaion Institutuari, eta Institutukoek jakin ere bazekiten hori horrela zena.

Garai honetan agertzen zaigu beste hizkuntz eginkizun baten kontzientzia: katalana aztertu ezezik, zientziarako tresna bezala ere erabili nahi da. Zientzia berria katalanez ematea eskatzen da. Griera-rena da arazo hau plazaratzea (haren metodologi akatsak ahortzi gabe ere, aitortu beharra dago Grierrari meritu hau).

### Oparaldia (1920-1939)

Egoera sozio-linguistikoa arras aldatzen da urte hauetan: normalizapena, hizkuntza eta instituzio-gizartea elkartzera dihoaz. Ofizialtasuna lortzen da katalanarentzat, gaztelaniarekin parekatuz. Hizkuntza bezala, itzal soziala irabazten du. Bizitzako arlo guztietan jatoriasun berri batez janzten da: etxeko arazoetan, literaturan eta zientzietan ezezik, beste eginkizun arruntetan ere sartzen da mintzaira nazionala (dei ofizial, lege, prentsa, eskutizketa eta abarretan).

Zientzitegi berriak sortzen dira Errepublikarekin: Universitat Autònoma de Barcelona, Biblioteca de Catalunya, etab. Linguistikak, mailarik goreneko lanak eman zituen orduan.

Epe honetan ere errazki sumatzen da Linguistika hori zenbateraino zen konnotatua. Herrigintza da egin nahi dena. Inoiz baino erraztasun hobeak dituzte, eta ez dute aukera hau galduko. 1925az gerotik liburugintza bizkortu egiten da, eta, zenbait obra linguistikotan, hitzaurrean nabarmendu ohi da auzorearen zientzikanpotiko zirrikada eragilea (ik. P. FABRA, *Diccionari General de la Llengua Catalana*, 1932). Holakotan adierazten dute, herrigintzan ari direla. Batzutan inoizko garai txarrak gogoratzen dira; bestetan, 1931-39ko urteetan bereziki, baikorrak azaltzen dira hizkuntzalariak: *Ara podem treballar més com hom treballa pertot arreu* (Orain, nonnahi lanegiten den bezalatsu egin dezakegu lan).

### Zanpaldia (1939-1960)

Franco-ren armadak Katalunia hartu orduko, hizkuntza katalana azalpen publiko guztietatik desagertu egiten da, eta zientzietatik ere bai. Institutuak, 1947ra arte ezingo du argitalpenik kaleratu, eta orduan ere Administrazioaren beldurrez beti. R. Aramón-ek kontaktu izan digu inoiz gerrateondo hartako zenbait oroitzapen. Katakunbetan bizi zen kultura eta hizkuntz zientzia.

Gainerako debeku galgarriagoak gogoan ditugula ere, esan nahi berezia du komentario honetan debeku bitxi batek: ortografia normalizatua debekatu egiten du faxismoak. (Gramatikaren arrisku politikoak!). Bestalde, itzulpenik ere ez dago argitara ematerik.

Izu giro hartan zientzi gizonak militante bihurtzen dira, eta ahalegin guztiekin zientziari abiada bizkorrago bat ematen saiatzen, loari orduak kenduz, gorputzari beharrezko atsedena uka-



tuz. «Ikertzaileek helburu jakin bat dute: erritmo biziagoz egin eta eragin zientzia» (39 or.).

Nazioartean hitzegitera joango da Linguistika katalana, eta 1953an bilduko da Barcelona-ko Unibertsitatean *VIIIè Congrès Internacional de Lingüística Romànica*. Gerrateondotik orduan entzun zen lehenbizikoz katalana zientzi hizkuntza bezala.

#### Azken urteak (1960-1976)

1960aren inguruan liburu katalana kalean da eta aldizkariren bat ere bai. Linguisten ardura, lehenagotik datorkion tradizio ezagun baten hildotik dihoa: kanpoko zientzi eskola berriak etxeratu nahi ditu, haien metodologiek baratza zaharra ondu dezaten. Kataluniareri historiari jarraikiz, herrigintzari eskuarki eta hizkuntz jakitateari beretzikiago, modernutasuna eman nahi zaie, gaitasun berriak bilatuz; estrukturalismoa, gramatika sortzailea eta soziolinguistika, bata bestearen ondoren sartuko dira zientzia katalanaren eremuetara.

Metodologiaren kezka, nahiko nabarmen ageri da linguisten artean; efikazia eskatzen zaio, harek lanari eman liezaiokeen eragimena, alegia. Baina, orduan ere, jakin mina hainbat izan min sumatzen da jakitunen baitan. Zentzu «interesatu» hau soziolinguistikan azaltzen zaigu biziago.

Soziolinguistek, inork baino arrankura kezkatuagoz begiratzten diote hizkuntzari. «Katalanaren usuario arazoetan murgilduta sentitzen dituzte beren buruak». Soziolinguistikan kasik eskola bat sortzen du Kataluniak, Joshua Fishman-ek zera galdetzeraino: «Egiaz, inondik ere katalan bakoitzak soziolinguista izan behar du...»

Hauek dira Badía-k Linguistika katalanaren historiatic jaso dituen adibideak, Linguistika hura, herri baten nortasuna eta hizkuntza iraunarazi nahiez egindako zientzia dela frogatzeko. Kataluniaren berezitasun bezala ikusten du *konnotazio* hau. Baina beste era batetara ere muga liteke hipotesia.

*Zientzia konnotatua* kultur minorien berezitasun bat dela esatera ere ausartuko nintzateke. Horrelakorik gerta dadin, ordea, baldintza batzuk bete behar dira, noski: a) minoria horren baitan jende jakitunik izatea, eta b) bere nazionalitateaz kontzientziatutako herria izatea. Minorietan, abertzaletasuna piztean, hizkuntza kontzientzigailu bat bilakatu ohi da, nazio askapenaren bidean, eta hizkuntza hortaz axolaturik den herriko gizona, kontzientzi hartzaile ezetik kontzientzi eragile ere gertatu ohi da.

Euskal Herrira itzuliz, ikustekoa litzateke, hizkuntzalariegan nola uztartu den euskararekiko lana eta herri kontzientzia. Izanen dira, ñabardura jakingarriak (Unamuno eta Azkue, Sabino eta Altube, Urkixo eta Eleizalde...). Euskal zientzitasuna apalagoa izan bada, aitzitik iratzartuagoa izan dela kontzientzia pentsa liteke, agian.

### Interpretapena

Badia-rentzat, *zientzia konnotatu* horrek ez du esan nahi sasi-zientzia, edota bigarren mailako Linguistika bat. Kataluniak, horretan, jakitate serioa eta zientifikoa eman du orohar, nahiz eta ezin uka lan eskasago batzuren seriotasun falta.

Zazpi puntutara laburtzen ditu zientzia «interesatu» horren ikuspegiak: 1) herria izan du oinharri, 2) lan zientifikoa herriari begira egin da, 3) hizkuntza eta herriarekiko zerbitzu zentzu batekin egin da, 4) Linguistikako eskola eta metodologia guztietaz baliatu da, 5) katalanaren hizkera zientifikoa gogoz bultzatu du, 6) erdal Linguistikaren lehiakide izan da, askotan hari aurrea hartuz ere, eta 7) eragozpenetan ere akuilu bat aurkitu du.

Honela, ba, *zientzia konnotatu* hau, minorien askatasun bidean, herriarentzako askapen indar bilakatzen da eta ez nola-baiteko halabeharrez bakarrik, baita ohartuki ere, halaxe nahita. Linguisten ekintzak, alde honetatik, beste profesio liberalen norabidea berean ziharduen Katalunian: hain zuzen, Hizkuntz Kongresuen ondoan, Medikuntzarenak (1913-36) eta Arkitektuenak (1932-35) ospatzen baitziren. Eta, errezela daitekeenez, elkarren lehiaketa hori dena herri osoaren marigora baten altzoan ulertu behar da.

Kataluniako Linguistikaren Historiaren Interpretapen hau Euskal Herrian ere gogoan hartzekoa dela esango nuke. Gaurreguneko gure itxaropen politikoek itzalaldi bat jasan beharko balute ere, pentsatzekoa litzateke nola eraman gure herrigintza.

Dena den, politikak ez dezake agor euskaldunon ekimena, premiazkoa da politikari azpiegitura kultural bat ematea. Hau da, politikaren gorabehera eta ezker-eskuinaldiek ezin isilaraz dezakete hori dena. Ez dut ahanzten, noski, politikak herri nortasuna finkatu nahi duena eta, beraz, baita kultura ere. Eta badakit, politikaren eta zientziaren artean interekintza bat dagoena; baina ezin uka ere, batzutan politik munduak duen inboluziorako joera makurra. Arrisku honetaz ari nahiz, ba.

Kulturak salba gaitzake politikaren zenbait itomenetatik, herriak behar-beharrezkoa duen luzarorako itxaropen historikoa ere sano gordez. Unean uneko gertakizunen basoan, herriak jakintsuei eska liezaiekeen zerbitzu bat horixe da: jakitateak ere ekar lezakeen segurtasun historikoa. Eta zerbitzu modu hau posible izanen da, jakitunek *zientzia konnotatu* hori egiten ari diren herrietan, eta gurea izan liteke herri horietako bat.

### Kausak

Katalunian zientziak horrela lanegin baldin bazuen, ez zen mentura hutsez gertatu, gizarte katalanak bere baitan zekartzan baldintza batzuek eraginda baizik.

Lehenik, oinharritzko datu bat dago: gizarte harek —lehenengo batetan, benetako formulazio zientifikorik gabe, eta berrikitan soziolinguistikaren argibideekin— ezartzen zitzaion egoera diglosikoaz kontzientzia bizia eduki du, eta ez du onhartu nahi izan diglosia horren bidegabekeria.

Bigarren, injustizia horren aurka, bere instituzioak asmatu zituen. Horretarako, hastapenetan, jakitunen eginahalez eta kontzientzia argiaz baliatu zen Kataluniako herrigintza hau, eta berehala burjesia abertzaleak eginahala horientzako instituzio pribatuak sortu zituen. Ahal bezain laster, bestalde, instituzio publikoetara jo zen. Instituzio ofizialetan, katalanisten ametsetan, Unibertsitatea da ororen gailurra, eta, hori lortzeko, linguistak hizkuntza bera gai egiten saiatu ziren.

Hirugarren, Linguistikaren sostengua herria bera da. Izan ere, abertzaletasuna ez da burjesia elitista baten sentipena bakarrik, nahiz eta zenbait ekintzatan lehenen pertsonaia burjesia hori gertatu. Badía-k gertakizun gogoangarri batzuk aipatzen ditu: 200.000 lagun bildu ziren 1906an Solidaritat Catalana-ren manifestapenean, eta hola moduzko jendetzak bildu ziren Errepublika garaian ere. Frankismopean, 1947an, 100.000 lagunek osatu zuten Montserrat-eko bilkura. Etorkizuna irabaziko zenaren itxaropena bizirik zeukan, beraz, herriak.

Azkenik, Katalunian herriak —hizkuntzaren mintzatzaile bezala ere— etenik gabeko leialtasuna gorde zion mintzairari: *mantenir-se fidels, sorprenement, universalment, tràgicament fidels a llur verb nacional* (61 or.). Oraintsu euskaltzaleoi egotzen zaizkigun *esentzialismoa* ez da nonbait hemengoa bakarrik..., Katalunia *zibilizatuagoan* ere sumatzen baita: *els ca-*

*talans han xifrat llur quinta essència en la llengua: en l'adhesió a la llengua, en la passió perquè la llengua sobrevisqui* (62 or.). Herriaren irauñ gogo honek ingurumenik zirikagarriena sortzen zien Kataluniako hizkuntzalariei.

Arrazoin guztion eraginez, etxeok eta atzerriko hizkuntzalariek atxikimen bihozkorrez hurbildu izan dira Linguistika katalana lantzerak. *Zientzia konnotatu* hura kutsakorra gertatu zitzaieñ herbesteko jakintsuei ere. R. Shädel-ek Saroiñhandy-k eta Meyer-Lübke-k edo zenbait atzeritar elkartek (Société de Dialectologie Romane, The Anglo-Catalan Society, Société de Linguistique Romane, Associació Internacional de Llengua i Literatura Catalanes nahiz Col·loquis de Català/Estrasburg 1968, Amsterdam 1970, Cambridge 1973, Barcelona 1976) aztertu nahi duten hizkuntzaren herri mintzatzailea ere maite dutelako sartzen dira Linguistika katalanera. Zientzia arrazoinak eta arrazoin politikoak dira kasu hauetan ere eragile.

## Ondoriobidez

Liburu honetan jaso den hitzaldiak, Barcelona-ko Unibertsitateari, etor zitekeen autonomiaren atarian, galdera bat aurkeztzen zion: *zientzi gizoneti eta instituzioeti zein jarrera etiko eskatzen zaie etnia zanpatu batetan lanegin behar dutenean?*

Historiaren azterketa, belaunaldi bakoitzaren ikasbide eta eskarmentu argigarri izan liteke, eta Badia-arentzat, zalantzarik gabe, Kataluniako Linguistikaren historia halakoxea da, eredu bat. Honelako zientzia «politiko» bat arriskugarria da zientzi objetibutasunarentzat; baina, arrisku eta guzti, zientzia konprometatu hori da bakarrik posible testuinguru berezi horretan (*si no haguéssim fet ciència connotada, ens hauriem quedat, simplement, sense ciència*, 75 or.).

Euskal Herriari, hainbat metodologia ikasi eta hainbeste lan serio hasteko daukagun herri honetan, panfletukeria hain arrisku hurbila dugun sorterrri honetan, guk ere zientzia konprometatua beharko dugu, ez alderdien esanetara jarria, baina bai herri nortasun zapaldu honen zerbitzutan egina.

J. I.

<sup>1</sup> BADIA I MARGARIT, Antoni M., *Ciència i passió dins la Lingüística Catalana moderna*. Barcelona, 1976.

# Puebla 79

Manolo Pagola

Urte honen urtarrilaren 27tik otsailaren 13 arte Mexiko-ko Puebla-n CELAMek (Conferencia del Episcopado Latinoamericano) bere hirugarren konferentzia orokorra ospatu zuen. Bigarrena, orain hamar urte, 1968an, Medellin-en izan zen. Eta lehenengoa, 1955ean, Rio Janeiro-n. Iazko urrian egitekoa zen bilera nagusia; baino Paulo Vlaren eta Juan Paulo laren heriotzak atzera arazi zuen.

342 lagunek parte hartu zuten. Gehienak apezpiku ziren; 23 errepubliketako konferentzien 138 ordezkari. Gainerakoak, sekular, erlijiosoen delegatu, teologo, Erromatik zuzenean izendatutako 12 apezpiku, eta Aita Sainduaren ordezeko batzu ziren.

## 1. — Gertakizunaren garrantzia

Munduaren zilborra dela sinistuta (dotorezia apur batez nahi bada, «etnozentrismoa» esaten zaio gaur horri) eta erlijioaren uretatik aspaldi samar pasata dagoela uste duen europarrari, bost ajola zaio Ameriketako urrutian ehundaka pare bat apezpikuk eta gisako beste edonork esan dezaketena. Errealitatea besterik da, ordea. Medellin-ek eragin ikaragarria izan zuen. Eta beste horrenbeste espero da Puebla-tik. Hala ulertu du Aita Sainduak. Medellin-era Paulo VIa joan zen. Juan Paulo IIa, berriz, Puebla-ra. Eta hala uste du beste zenbait jendek

ere, bere botere ekonomiko-politikoa kolokan jar zezakeela somatzen zuenean. Oraintsu hil den Nelson Rockefeller-ek, Ipar Amerikako inbertsionista haundien ordezkariak honela zioen 1969an: «Hegoamerikako Elizak Medellin-en hartutako erabakiak betetzen baditu, gure interesek asko galduko dute». Ez du adierazten besterik Puebla aurretik latinoamerikako eskubiak «Sozialismoaren aldeko kristauen» eta «askapenaren teologoen» aurka egin zuten kanpainak.

Gure arteko prentsan ez du toki haundirik izan Puebla-k. Aita Saindua Mexiko aldetik ibili zen bitartean, beti bezala, alderdirik ikusgarri eta nabarmenenak eman zitzaizkigun. Baina Puebla-ri ez zitzaion erakarmenik eta biperminik aurkitu.

Aita Sainduaren ibilaldia beraren berri ematerakoan ere motz gelditu zen, Espainiako telebista, Frantziako, Alemaniako eta Italiakoaren aldean, *Le Monde* egunkariak emandako datuetan, behintzat. «Madre patria», «naciones hermanas», «hispanidad» eta horrelako mitoak ez dira nonbait aski arrazoi izan.

Garantziaren lekukotzat beste datu asko gogora daiteke. Hara bi: Munduko katoliko guztien ia erdia (%43) eta apezpiku guztietatik hirutik bat Latinoamerikan dago.

## 2. — Medellin-dik Puebla-ra

Medellin haize bolada indartsua izan zen Latinoamerikako Elizarentzat. Injustizia sozio-ekonomiko-politiko lotsagabeen salaketa ausarta eta kupidarik gabea egin zuen. Gizarte egoeraren larriak batetik, Kontzilio amaitu berriaren optimismoak bestetik, dinamismo bortitza eman zion Eliz ekintzari. Iniziatiba berriak, injustiziaren kontrako borrokara deitzen duen ebanjelioaren irakurketa, ebanjelizaketaren sakonketa, erreflexio teologikoaren berrikuntza bultzatu zituen Medellin-ek. Gazte eta arin abiatu zen Eliza. Baina Elizak nahi zuen fraskotasun berri hori asmo eta itxaropen besterik ez zen.

Zertan gelditu zen? Itsasoa eskukada batetan biltzeko arriskuz bada ere hau esan daiteke: Eliz barruti eta parrokia askotan, talde eta elkarte bizi eta kezkatuak sortu dira, «Oinarrizko Eliz komunitateak» deritzanak batez ere; Fededun ugari borroka sozio-politikoan sartu da, fedea eta ekintza teoriarik eta praxiarik uztartuz; sekularrek esku hartze haundiagoa dute orain Eliz lanean: katekesian, liturgian, organizazioan; «martiriak» eta «pertsegituak» ugalduta egin dira.

Baina guzti hau ez da liskar, tiradura eta inoiz etenik gabe gertatu. Marxismoaren beldurra, arazo teologikoak, apaizgoaren eta jerarkiaren irudiari buruzko arazoak, zenbait apezpikuren herriarengandik urruntzeak, elizaren demokratizapena, etab. izan ziren hainbat talde, teologo, apaiz eta kristau lider apezpikuekin muturka jartzera eramán zituztenak.

Hierarkiaren sail baten gogortzearekin batera gertatu zen, «Seguritate Nazionalaren» ideologiaz eta estrategiaz, Hegoamerikako estaturik haundienak (Brasil, Txile, Argentina, Uruguay) eskubiko diktadura bilakatzea.

Batzuen radikalismo eta desbideratze ideologikoarekin eta beste eskubikoen pertsekuzioekin, ikaratu egin zen Eliza ofiziala, hainbat tokitan. Berrikuntzarako eta gizarte aldaketarako joera alai eta bizkor hura moteldu egin zitzaion; edo fretoa bota zion. Apezpiku eta kristau «zuhurrago» bihurtu ziren. «Askapenaren Teologia» ez zen teoria teologiko arriskutsu eta eztabaidagarria bakarrik, delito politiko ere gerta zitekeen.

CELAMen batzorde eta karguen berritzeko ordua iritxi zenean, Medellin-go mugimenduaren bizitasuna frenatzeko jende modua aukeratu zuten. Idazkari bezala, hain eztabaidatua izan den Alfonso Lopez Trujillo, Medellin-go artzapezpikua jarri zuten.

Zuzendaritza berri honek ekin zion Puebla-ko konferentziaren prestaketari. Medellin-goaren aurkako erreakzioa zetorrela salatu zen. Ez zen horretarako arrazoirik falta.

### 3. — Erreakzioaren prestaketa?

Lopez Trujillo eta honen taldea bekoz eta deskonfiantzaz onartu zituztenak ez zeudela hain oker Puebla-ko konferentziarako prestatu zuten kontsulta dokumentuan ikusi zen. 1977 urtearen abenduan zabaldu zuten, apezpiku guztien artean, eliz barruti eta kristau elkarte mailan azter zezaten. Protesta asko sortu zen, eta ez talde radikalizatuenen partetik bakarrik. Apezpiku talde osoek agertu zuten beren konformidaderik eza. Hala nola Brasil-go ipar eta erdi aldekoek, Panama, Costa Rica, Mexiko, eta Peru-koek.

Gauza askoren artean zera egozten zitzaion kontsulta dokumentuari: Latinoamerikako errealitatearen beltza zuritu nahia; eskubiko errejimenean ideologiaren onarpenean; diktadura militarreko fatalismoa; ikuspegi historikoaren falta; indigenen eta beltzen marjinazioaren isiltzea; sozialismoaren eta kapitalismoaren al-

ternatiba bezala «hirugarren bide» ezinezkoa proposatzearekin kapitalismo erreformatua baiezte; Elizaren eragin historikoa- ren ikuspegi triunfalista; Elizaren pertsekuzio berrien isiltzea; Askapenaren Teologiaren ukapena; Elizaren dotrina sozialaren sakralizazioa; Europa; kutsu gehiegia; formulazio retorikoa. Gauza asko, bada. Orduan sortu ziren slogan gogor haiek. «El documento de Puebla no es del pueblo» eta «Si el pueblo no está en Puebla, Puebla no llega al pueblo» etab.

Dokumentu txarraren alde ona horixe izan zen, jendea mugiaraztea, erreakzioaren arriskua garbi uztea. Protestaren haundiak eta zabalak behartu zituen CELAMen buruak, bigarren redakzioa arras hobetua egitera.

Horrekin ez ziren kezka, deskonfiantza eta beldurrak uxatu. Era batean edo bestean atzera joko ote zen susmoa zegoen bazterretan. Ez zen hori susmo gaiztoren asmaziorik. Pentsa Askapenaren Teologiaren jarraitzailek burutsu, serio eta sakonek ez zirela perito bezala hautatuak izan; eta, bide batez, hauen kontrako prentsa kanpaina gogorra eta masiboa egin zela.

Bien bitartean Paulo VIa gizarajotuta, eskastuta, hil egin zen. Eta atzetik joan zitzaion Juan Paulo Ia ere. Medellin-go mugimenduaren kontrako erreakzioaren beldur, batzuek Puebla-ko konferentzia urte pare bat atzeratzea pentsatu zuten. Baina Juan Paulo IIak aurrera! esan zuen.

#### 4. — Juan Pablo Ila Mexiko-n

78ko urrian egitekoa zen konferentzia 79ko otsailera atzeratu zenean, eta Aita Saindua bera joango zela jakin zenean, bi gauza ziren Puebla-ko ekintza osoa zalantza-balantzaz jartzen zutenak: 1) Aita Saindu poloniar honek, hain nortasun eta erabakimen handiko gizonak, zein eskuhartze izango zuen Puebla-n? Hamar urteren buruan sortutako inizatiba, saio teologiko, berrikuntza eta ahaleginak kolpe batez desegino al zituen? Puebla-k izango al zuen askatasunik aski lanerako? Edota 1960ko urtarrean Erromako Sinodoarekin egin zen bezala eta Kontzilioa- rekin egin nahi izan zen bezala dena aurrez erabakita eramango zen? Gauza ezaguna da Erromako sinodo horrek ez zuela inolako eraginik izan, baina Kontzilioa nahi zuen bezala bideratzerik ez zuela izan Batikano-ko kuriak. 2) Zertara dator Puebla? Medellin ukatzera?

Joan zen, bada, Aita Saindua Puebla-ra eta bota zuen bere



diskurtsoa. Luzea, trinkoa eta ñabardudaz betea. Eta kontrako erreakzioak piztu zituen.

Batzuek Askapenaren Teologiaren ukazioa eta kondena ikusi zuten. Hala erabaki zuten presaka batean *The New York Times* eta *The Times* egunkariak. Berdin erabaki zuen Euskal Herriko Elizaren jipoiemaile zorrotza bihurtu den Madrilgo *El País* egunkari hutsezinak, otsailaren bateko editorialean.

«En el discurso inaugural de la Conferencia episcopal de Puebla, pronunciado por Juan Pablo II, el tema central no ha sido el de ese Cristo liberador de la injusticia, sino, por el contrario, el de las desviaciones doctrinales y pastorales de esa teología de la liberación, y éstas han sido condenadas con un tal énfasis y tan sin la debida comprensión para la situación de terrible injusticia del continente, que cualesquiera que sean ahora las matizaciones que puedan hacerse parece que el principio mismo del cristianismo, incompatible con las injusticias y promotor de justicia, y el de Cristo liberador es el que ha sido liquidado».

Eta aurrerago:

«Pero ¿ha ido Juan Pablo II a México a inaugurar una exposición de crisantemos, como suele decirse, y a ver bailar el folklore azteca o más bien a dar una respuesta de la Iglesia católica al inmenso desafío de un continente donde las gentes mueren de hambre?».

Diskurtso horrek, ordea, bestelako interpretaziorik ere amestitzen du nire ustez. Askapenaren Teologiaren eskemarik erabili ez arren, hitzaldiaren hirugarren zati osoa justiziaren aldeko borrokaren eskabide beroa da, injustizia askoren salaketa. Jabego pribatuaren gain hipoteka soziala dagoela dio. Behin eta berriro esaten da Jesukristorena, askapen osoa, «integrala» dela.

Zentzu horretan interpretatu zuen, bat aipatzeagatik, *The Washington Post* egunkariak. Irakurketa positibo honen alde agertu ziren, Puebla-ra ofizialki ametitu ez, baina apezpiku batzuek beren kontseilari partikular bezala eraman zituzten Askapenaren Teologiako pentsalari haundienak. Horregatik *Comunidades Cristianas Populares* aldizkaria *El País*-en editorialearekin identifikatzen denean, azkarregi ez ote den ibili pentsatze-koa da.

Hala ere *El País*ekin galde daiteke zergatik Aita Sainduak ez zuen aipatu Elizaren pertsekuzioa: bahiketak, torturak, gartzelak, hilketak, atzerriratzeak.

Puebla-ko apezpikurik aurrelarienak ere Aita Sainduaren hitzek

bideak irekita eta zabalik uzten zituztela ulertu zuten. Eta horretaz dudarik inori gelditu bazitzaion, CELAM-en buruak, Lorscheider kardenalak, egin zuen hitzaldiak uxatu zizkion.

## 5. — Biltzarrearen lanak

CELAM-en idazkariak ongi eta zehatz antolatuta zeukan Konferentzia. Honen lehen eginkizuna izan zen bere burujabetza gordetzea. Horixe nahi zuen bai gaien hautaketarako, bai hauen azterketarako. Garrantzizkoa izan zen, baita, «Comisión de Articulación y Empalme» zeritzana, alegia, batzorde guztien lanak batzeko eta koordinatzeko taldea, presidentziak hautatu beharrean, denen artean izendatzea lortzea. Brasilgo apezpikuak izan ziren askatasun honen alde gehien lehiatu zirenak.

Urrats hauei esker eta Puebla-ko ateetatik kanpora gelditu zen Teologo taldearen lankidetzaren extraofizialari esker, uste zitekeen baino itzaropen gehiagoz begiratzen hasi ziren lehenago kopeta zimurtzen zutenak ere.

Lopez Trujillo-ren kaskagorkeriak bere gerra partikularra egin ahal izan zuen. Zazpi kazetariri Puebla-rako karneta ukatu zitzaion. Hauen artean *Ecclesia*-ko Saturnino Rodríguez-i eta *Vida Nueva*-ko Teófilo Cabestrero-ri. Bi berriemaileon kritikak eta eritziak ez zitzaizkion nonbait gustatu, eta «objetibitate eta seriotasun faltagatik» kanpoan utzi zituen beste bostekin.

López Trujillo jauna beste «affaire» itsusi batetan ere agertu zen. Hilabete batzuei aurretik Luciano Cabral Duarte apezpiku brasildarrari eginiko gutun pribatua argitaratu eman zuen *Uno más uno* egunkari mexikanoak Konferentziaren lehen egunetan, otsailaren 1ean. Gutun honetan ez du oso toki onean jarzen Pironio kardenala. Baina batez ere Leonardo Boff, frantzizkotar teologo brasildarrari erasotzen dio. Gainera CLAR deritzan Latinoamerikako erlijiosoen organismoari ekiten dio, eta apezpiku batzuen hautaketarako azpijoku eta eritziak agertzen. Gutunaren kaleratzea Trujillo beraren errua izan omen zen. El-karrizketa egitera etorri zitzaion kazetari bati prestatu zion casettean grabatua omen zeukan gutun hori beste batzuekin batera...

Batzarrean eritzi desberdinak daude. Salbuespenak salbu, irekiagoak dira Brasil, Peru, Txile, Ekuador, Panama eta Zentroamerikako ordezkariak. Itxiagoak, Argentina, Kolonbia, Benezuela,

eta Uruguay-koak. Helder Camara, Proaño, Candido Padin eta antzekoen ondoan daude Primatesta, Henríquez eta Aparicio. Azkeneko hau San Salvador-ko konferentzia episkopalaren buru da. Eta ez zen bere teatrotxoak egin gabe geratu. Konferentziaren azken egunean, goizeko gorespenetako hitzaldian, ikaragarrizko sermoi apokaliptikoa bota omen zuen, askapenaren teologoak, Medellin-go mugimenduko zenbait jarraitzaile, apaiz, erlijioso eta sekular, marxistatzat, iraultzailetzat eta biolentziaren suemaitetzat salatuz. Protesta gisa, bost gotzaiek altxa eta hanka egin zuten elizatik. Tirandurarik izan zenik ezin uka. Puebla-ko dokumentuan espreski sarri samar aitortzen da Latinoamerikako Elizan dagoen tentsioa eta eztabaida.

Konferentziak gogor egin zuen lan. 21 batzordetan banatuta aurrena, batzarre orokorretan gero. Konferentziaren aurreko bi redakzioez gain, beste hiru egin ziren. Lehenengoa lur jota gelditzeko modukoa omen zen. Txarra. Zuzenketa eta eztabaida askoren ondoren otsailaren 13an onartu zen Puebla-ko dokumentua. Textuak ez zuten ofizialtasunik Aita Sainduak onartu bitartean. Juan Paulo IIak erredakzio maila hutseko zuzenketa batzuren ondoan martxoaren 23an izenpetu zuen, ofizialtasun osoa emanez.

Puebla ez zela anti-Medellin izango konturatu zenean, esku-biko prentsak berriz asi zuen bere gerra. CELAM-eko marxista sotadunei eta komunista disfrazatu denei beren mozorroa kendu nahi zien. Irratiz, egunkariz eta aldizkari dotoretan eginko salaketa horietan bereziki Askapenaren teologoak jo nahi zituzten.

Hara giro honen adibidetxoak. Enpresarioen koordinakuntzako kontseiluak prentsa aurrekoa prestatu zuen Puebla-n, Hostal de Velasco, XVIII mendeko etxe bikainean. Han bildu ziren injeniero, enpresario, beren emazte dotore eta alaba pinpirin eta guzti. Sinistu ezinekoak esan zituzten. Aita Sainduaren bedainkapena lagun —honek Askapenaren teologoak garbi kondenatu omen zituen— marxista eta iraultzaile guztien ehizean aritu ziren. Harrapatutako mamu horietan ezkututzen ziren Satanasen seme galtzagorri komunistak hauk ziren: Arns, Proaño, Padin, Landazuri etab... Biharamonean, *La voz de Puebla* egunkariak izenburu hau jarri zion prentsa aurreko bildumari: «*Daña la Empresa Privada la Teología de la Liberación*». Eta seguruenik arrazoiz zuen...

## 6. — Puebla-ko dokumentua

Puebla-ko lanen gai nagusia hau zen: «Ebanjelizaketa Latinoamerikaren orain eta geroan». Hain gai zabalari buruz derri-gorrezkoak dira eritzi desberdinak. Aurrera joko bazen elkarri amore eman behar. Kontsensusa.

232 folio, 8.000 eta piko hitz dituen dokumentuan bat etortzea ezinezkoa da. Gehienak gustora samar gelditu ziren. Ivo Lorscheider —kardenalaren lehengusua— konforme dago %90; Proaño, %60; Padin, %80. Eskubi muturreko Primatesta, Brandao, Aparicio eta konpainia berdintsu mintzatuko lirateke, bestelako arrazoirengatik bada ere.

Askapenaren teologoen, baztertuta gelditu zirenek ere, positiboki epaitu dute dokumentua. Optimista agertu dira Leonardo Boff, Segundo Galilea, Jon Sobrino, Sergio Torres, Javier Jiménez. Bidezkoa da, ordea, erabat konforme ez egotea. Baten eritzia jasotzekotan, Boff-ena:

«Si Medellín fue el bautismo de nuestra Iglesia consagrada a los pobres, a su organización en comunidades de base y a su liberación, creo que Puebla ha sido la confirmación. Los temas básicos han recibido un tratamiento aceptable, como un análisis más estructural de la realidad, como un sistema y no como un conglomerado de hechos sin conexión entre ellos, la temática de las comunidades de base, la opción preferencial por los pobres, y el compromiso con la defensa de la dignidad humana?».

Boff berak zioen bezala, dokumentu honen baliorik haundiena ez dago bere kapituluetan, Latinoamerikako lau sahitsetan haren prestaketak sortu duen pentsaketa, ahalegin eta animikan baino.

Praxi horren arabera, kontrako ulerpenak izango ditu dokumentuak. Praxia izango da textu horretako baiezen, ukazio, errepikatze, isilune, ñabardura, errezelo eta esperantza guztien epailea.

Puebla-ko dokumentuaren balorapen orokorrik egiteko asmorik gabe, eta garrantzizkoenak direla esan gabe ere, handik eta hemendik azpimarkatu diren gai batzu aipatu nahi ditut hemen.

### a) Latinoamerikako herriaren eta Elizaren egoera

Lehenengoa da askorentzat, Latinoamerikako errealitate beltzaren analisi zorrotza alegia, dokumentuaren zatirik bikainena. Kapituluaren izpiritua zein den pasarte honek adierazten du:

«Desde el seno de los diversos países que componen América Latina, está subiendo hasta el cielo un clamor cada vez más tumultuoso e impresionante. Es el grito de un pueblo que sufre y que demanda justicia, libertad, respeto a los derechos fundamentales del hombre y de los pueblos.

La Conferencia de Medellín apuntaba ya, hace poco más de diez años, la comprobación de este hecho, con estas palabras: «Un sordo clamor brota de millones de hombres, pidiendo a sus pastores una liberación que no les llega de ninguna parte».

El clamor pudo haber parecido sordo en ese entonces. Ahora es claro, creciente, impetuoso y, en ocasiones, amenazante» (n. 49).

Egoera samurtu orde, gaiztotuz doa dokumentuan sarri esaten denez. Hona datu batzu, Banko mundialak emandakoak: 280 milioi gizonetatik 120 (%43), miseria gorrian («pobreza aguda») bizi dira. 150 milioi ez du edateko urik isurgin-bide sarerik eta elektra indarririk. 100 milioi analfabeto dira. Ehunetik bat eta erdik amaitzen ditu bigarren mailako ikasketak. 1978an milioi bat haur hil dira behar bezalako jateko eta bizinguruaren faltaz.

Latinoamerikan eskulanak, Ipar Amerikan kostatzen denaren %10 bakarrik balio du. Inbertitzen duten dolare bakoitzeko zazpitik hamalaura eramaten dute multinazionalak. Gainera egoera politikoa zitaldu egin da. *Amnesty International*-ek ateratako kontutan, CELAMI ofizialki jakin arazi zioenez, 17.000 preso politiko daude gartzelatan pilatuak; eta 30.000 dira desagertutzat jotzen direnak. Atzerriratuak, zenbat ote dira? Espainiara etorritakoak bakarrik 200.000 ba omen dira.

Puebla-k ondo aztertu ditu neokolonialismoak Latinoamerikari ezarri eta lepoa estutzen dion kate ekonomiko, teknologiko, sozial eta politikoaren izaera estrukturala. Alabaina argiago salatzea nahiko zukeenik ez da falta.

#### **b) Pobreen aldeko aukera hoberitzia**

Errealitate horren danbatekoa izan zen Eliza pobreen aldeko aukera egitera Medellín-en eraman zuena. Medellín-go izpiritua Puebla-n gartzelatuko ote zuten beldur zirenek pozaren pozez hartu zuten, «Opción preferencial por los pobres» zeritzan dokumentuaren zatia. Nazaretoko Haren antzera Elizak ere zergatik pobreenekin batu behar duen, eta zertarako egin behar duen hori esaten da. Pobreak zeintzu diren izen eta guzti dio: indigenak, beltzak, laborariak, langileak, hiri haundien hauzoetara

bizimodu hobe baten ametsez pilatu diren marjinatuak, eta batez ere talde guzti hauen arteko emakumeak.

Elizak hauen ebanjelizaketari eta miseria horren kontrako borrokari lehentasuna ematen dio. Miseria Ebanjelioaren aurka-ko bezala kondenatzen du; pobrezia sortzen duten mekanismoak ezagutu eta salatzen konprometitzen da; beste elizetako eta taldeetakoekin borroka honetan kolaboratzera; langileen esku-bideak defenditzera: kultura indigenak errespetatzera.

Hau dena praxian jartzen hasi orduko etorriko zaio egurra gainera. Dagoeneko etorri zaion bezala.

#### **d) «Martiri» berriak**

Eta harritzekoa horixe da. Pobreen aldeko aukera hoberitzi horren bidetik gehien arriskatu dutenak gehiago ez baloratzea. Milaka dira ondorio latzak jasan dituztenak. Azken hamar urte hauetan, Medellin-dik Puebla-ra bidean, apaizetatik bakarrik 800-dik gora izan dira atzerriratuak, torturatuak, gartzelatuak, hilak.

Dokumentuak bi hiru aldiz aipatzen du pertsekuzio hori. Baina balorapen teologiko sendoagoa eta garrantzi gehiago ematea eskatzen zen alde askotatik. Arazo hau Puebla-rako prestatu zen lehen Kontsulta-dokumentuaren kritiketan agertu zen. Baina Aita Sainduak ez zuen garbiegi hitzegin honetaz; eta Puebla erdi isilik gelditu da, hainbat eskabideri entzungor eginez. Hutsune honek zer esan nahi du? Martirio bideari beldur diola? Agintariak ez dituela haserretu nahi? «Martirien» hainbat ekin-tzetan anbiguotasunik ez dela falta?

#### **e) Eliza sistema eta ideologiaren gainetik?**

Aspalditik dator argibide teoriko eta praktikoa nahikorik oraindik ez duen arazo hau. Puebla-tik ere ezin zitekeen gehiago espero.

Puebla-ko dokumentuak maiz salatzen du injustiziazko egoerari, jarri nahi zaizkion alternatiben gezurra eta lilura. Alternatiba ez da kontsumismoa, materialismoa, ateismoa. Nahiko analisi finak dira, ideologia eta sistema politikoei egin dizkienak. Beharbada «seguritate nazionalako errejimenek» kapitalismo inperialistarekin dituzten harremanak ez dira ematen. Honek haiekin zerikusirik ez ote duen inpresioa ematen da, ideologiak hiritan banatzerakoan: liberalismoa, komunismo marxista eta «Seguritate Nazionalaren doktrina».

Baina Ebanjelioaren izpirituak eraginda kritika horiek egi-

ten dituela dioenean, eta sistema guztien gainera egon nahi duela eta bere altxor propioak ateratako inolako alternatibarik ez diola inori ezarri nahi, eta «libre gelditu nahi duela elkarren kontrako sistemen aurrean, gizonaren aldeko aukera soilik egiteko» (n. 403) aitortzen duenean, *de facto* non kokatzen da Eliza? «Ez Ebanjelioa ez handik datorren doktrina edo Irakaspen soziala dira ideologiarik» deklaratu du Puebla-k (n. 400). Nola esan dezake Doktrina Sozialaren baitan dauden gizarte modelu, hautapen politiko, balorapen etiko, kontseilu praktikoko izpiritua- ren eta Ebanjelioaren fruitu huts direnik, eta aitortzen diren edo ez diren interes eta ideologiaren kutsurik ez duenik?

#### f) Oinarrizko kristau elkarteak

Dokumentuaren aztertzaileek aho batez diote Puebla-ko Konferentziaren ondorioz interesgarrietakoa Oinarrizko komunitateen onarpena izan dela. Dokumentuan «Comunidades Eclesiales de Base» eta «Comunidades de Base» deitzen zaie. Gure artean, berriz, «Comunidades Cristianas de Base» bezala dira ezagunagoak.

Puebla-ko dokumentuak laudorioz eta irripartsu begiratzen du fenomeno hau. Elkarte hauen ugaltzea eta indarra «itxaropen eta alaitasun motibo» da. Fenomenoaren garrantziaz jabetu daiteke, Brasil-en bakarrik 150.000 Oinarrizko Komunitate ba- daudela kontu eginez gero.

Bizitasuna, herriaren ezaguketa hurbilekoa, fede sakontasuna eta heldutasuna, lider erlijioso eta katekista bokazioak, pobreekiko kidetasuna, zapalketaren kontrako borrokarako sua ematen dio Elizari Oinarrizko Elkarte hauen fenomenoak. Elizaren Elkarte osoarengandik eten eta ghetto radikalizatu eta ideologizatu marjinatu bihurtzeko arriskuak salatuz bada ere, Puebla-k oinarrizko komunitateei eman dien oneritzia eragin haundikoa gertatuko da Latinoamerikan.

### 7. — Medellin-go apustua, Puebla-koa

Hitzak hitz eta teoriak teoria, praxian jokatu da Puebla-ren etorkizuna. Latinoamerikako errealitatearen erronka garrantzari erantzunez, Medellin-en hasi zuen apustua Elizak. Atsedendia eginez orduan ekindako lanari indar berria eman nahi izan dio. Batzuek uste eta nahi zuten, apustu horretan ausart eta bular- tsuen jokatzeko ari zirenak deskalifikatuta geldituko zirela. Baina

ez zaie konfiantzarik kendu. Orain ikusiko da apustua bideratzeko emandako kontsignak zuzenak ala okerrak izan diren. Gogorra izan da orain arteko jokia. Asko dira hautsitako hankak eta zartatutako eskuak. Azken hamar urteetan bakarrik 20.000 bat apaizek utzi omen du apaizgoa. Bostetik bik utzi du, beraz. Odol hustutze haundiegia agian. CELAM-en zuzendaritzak ez dakit hauzia erreztuko duen. Martxoan Caracas-en egin zen bileran Alfonso Lopez Trujillo CELAM-en presidentetzat aukeratu zuten lau urtetarako. Gauza jakina da asko zirela gizon hori botilero bezala nahi ez zutenak.

## **8. — Eliza Puebla-ra begira**

Europako teologoak eta hauen Elizetako esperentziak izan ziren Batikano bigarrenaren bultzagile. Ordutik Alemaniara, Frantziara, Holandara begira ari gara. Europako Elizen bizitzari eta teologiari ikaragarri zor diela Eliza osoak batere ukatu gabe, honez gero beste nonbaitera begiak zuzentzeko ordua etorri ote den nago.

Ikusirik Europako Elizen gainbeherakada, gure Eliz instituzioen pisua eta kristau taldeen inizatiba berrien eskasia batetik, eta Latinoamerikako Elizen gaztetasuna, haien sormenaren freskotasuna teologian eta pastoraltzan, haien pertsekuzioak eta fede martiriala bestetik, Elizaren zentrua Europatik Latinoameriketara joan ote den susmoa sortzen zaio bati. Hango berrien, esperentzien zain adi adi egon beharko dugu aurrerantzean.

## **9. — Puebla-tik Euskal Herrira**

Puebla-ko esperentzia jarraitu ondoren, etxekoa gogoratzen zait. Eta galdetuko nuke Euskal Herriko errealitateak ez ote duen berezitasunik aski gaur, nahiz Frantziakoarekin eta Espainiakoarekin konparatuz nahiz orain arteko historiara begiratu, planteamendu berri eta sakon bat egiteko ordua etorri zaiola Euskal Elizari pentsatzeko. Ez ote zaio gero Euskal Herriko Elizari apustu historiko bat egiteko ordua heldu? Atzokoaz oroitu, gaurkoaz jabetu eta biharrari aurea hartzeko ordua. Bere historiaren azterketa objetiboa egin, Euskal Herriari egin dion on eta kaltea baloratu; egindako okerragatik, eta batez ere egin ez duen onagatik samindu. Nik dakidala ez du horrelakorik sekula



egin euskal Elizak. Bigarren urratsa litzateke gaurko Euskal Herriaren eta Elizaren poz eta saminak (sozialak, politikoak, kulturalak eta erlijiosoak) ezagutzea eta maitatzea. Horrela etorkizunerako dinamika eta abiada berria hartzeko gauza izango litzateke, Jesukristoren mezuak euskal gizonari eta Euskal Herriari zerbait esan dezaion.

M. P.

## Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak

Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarreko Adierazpenak, bere 5. puntuan, honela dio:

«Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar dira uste du —Euskaltzaindiak—, ortografia eta hizkuntzaren azpiegituraz zainduz».

**Agiriaren beharra.** — Maiz entzun eta irakurri ohi da Euskaltzaindia euskara batuaren alde eta herriko euskararen eta euskalkien etsai bihurtu dela. Euskararen batasuna helburu bat guztiz opagarria izanik ere, horren aurretik daudela euskalkiak; beraz, horietatik hasi behar dela. Batasuna azkeneko eta urruneko jomuga besterik ez dela, eta jomuga hori euskalkien bidez eta euskalkietan barna bilatu behar dela, etab.

Horiek hola, beharrezko gertatzen zen oinarritzko hauzi honetan Euskaltzaindiak bere jarrera eta aburua ager zezan. Eta hain zuzen, hori egin nahi izan du Adierazpeneko 5. puntua eman duenean eta bai horren segida eta hazkunde den gaurko Agiri hau ematean ere.

Adierazpen horretan tokian tokiko hizkerak eta euskalkiak aztertu eta landu behar direlako ustearen alde jartzen da Euskaltzaindia. Beraz, bego hau argi eta garbi eta goraki aitortua.

Bi eraskin edo baldintza ipintzen dira, halaz guztiz —beharrezkoak baitira, euskalkien lantze hori onerako, eta ez kalterako, gerta dadin—: 1) Ortografia, eta 2) Hizkuntzaren azpiegitura zaintzea.

**Ortografia bakarra.** — Ortografia zaintzearen ohar horrek ez du esplikazio handirik behar. Euskara hizkuntza bat da, eta ez hizkuntza asko. Hizkuntza osoarentzat ortografia bat onartua denez gero, begien bistan da ortografia bakar hori erabili behar dela bai euskalkietan eta bai euskara batuan ere.

Ez dira, bada, arrazoizko inoiz entzun ohi diren argudioak: «Euskalkietan idazten denean H letra ez da erabili behar: hori euskara baturako da». Edo: «Euskara batuan bustiduren grafiak ez dira jartzen, baina euskalkian bai». Etab.

Hizkuntzaren barnean ortografia bat baino gehiago erabiltzeari kaltegarri deritza Euskaltzaindiak. Hori da, gainera, euskalkiak eta euskara batua hizkuntza desberdinak bezala jotzea.

Honekin ez dugu ukatu nahi, bestalde, salbuespenak egon daitezkeela. Adibidez, linguistika lanetan eta toki jakin bateko euskara den bezala jaso nahi denean bidezko izan daiteke H ez jartzea, edo Z eta S ez bereztea, bustiduren grafiak jartzea, etab. Orobat, herri mailako literatur mueta batzuetan H ez erabiltzea edo puntuazio marka berezi batzuk jarri behar izatea gerta daitekeena da, eta Euskaltzaindiak ez du deus horren kontra. Beste arrazoi berezi bat ere bada bertsolaritza, dagoen horretan, alegia, bere fonetismo guztiekin, argitaratzeko. Bertsolaritzak ahozko hizkera baitu bere oinarria; eta hitzak gramatikatzen hasiz gero, neurria eta puntua galdu egingo lirakeke askotan. Baina lege orokor bezala honako hau hartzen du Euskaltzaindiak, oinarritzko baita, hots: Euskara hizkuntza bat dela eta ez hizkuntza asko, eta hizkuntza horretan ortografia bat bakarra behar dela, bai euskara batuan eta bai euskalkietan.

**Hizkuntzaren azpiegitura edo euskararen oinarri batua.** — Bigarren oharra berriz, honela dio: euskalkiak lantzean hizkuntzaren azpiegitura zaindu behar dela. Adieraz dezagun laburki horrekin zer esan nahi den:

«Euskaltzaindiak uste du, eta hori ez da uste hutsa zehazki frogatu daitekeen iritzia baizik, badela oraindik, lehen ere izan den bezalaxe, euskara bakar bat euskalkien ñabardurak estaltzen eta itxuraldatzen ez duena. Euskalkien eta tokian tokiko hizkeren arteko bereizkuntzak, egungo egunean ere, axaleko itxuraldatzeak dira batipat, hizkuntzaren muin sakona bere iraunkor hartan uzten dutenak. Hizkuntzaren oinarri batu hori, eta oinarri horren egitura (euskalki guztien egitura komuna), dira beti gogoan eduki behar ditugunak, gure ahaleginak euskararen batera-biderako, eta ez berezirik daudenen sakabanatzeko, izan daitezen». (Mitx.)

Ikuspegi honen arabera, euskara batua ez da bakarrik urruneko jomuga bat edo alde guztiz eginkizun den helburu bat. Aitzitik, euskara berez ere bat eta batua da, eta batasun horren seinaleak bere errailetan daramatza.

Beste hitzez esanik, euskalkiak baino lehen, eta horien azpitik edo gainetik —nahi duzun bezala—, hor da euskara batu hori. Beraz, eus-

kara batua erabat hizkera artifiziala eta asmatua delako uste hori, ez da uste zuzena. Euskalkiak baino lehen hor da euskara. Eta euskara hori helburuan baino areago abiapuntuan aurkitzen da; iraganean, etorkizunean baino gehiago. Zuhaitzek ez diezagutela basoaren ikus-bidea galeraz, otoi.

Euskalkien axaleko ñabarduren gainera hor da hizkuntzaren muin sakon eta iraunkor hori, hizkuntzaren oinarri batua, alegia, eta hori da beti gogoan eduki behar duguna, baita euskalkiak lantzen direnean ere.

Hizkuntzaren oinarri batu horretan jabetzeko, ordea, txit komenigarri da norberaren euskalkiaz gainera besteren bat ere ezagutzea eta euskara bere osotasunean hartzea. Zeren orduan, eta orduan bakarrik, ikasten baitugu euskalki eta toki bateko hizkeran aurkitzen diren fenomeno guztiak ez direla maila berean jartzekoak eta ez zaiela denei balio berdina aitortu behar. Badira, alegia, zenbait gauza euskara bakar horren agergarri eta adierazle direnak, eta badira halaber axaleko itxuraldatzeak, zoko bateko eta beranduko agerpideak, etab.

Euskalkia lantzen duenak nolabait jakin behar luke hori, hizkuntzaren oinarri batuari leialtasuna gorde diezaion. Bestela gerta daiteke —eta sarri gertatzen da gaur—, euskalkien aitzakiaz hizkuntzaren barnean hesiak geroago eta gogorrago bihurtzea, elkarganatu beharrean bat bestetik urrunduaz joatea. Eta joera zatikatzaile hori Euskaltzaindiak ez dezakeela onart esan beharrik ez dago.

Hemen ez ditugu xeheki eta bana-banaka aipatuko euskararen muin sakon horri dagozkion gauza guztiak, asko baitira. Adibide bat edo beste bakarrik jartzen dugu: deklinabide mugagabea, «a» organikoaz bukatutako hitzak, euskalki guztietan legezko den aditz jokia eta hitzurrena.

Euskaltzaindiak, bada, uste du hizkuntzaren oinarri batu horri kasu eman behar zaiola euskalkiak lantzean. Bestela hizkuntzaren batasuna arriskuan jar daiteke.

(Donostian, 1979ko Martxoaren 30eko batzarrean onartua)

## Rikardo Arregi 1942-1969

*Uztailaren 10ean hamar urte Rikardo Arregi hil zela. Eta jadanik euskal kulturaren historia hurbilean goreneta leku bat eskubide osoz irabazirik du.*

JAKINEK Rikardo gogoratzeko motibapen sakonak ditu. Lan-kide izan dugu, bere pentsaera-artikuluak gure aldezkarian eman zituen, Rikardoren proiektu asko (hala nola, Euskal Idazleen Elkarte eta editoriale modernua) ingurune honetantxe sortu ziren lehenengoz, LUR argitaletxea abiatzeko abonamendu-zerrendak JAKINETIK jaso zituen, 1968-1969 urteetan JAKINEN ardatza izan zen, zuzendariarekin eta Karlos Santamariarekin batean.

Omenaldi gisako hiruzpalau orri hauetan zer berririk esan Rikardo Arregiri buruz? Rikardo luze idatzi baita, asko hitze-gin baita. Haren pentsaera politikoa, erlijiosoa, soziala aztertirik daude, haren lanak eta nekeak ezagunak zaizkigu, haren idazlanak publikatu ditugu. Ez du merezi berriz azterketa sakonetan sartzeak. Rikardoren lanak eta eritziak hurbildik ezagutu nahi dituenak, hor ditu eskura RIKARDO ARREGI obran Alfabetatze Batzordeak, Joan Mari Torrealdaye eta Joseba Arregik egindako lanak (JAKIN sorta 3, 1971) eta hor du batez ere HERRIAREN LEKUKO liburuan Joxe Azurmendik «Hitzaurre politikoa» izenaz egiten duen azterketa luzea (JAKIN liburu sorta 6, 1972).

Gauza arin bat aurkezten dugu guk hemen. Rikardoren pentsaera-ardatzan aipamenaz aparte, testigutzak dira gebiago besteak, Rikardo adiskide, lankide eta/edo gidari izan dutenen lanak. Mikel Lasarena. Rikardo hil berri zelarik egina da (1970); gainerakoak, iaz Rikardoren Andoaingo omenaldirako prestatuak.

## RIKARDOREN PENTSAERA

Rikardoren pentsamendua nolabait adierazi nahian, ohar sakabanatu hauek prestatu ditut, J. Azurmendiren lanetik hartuak batzu, eta Rikardo beraren lanak irakurtzetik gehienak. R. Arregiren pentsaera politikoaz gehiago jakin nai izanez gero, J. Azurmendik lan sakon bat du **HERRIAREN LEKUKO** liburuaren sorreran.

Goazen harira.

— Hasteko, hau uste dut: Rikardo Arregi ez zen konformista, oso kritikoa zen, birpentsatzailea zen, ez teoriarik ez esanik bapatean onartzen zuena.

Ez zen ortodoxiazalea; nekez ortodoxoa, beraz. «Ortodoxia guztiekin nazkatuta negok» idatzi zion Joxe Azurmendiri.

1968ko maiatzean idatzi zuen hau:

«Ortodoxiaren kateak ari dira hausten eta hori erabat pozgarria da. Gizarte arazoetan ortodoxiak, immobilismoa esan nahi du. Geldiera, burokrazia, kateak, Eskolastikoen erreinua. Maisuak hau esan du eta kito».

Eta urte bereko abuztuan, ironiaz:

«Klero berri bat dugu, eliz-gizon berriak ditugu. Liburu asko irakurri dituztenak eta sozialismoaren «ortodoxiara» heldu direnak. Erabat «zientifiko» izatera iritsi direnak. Gainontzeko guztiak, beren burua sozialistatzat baldin badaukate ere, engainaturik bizi dira. Sujetibista, burges tiki edo utopiko batzuk besterik ez dira. Hori da materialismo dialektikoaren apaiz berriek diotena. Beroiek bezala behar du sozialista batek, bestela gezurretan ari da, engainamenduan bizi da...».

— Bere buruarekin errebisionista porrokatua dela, idatzi du J. Azurmendik, eta hala uste dut nik ere.

Rikardo ez zen alderdi batetan egoteko gizona. Muga zabalagoak behar zituen. Etiketa politikorik ez du: mirari bat dirudi.

Rikardo ez doa dogmaz dogma. Txillardegik bere garaian salatu zionaren aurka, ez da dogmazalea. Joxe Azurmendiren formulazioan, haren tinkotasuna ez da intolerantzia, haren segurtasuna ez da dogmakeria.

Esan dugu ez zela ortodoxiazalea. Ez abertzaletasunean, ez marxismoan. Belaunaldi berriaren aitzindari zen horretan: topikoak desegiteari ekin zitzaion, demitifikazioa lortu nahi zuen.

## Sozialismoa

Rikardoren sozialismoa nolakoa zen?

Ez dago batere garbi. Arazo nazionalaren eta arazo sozialaren artean egin duen lotura edo sintesia, ez da xehetasunez ezaugutzen: baieztapen batzuen bidez bakarrik adieraz genezake.

Gauza pare bat bai, garbi dago:

- nazio zaletasun hutsik ez zuen nahi.
- baina ez eta nazio-arazoa baztertuko duen sozialismorik. Horixe salatuko du behin eta berriz: 68ko maiatzean (gogora Paris, gogora batez ere Txekoeslobakia):

«Ortodoxiaren eta burokraziaren kate hauek haustearrekin batera abertzaletasunean indartzea da gertaera horien seinalerik nagusienetakoa.

Sozialismoak bere baitan darama nazioartekotasuna, baina, zenbait sozialisten iritzian, estatu sozialisten arteko araua nazioartekotasuna denez, honen izenean inperialismorik gogorrena saldu eta ezarri izan da taktikaren eta beharraren izenean».

Eta beste leku batetan:

«Abertzaletasuna eta rebisionismoa, hara hor gure etsaiak», zioen Moskuko irratiak Txekoeslobakiako gertaerak komentatuz. Ezin zitekeen hobeto mintza. Inperialista batentzat gauzarik okerrera eta beldurgarriena horixe bait da: mendekoak abertzale bihurtzea. Menderatzailearen abertzalekeria itsuaren aurka, menderatutakoen abertzaletasun jatorra esnatzea...».

— Rikardoren pentsaera politikoan, hitz klabea hau zitekeen: askatasuna. Askatasunagatik hautatu du sozialismoa.

Rikardoren sozialismoa definitu beharko bagenu, sozialismo humanista, Dubcekenaren antzekotzat joko genuke. Ezkertiaritasun berri baten alde agertzen da beti Rikardo.

— Txillardegik Rikardogatik *Tierra Vasca* aldizkarian idatzi zuen: «Marxismoaren ortodoxiatik eta espainol trotskismotik hurbil egon zen bolada batez...». Ez dut uste.

Formula askoz aproposagoa iruditzen zait Saizarbitoriarena (*Kultur Deia*): «Oinarrizko abertzaletasun serio eta sakona eta marxismoaren aurrean oso sensible».

Rikardok bere burua belaunaldi berrikotzat jotzen du. Eta hala da izan. Belaunaldi berri honek, haren eritzian, bi ezaugarri ditu: radikaltasuna eta sozialismoa.

Hain zuzen belaunaldi berri honen hasieran munta handiko gertakari bat dago: euskal gazteriak marxismoarekin topo egiten du. Rikardok ere izan du esperientzia hori, berak honela aitortua:

«Neronek ere aitortu behar dut nere bizitzako une bortitzenetakoak, pozez eta bildurrez betetakoak, Marx eta marxistak irakurtzen hasi nintzane-nekoak direla. Uste nuen marxismoa erabat baztertu behar zen zerbait zela, ez zuela baliorik, eta bat batean zenbat gezur esan zizkidaten konturatu nintzen, eta marxistak zenbat eta gehiago irakurri eta orduan eta zabalago egiten zitzaidan mundua, gizona eta historia...» (*Sozialismoa modan dago*).

Baina nola jasoko du marxismo hau?

Birpentsatua, noski.

Badakigu Euskal Herriko marxismoaz nolako tipologia egin zuen, eta zein joera onartzen zuen:

1. — *marxologoak*. Marxengan hasi eta buka. Eskolastikoak dira.
2. — *marxistak bigarren epean*. Euskal esentzialistak. Gero dira marxista.
3. — *sasi marxistak*. Aurreralari eta progresista izateagatik; marxismoaren artean ere ezkerrekoena aukeratzen dute. Hauentzat, marxismoa, justifikazio da.



4. — *marxismoarekiko irekiak*. Jatorrenak. Marx birpentsatu egiten dute hauek, zirkunstantzia konkretuetan. Ez dira dogmatikoak.

Berak, nere ustez, bere burua azken hauen artean ikusiko luke. On derizkiona marxismotik hartuz. Ez du, esaterako, marxismoaren materialismo dialektikoa onartzen. Honela dio:

«...traszendentzian sinesten dugunok ezin deza-kegu onartu materialismoak bere baitan duen inman-entzia hutsa, bertakotasun soilak».

Hau da sozialismoarekiko eta marxismoarekiko Rikardoren jarrera, nere ustetan.

## Abertzaletasuna

Esan dugu lehen ere: ez nazioa bazterten duen sozialismo-rik, eta ez naziozaletasun hutsik nahi du Rikardok. Biak batean bai: «Gu sozialismora abertzaletasunetik heldu gera», zioen hil baino 10 egun lehenago.

Euskal abertzaletasunean topikoak deseginaz, mitoak hautsiz hasi zen. Hortik sortu zitzaizkion etsaiak.

Abertzaletasun klasikoaren edo «zaharraren» aurka altxatu zen. Bi puntutan bereziki:

- euskaldun-fededun binomioaren aurka
- abertzaletasunaren modernutasunik ezaren aurka.

### 1) Euskaldun-fededun

Binomio honen kontrakoa zen zuzenki «Euskaltzaleen Jain-koa hil behar dugu» artikulua. Bazirudien euskaltzale izateko kristau behar zela izan, nahitaez. Joera horren kontra altxatzen da Rikardo, kristau bezala eta abertzale bezala: «Jainkoaren ideia euskal kristauok zertan zuzendu behar dugun...» dioenean, bere burua inplikatzan du.

### 2) Abertzaletasunaren modernutasunik eza

Gehiago kezkatzen du bigarren puntu honek: euskaltzaleta-suna nekazaritzari eta tradizioari lotua zegoen. Aurrera begira beharrean atzera begira zegoen abertzaletasuna.

Hau da gogorki salatzen duena: abertzaletasunak ez zuela integratu, jadanik XIX mendean hasi eta gerra ondoren hainbeste indartu den hiritartzea eta industriadzea. Desfase bat. Herria kalean bizi zen, baina baserria zen eredu.

Rikardok ezin zezakeen jasan euskaldunaren eta baserriarraren identifikazioa. Ezin zezakeen onar Peru Abarka euskaldunen pertsonifikazioa izatea.

Kalea-baserria dikotomia, urte haietan, bizi bizia zen.

Abertzaletasun modernu bat proposatzen zuen Rikardok: euskaltzaletasuna eta sozialismoa elkarrekin ezkonduko zituen, batak bestea menperatu gabe. Honetan ez zen gehiegi definitua. Horregatik, nekez esan dezakegu arazo sozialaren eta arazo nazionalaren artean zer sintesi egingo zukeen gaur hemen.

*Joan Mari Torrealdai*

## RIKARDO, KULTUR ANIMATZAILEAREN EREDU

Laket zait iduritzea (eta permiti bekit amestea) beste giro eta egoera batetan, ikasle bihurritz ingurikaturoko irakasle zuhur antzo, Euskal Herriko balizko Unibertsitate batetan, edota beste Emmanuel Mounier lez euskal «Esprit» berri bat zuzentzen... Oholdiak jandako Unibertsitateko aulki baten beharrez, gizarteak gutxietsitako mila aulki izan ditu Rikardok Euskal Herrian zehar. Eta horietatik bat, sei urte luze eta nahastuetan etengabe eramana, Zeruko Argiako politika saila. Presaka, patxadarik gabe, zuzenik makinara jaulkiaz, denbora eta ikaskizunak sakrifikatuz, astero astero eman ditu Arregik bere analisiak. Bere nortasunaren neurria hor agertzen zaigu beste inon baino ederkiago: jarraipena, analisi-joera, sintesi-indarra, didaktismo-ahalmen inbidigarria, «éclat» gabeko ekintza efektiboa. Ez genuen Euskal Herri guztian «Herriak eta Gizonak» politika sail hobegorik, ez eta erdal izparringietan ere.

Rikardo ez zen bakardadean, inguruko aide latza ezin jasanik, lan egiten duten horietakoa. Taldean maite zuen lanegitea, kultur animatzaile jator bati dagokion lez, nahiz eta taldekoek lana erraztu beharrean ugaritu egin (aipatutako politika sailean, pasadan, zerbait egina garenokin oroitzen naiz hau esatean).

Klaseetatik ateratzean baxo erdi baten aitzakian aurrez moldatzen genuen asteroko orria Rikardo beti animatzaile genuelarik, ez ideietan soilik, maiz berriketa humorea ekarriaz ere bai, edo ironia xorrotzaz baliatuz erabiltzen genuen auzi-mauzi serioak eztenkatzeko. Ez zen behinere itoko seriotasunean.

Taldeka lan egitea maite bazuen, ez zen lagunarte giroa bilatzearren soilik, zerbait ekiteko giro egokia sortu nahian baizik.

Dohain izugarria zuen jendea inguratzeko eta inguratu hutsarekin konformatu gabe taldeari nortasun berezi bat eman nahian ibili ohi zen. Askotan detaile apurrak ere kontuan zeuzkan taldearen kanpo-aldeko itxura itxurakoa izan zedin. Xehetasun-lan hauetan estilista agertzen zen edo eta batzutan gertatu zen bezala arrazoi handirik gabe taldea ez ziren besteengandik nabarmendu nahian, taldeari tankera berezi eta desberdin bat ematearren. Hain arteza bait zen antolamendu lanetarako. Baina, hori guztia jatorrizko senari jarraituz, naturaltasunarekin, bazterrak animatuz batean, atzaparrak krispatu gabe.

Kapillismoetan (hots, dilentatismo modu berezi batetan) denbora galduz aritu zela adierazi nahi ote du horrek? Inolaz ere ez. Susmo tikiena bazterrerazteko, hor ditugu Arregik bere buruz bururatu eta obratutako beste zenbait ekintza, herri mailan eta neurrian: besteak beste, alfabetatze ekintza, hitzaldiak... Alfabetatze ekintzak batez ere bere errealismoaren neurria ondo agertzen digu. Eta ez da meritu kaxkarra gaur egunean kapillismoaren tentaldiari amor ez ematea...

Azkenik, intelektual tankera baino gehiago kultur animatzaile oso batena zuen Rikardo Arregik, agian posible ez delako gaur egun Euskal Herrian intelektual hutsa izatea.

*Mikel Lasa*

## RIKARDO, GIDARI

Ez da guretzat erraz hil den eta nolabait ere euskal gizon ospetsuen luminarian sartu den adiskide batez mintzatzea. Tokia merezi zuen eta hor dago. Baina guretzat, bere oroitzapenaren inguruan gertatu den haloa trabagarri gertatzen zaigu hezur eta haragizko gizonari hurbildu nahi gatzazkion momentu honetan. Orduan ere bazuen plaza gizona inguratzen duen begirunezko kontsiderazioa baina eguneroko jardunean ondo presente genuen topiko bada ere haren alderdi gizatiarra haloetan geratzeko.

Rikardoz hitzegitea eskatzen zaigunean, lehendabizi, gezurra dirudien arren eta berarekin harreman pertsonalik izan ez zituztenek edo bere obraren bidez bakarrik ezagutzen dutenek beharbada ulertuko ez badute ere, zera datorkigu gogora: Kur-saalean *Zeruko Argiako* gure orriak zirela eta, hainbat adiskide eta lankide, oso ondo zertarako ote zen ez genekien bilera egin ondoren, pote bat hartzera joaten gineneko adiskidea. Zeren ez baitzen guztiok noizbait padezitu behar izan dugun intelektual aspergarri eta gai bakarreko horien tankerakoa. Rikardo ez zen intelektualaren karikatuta. Bizitzaren alderdi guztietan nahi zuen eta zekien parte hartzen, dantza-lekuak, tabernak eta liburutegiak testigu.

Gu txepelago giren, gehiago jo genuen literatur aldera —literatur zaletasuna txepelkeria bezala hartua izan baita gure artean zorionez ala zoritxarrez— baina beragandik ez genuen inoiz sumatu geure lanari buruzko ironiarik; horrela *Zeruko Argian* edo gero editorial bat proiektatzerakoan bera izan zen literaturak textuinguru hartan behar zuen lekua aitortu zion lehena. Rikardoren irudi hori gorde nahi dugu: Duverger-en azken artikulua irakurri ondoren hain gogoko zuen Baroja edo Sartre, Camus (oi *L'Homme revolté*), Weil eta gure material ohizkoa irakurtzen.

Langilea zen; bera izan zen nazio eta sozial arazoak uztartzen eta euskaldungoaren ideologia tradizionala astintzen hasi zena, baina hori mundu guztiak daki eta ez gara gu beharbada egokienak puntu honetaz iharduteko.

Eta ezer gutxi esateko gara gu egokiak agian zuentzat ez dakigu baina guretzat garrantzizkoena dena zera da: bera izan zela euskal kulturaren munduan sarrerazi gintuen pertsona, eta gerta-kizun horrek gure bizitzen ibilbidea markatu duela betirako.

*Ibon Sarasola — Ramon Saizarbitoria*

## RIKARDO, IDAZLE

Rikardo idazle zen batipat, eta gure problematikaren pedagogi lana idazkien bidez egin zuen batipat. Hala ere, ez zen literatu, hitz honen zentzu hestuenean behintzat.

Idazle zen, eta haren idazkietan agertzen zaigun lehendabiziko puntua, nortasun politikoa da. Idazle moietari begiraturuz gero, berriz, Rikardo kazetari zen, eta, hain zuzen ere, Lizardik gerra aurretik hasitako joera ausartari jarraitu zitzaion lehendabizikoa, ene ustez. Eta kazetaritzan adieraziak du garrantzi guztia, eta adierazlea ez da adierazia ahal den garbien eta egokien, direktoen esango genuke, emateko tresna eta traman-kulu besterik. Ez dago, beraz, Rikardorengan, halako interes eta irrikia estetikorik. Rikardok ongi zekien euskararen iraupe-na ez zegoela, lehen etapetan, estetizismoetan. Rikardok funtzionaltasun baten zerbitzuan ipini nahi izan zuen euskara. Eta funtzionaltasun horien arabera ulertu behar da zerabilen euskara.

Funtzionaltasuna, lehenik, direktoa da, fruituak bapatean jaso behar dituen. Era honetan, garbizaletasuna edo garbizalekeria sobran daude. Euskal irakurleko urriak euskaraz zer jasoko horren inguruan ihardun behar zuela euskal kazetari batek ulertzen zuen Rikardok.

Funtzionaltasunak, bigarren, errekurtsu errazak eskatzen ditu. Berrogei botoi ezberdin dituen labadora ez da funtzionala. Eta Rikardok ez zuen euskara berrogei botoi zailtako hizkuntza bilakatu nahi. Era honetan, ihes egingo zion hizkuntza beraren zailtasunari, ez ihes egiteagatik, postura bakartzat, berak zeraman lanean, hartzen zuelako baizik.

Rikardoren funtzionaltasunak ez zituen beste bide etapak ukatzen. Hain zuzen ere, esan beharra dago, eta oso garbi, Rikardo erabat irekia zegoela beste moeta batzuetako esperientziatara. Ongi jotzen zituen espresibitate berrien inguruko bilakakerak. Hala ere, eta hau ere esan behar da, ez zen Rikardok hautaturiko bidea. Lizardiren hura gogoratu beharko genuke berri-ro ere:

Bide berriak?

EZ! Bide guztiak! (*Itz lauz*)

## **Azterketa literario batetarako zenbait puntu erabilgarri**

1. Adjetibazioaren erabilera juxtua. Titularretan tamaina egoki batetan erabiltzen zituen adjetiboak. Gehiago esango nuke: Ez zuen ia behin ere adjetiborik erabiltzen. Eta titularrei buruz diodana berdin konplitzen zen bere artikuluetan ere. Jakina da adjetibatzeak juizio moeta bat dakarrela. Jakina da kazetari-tza, nahiz aseptiko ez izan, juizioen aurka dagoela, kazetariak gertakizuna irakurlearen aurrean ipini behar duela, irakurleak hauta dezan bere juizioa. Honela bada, puntu hau azterketa baten beharrean dago Rikardoren lanen baitan.

2. Kazetaritzarekin jarraituz, eta Euskal Herriko orduko unea kontutan harturik, Rikardok beste gertakizun politikoek bidez aztertzen zuen Euskal Herriko egoera. Hau da, Biafrari buruzko artikulua batetan gehiago hitzegingo zizun Euskal Herriko egoeraz Biafrakoaz baino. Zer esan nahi du honek? Faxismo garaiko lerro artean hitzegiteko beste moeta bat asmatu zuela Rikardok. Eta Rikardok asmatu-rik moeta honi gerora idazle asko jarraituko zaio.

3. Hiztegiaren kontutan, Rikardok ez du beldurrik erdal hitzak hartzeko garaian. Gogora, Rikardok bere idazkietan politikaz hitzegiten zuela batipat, baina politikagintzako hiztegia egin eta hedatu gabea zegoen garai hartan. Berak egokitu egin behar izan zuen makina bat hitz. Era honetan, hiztegi aberatsik bada bere idazkietan.

Arin-arin, hona hemen zenbait puntu interesgarri. Rikardo Arregi euskal idazle on bat izan zen. Euskarari funtzionaltasun bat aurkitzen saiatu zen. Eta euskarari funtzionaltasuna emateko, euskara hori funtzional egin behar zuen.

Horregatik eskaini zion bere bultzakada guztia euskara baturaren kontuari. Hortik ikusi baitzuen euskararen iraupena.

*Anjel Lertxundi*

## Jesus Etxezarragaren OLERKI SOLTEAK

Jon Kortazar

### Sarrera

*Olerki solteak*<sup>1</sup> Jesus Etxezarragaren lehen liburua da. Nahita nahi ez, espektatiba liburu gertatzen da: oraindik den guttia zabaldu ez duen, baina bere bereak dituen tendentzia batzu agertzen dituen olerkari baten aurrean gara.

Titulua bera da nahiko irakurleari poeta berri baten aurrean dagoen susmoa sortzeko. *Olerki solteak* izena, alde batetik, konkretutasun gabea da eta, bestetik, (liburua atalean zatiturik egon arren) estructures falta iragartzen du.

Liburua, olerki txiki batekin hasten da. Eta honek bai ematen duela argi liburuaren giroa! Sarrerako olerki honetan daude liburuaren giltza nagusiak. Nire ustez, idazlearen olerki mundua definitzen da, olerki txiki honetan, nahiz eta mundu horren definizioa oso txikia izan, olerkiaren luzerak ez bait du gehiagotarako ematen. Hau dateke definizioa:

1. — Idazlearen mundua eskaintzen da: «nire zeru ttipia», mundu horren apaltasuna aitortuz.
2. — Mundu hori Euskal Herriko ikuspuntutik begiratua izatea: «txapel haundi/beltz».
3. — Olerkiak gero pertsonal batetan sarrarazten gaitu, batez ere «nire» posesibo horren bidez.

## 1. Etxezarragaren olerkigintza

Idazlearen olerkigintza karakteristika batzutara beldu behar banu, hauexek lirateke:

Liburua, askotan, idazlearen bizitzari lotua dago. Edo, hobeto esateko, liburuaren gai nagusia Etxezarragaren bizitza da. Honela bada, poesia existenzialistaren mugetatik abiatzen da Etxezarraga. «Hitza» eta «Etorria» deituriko atalak (liburuaren barruan batasuna gordetzen duten atal bakarrak) dira diogunaren esanplu. Baina ez horiek bakarrik. «Barren haritik» deitzen badu beste atal bat, argi dago berea duela «barren» hori.

Lau ataletan bana dezakegu poesia pertsonal hau:

1.1. *Hitza* deitu atalean, olerkariak bere olerki bidegintza-  
ren norabide batzu ematen ditu. Bere olerkigintzari buruzko  
erreflexio bihurturik.

Modernista usain pixka bat duten olerki batzurekin irekitzen du liburua: metafora finez burututako poemak, baina poeta berri batenak. Hurrengoetan zabaldu egiten da hitz humil eta lotsakor hori. Bere ereduak (Lete, Lasa, Aresti eta Barandiaran) airtortzen ditu<sup>2</sup>, eta hitz poetiko horri funtzionaltasun bat ematen zaio «jakinarazi.../gure herriaren/zori gaiztoak» (15. or.).

1.2. *Etorria* atalean, poesia narratibo batetatik abiatzen da. Nik uste, «Bihotza astrillaturik» deituriko poema da liburu osoan ahulenetarikoa. Estructura paralelo ximpleegiak lirikan klabe narratiboa erabiltzeak eta paralelismoa larregi mantentzeak poema irregular bat egin dute. Aurrekoan poema salbatzen zuen tonu epikoa erabiltzen zuen. Tono epiko hau galtzarekin, behe-  
ra etorri da poema.

1.3. Etxezarragaren poesia pertsonala, inpotentzia bihurtzen da momentu batzutan. Ezin horrek existenzialista bihurtzen du horren poesia. Kontradikzioz, inposiblez, estrukturatutako poema eder batzu idazten ditu. «Saldrapo zelaiko» izan liteke horietan onena.

1.4. Poesia soziala ere ukitzen du idazleak; gure Herriaren historia diren emigrante, gudari, eta Euskal Herriko erdal herrien (Toloño) gaiak ukituz.

## 2. Etxezarragaren estiloa

Estiloa definitzea oso zaila da. Liburuan agertzen diren elementu linguistiko guztiez egina bait dago. Eta definitzeko, guz-



tion estudio zehatza behar bait genuke. Eta ez da hori, gainbegiratu eman behar duen lan baten helburua. Errazagoa dugu estiloari buruz gaisetiko inpresio bat ematea. Nirea, elementu hauen arabera da:

2.1. Etxezarragak, nahiz eta oraindik «egina» dagoen idazle bat ez izan, poemak ondo estrukturatzen ditu, idatzi aurretik poemak sakontzen dituen idazlea dugu. Erabiltzen dituen gaien sakontasunean aurki dezakegu hau. Beste arrazoi bat ere bada: poesia topiko batzuren alboan, bere-beretik ukitzen ditu gaiak, beti ikuspuntu orijinala bilatuz. Etxezarragaren poema asko, sorpresa bihurtzen dira.

2.2. Bestalde, baserri aldean hezitako imaginazio mundua darabil. Zorionez, ahaztua du baserriaren bukolikotasuna, baina, dena dela, ikuspuntu hori darabilte horren poemek. Izadiaren arrastroaz taxuturiko olerkiak dira.

Hau frogatzeko, hiru arrazoi otuten zaizkit:

1. — Kanpo semantiko batzu egingo bagenitu gain-gaietik, laister egingo genuke naturaltasuna eta izadi kutsua dituen kanpo semantikoa. Lurra, zerua, itsasoa, landareak, patiaña, oso giro natural eta izadiagaz zerikusi handia dutenak dira.

2. — Uka ezina da hiri giroan desarroitzen diren poemak ere badirena. Hiru aipa ditzakegu: «Santutxuko aldapan», «Via Crucis» eta «Via Viejako haur». Nire ustez, lehena da liburuan dagoen poemarik ahulena (estruktura faltaz, elementu ezberdinen pilaketak ez du ezer lortu). «Via Crucis» iluna gertatzen da. «Via Viejako haur» izan daiteke hiruretan aipagarriena. Hiriko poemen indar faltak ere, kontrastez, indartu egiten ditu izadi kutsukoak.

3. — Liburuaren hasieran, Barandiarani zor diona aitortzen du idazleak. Ez dut uste influenza hau nolana hiko denik. Nire ustez, liburuan badaude euskal sineskeriei, euskal ohiturei buruzko aipamenak. Hauek ere indartu egiten dute aipatutako tentsioa.

2.3. Estiloaren barruan aipatu beharrekoa da, halaber, Etxezarragak erabiltzen dituen tonu ugariak. Ez da tesitura bakarreko olerkaria. Nire ustez, tonu bi agertzen dira nagusi: gorago aztertuta geratu den ezina, eta liburuan zehar askotan agertzen den ternura.

### 3. Etxezarragaren akatsak

Komentario honetan esana dugu jadanik, idazle berri bat dela. Horregatik ez da harritzekoa akatsak izatea.

Nire ustez, hauek dirateke inportanteenak:

3.1. Liburuaren lehenengo olerkietan (denboraz ere lehenak direla ematen du) gaia: hitza, sakontasunik gabe erabiltzea. Oso azaleko tonoa darabil. «Hotzak» geratzen dira, hurrengo poematik urrun. Nire ustez, hutsok karakteristika bitan biltzen dira: Tradizio modernista jarraituz, poema laburrak egitea (liburu guztian ez dago hain laburrik), eta forma gaia baino gehiago begiratzea.

3.2. Giro urbanoan kokaturiko olerkiak, lehen ere komentatu dut, ahulak iruditzen zaizkit. Beraz, gai hau berriz ukitzekotan, sakondu eta desarroilatu egin beharko du.

3.3. Etxezarragak iluntasunean jausteko arriskua du. Poesia pertsonal baten aurrean gaudela esan dugu. Poesia pertsonal hori eraikitzeko, bere bizitzan zerikusia duten izen, leku izen, pasadizuak erabiltzen ditu askotan. Izenok inportanteak dirateke idazlearentzat, baina irakurlearentzat ilun getta daitezke izenok (Mikel, Saldrapo, Latasa) eta erreferentzia pertsonalok. Argitu egin behar zituen.

Beste arrazoi bategatik (eta honek niretzat ez du kritikagari izan behar), poesia batzuk zail egiten dira, batez ere liburuaren azkenengoak. Zailtasun hori, batzutan, sakontasunaren fruitu da; beste batzutan, konkrezio faltarena.

3.4. Liburuan gutxitan entseiatzen da poesia narratiboa. «Bihotza astrillaturik» da generoan aipagarriena. Eta zerbait falta du. Klabe narratiboak ez dio indarrrik eman poemari.

3.5. Ez dakit oraingo hau akatsa denik, baina gutxienez liburuan faltan aurkitzen den zerbait da. Heriotza presente dago liburuaren pasaje zenbaitetan. Olerkariarentzat gai inportantea dela esan nahi du honek. Eta... zergatik ez dio olerki oso bat eskaini? Pixka bat arraro egiten da.

3.6. Gorago idatzia geratu da, asko pentsatzen duen idazle baten antza ematen duela Etxezarragak, eta poemak ondo e- strukturatuta eskaintzen dituela. Hurrengo liburuan, nik uste, liburuaren barne egitura kontutanago hartu beharko luke.

<sup>1</sup> Jesus ETXEZARRAGA: *Olerki solteak*. Leopoldo Zugaza, Irrisko xorta 4, 57 or.

<sup>2</sup> Aitortu bakoa Gandiaga da, baina honen aztarna liburuan zehar aurki daitezke.

## B. Atxagaren ETIOPIA

Jon Kortazar

### Sarrera

Inoiz, etorri beharko dugu abangoardi literaturak gaurko euskal literaturan zein pisu duen aztertzeraz.

Badabil Euskal Herrian jenderik literatura berria, azken momentuko estiloagaz kontaktatu nahi duen literatu egiten: Ustela Saila eta Pott aldizkarikoak, B. Atxaga delarik talde honen buru eta bultzatzailea.

Horren azken liburua dugu *Etiopia*<sup>1</sup>. Liburu honek izan du K. Izagirrek egindako kritika bat<sup>2</sup>; aurrean dugu lan hau has-terakoan.

Liburua komentatzen hasi baino lehen, ohar batzu egin nahi nituzke. *Etiopia* ez da liburu erraza. Irakurle honek ez daki liburua ondo ulertu duen ala ez, azken baten liburua ez delako «ulertzen»: liburu hau sentitu eta barrutik dastatzeko egina dugulako.

### 1. Gaia

Liburuaren gaia, bidaia bat da eremuan zehar. Eredu latz batetik Etiopiarantz. Herri hori sinbolo moduan erabilia dago, jakina. Bakartasuna, biguina, eta paradisu faltaren sinboloa.

Bestalde, eguzkiaren indarra (poesia?) watio eta voltiotan neur-

tzen duen hiri deshumanizatu (Bilbo?) baten sinboloa da Etiopia, nire ustez.

Bederatzi zirkulutan egiten da bidaia. Zirkulu bakoitza muga bat da, poesia galdu duen mundu batetarantz.

## 2. Estructura

Ez nuke liburuaren aurkibidea bakarrik komentatu nahi, bederatzi zirkulutan ematen den bidean dagoen estructurea ere komentagarria bait da. Estructura mota biak aipatuko ditugu orduan: liburu osoarena eta zirkuluena.

1) Izagirrek dioenez, liburua biribila da: prosaz lan bi, bederatzi zirkuluok eta, azkenik, beste lan bi: poema ipuin bana.

Lehen bietan, bidaiaren arrazoiak ematen dizkigu idazleak, bederatzi kapituluetan bidaia bera eta, azkenik, ondorioa.

Bederatzi zirkuluek, liburuaren barnean, osotasun apartekoa agertzen dute. Atariak eta azken ipuinek poesia eta poetaren izaera aztertzen dute.

2) Beste estructurea bere-berea dute bederatzi zirkuluek. Zirkulu bakoitza zita batekin hasten da. Zita horretan ziti bakoitzaren gaia aurki dezakegu. Eta gai horiek gero eta hutsago, galduego, itxaropen gabeagoa den giza mundu batetara garamatzate.

Hiru-lau elementu daude, mugari moduan bidaia honetan:

1. — Nigarra. Mundu horri eman ahal zaion erantzun bakarra.
2. — Haurtzaroko mundura itzultzea.
3. — Bizirik irautea, baina helburu eta itxaropenik gabe.
4. — Zorotasunean jaustea edo logika faltan erortzea.
5. — Azkena. Bidaiaren azken lerroek hiriaren (gogora Atxagaren *Ziutateaz*) amaiera iragartzen dute:

...desertuko ibizik eragitearren  
Ziutaterantz.

## 3. Etiopia

«ETIOPIA, lur anonimoaren bihotza, basamortuzko erre-suma»<sup>3</sup>.

Esan dugu ez dela erraza *Etiopia* liburua: sinboloz beterik,

surrealismoa jarraituz askotan, inkoherentzi bila beti. Esana da-go, baita, *Etiopiak* liluratua uzten duela irakurlea nahiz eta oso-rik ulertu ez. («Liluratu» ez da, agian, hitzik zehatzena: harri-tua, bake faltaz geratzen da irakurlea; egia ezagun eta molesto bat, larritu egiten duen egia bat jarri diote begi aurrean).

Baina zeintzuk dira hori lortzen duten elementu literarioak?

1) Liburuaren hasierako lan bietan agertzen den motiba-ziorik ezak, erdi misteriotsu, erdi logika faltazko mundu batetan murgiltzen gaituzte: «Baina ez da argi ikusten mespresio horren zergatia» (7 or.). Indartu egiten da ziurtasun falta hori, Duvoi-sin kapitainaren aipamenagaz: nik ez dakit, dio idazleak; beste honek dio. Beste horren testigantza, gainera, ez da zehatza, ez da testigu. «Zerbait jakitea ez da batere erraza» (13. or.).

Motibazio ezak, nondik datorren ez dakigun mundu batetan jartzen gaitu: mundu pixka bat misteriozko, arraro, eta, ooren gainetik, absurdo batetan.

2) Dramatikotasuna: «Edonon aurki genezake dramatikota-suna» (43. or.). Liburu osoan daukagu aurrean dramatikota-sun hori. Kaini gertatutakoa dramatikoa da, dramatikoa Pioleten egoera; biitzaren dramatikotasunetik bidaia bat egin ostean, poeta izateagatik, idazleak berak sofrituko du drama.

3) Baina ez dugu idazlearen tonoa ondo deskribatuko, bal-din dramatikotasunaren alboan, samurtasuna jartzen badugu. Li-buruan agertzen diren pertsonaiak, bakarrik eta maitasun bila dabilzala dirudi. Babes bako pertsonaiak dira, errukarriak.

*...ekia ez da 220-60W gorbatahun  
tigre funtzionala (51. or.)*

Esaldiak duen ironia guztiaren gainetik, «tigre» sustantibo horrek ohore brilo bat ematen dio oraindik eguzkiari.

Samurtasun hau, hirugarren zirkuluan aurkitzen da batez ere. Horko Ainhoa izaera delikatu bat dugu, arratsaldeko giro epel fin batetan, hitz batetan errakuntza txiki bat nabari zaiola-rik. Edo «KATYren heriotzea...» Ainhoak kontaturik, edo bes-te gauza asko kontaturik heriotza oroimen artean galduz.

3) Lirika eta errealitaterik tristenak batzea:

*arrabita baldarren nostalgia kantoietan  
eta haruntzago, moskorrak  
kalegarbitzaileraren beilegi bizia  
beste zubi bat, prostitutak (52. or.)*

5) Eta azkenik, tono ezberdinak nahastea azken tono baten bila: itxaropen falta. Gizonaren bizitzak gutxienez pelikula bat merezi du, irratian diska bat dedikatzea; baina pelikula hori ez da, zihur, onenatarikoa:

*Bide herriak bilatzen zebilen gizonaren kaso  
Ez da gai txarra filme batetarako  
Baina zergatik, edo non, nor, no comment (80 or.)*

Desaliento hutsa ageri duen liburu honetan ez dago zorionik. Egon dagoena ere, gizarte kontsumistak ematen duena da, plasztifikatua eta ondo enpaketatua:

*...Zorionak.  
Yogurth fantastikoekin aurreratuko dugun diruagatik  
(111. or.)*

6) Aztertu gabe dugu oraindik, zein paper jokatzeko duen poesiak mundu ustel horretan. Poesiak ez du lekurik: lagun batek egingo du poeta azken ipuinean, eta hau («Gauza guztiak esanak zeuden jadanik» [111. or.]) dena esana duen mundu batetan aurkitzen da.

#### 4. Estiloa: oharrak

Estiloa ez dugu inoiz ondorio zientifiko bihurtzen. Ezina da. Horregatik, ohar batzu egiten saiatuko gara.

1) Hasteko, alde batetik prosa eta bestetik olerkia bereizi behar dira. Alde bietan elementu berdinak egon arren: barre tristea, absurdoa azpimarkatzea (kausalitate faltaren ondorioa), badituzte elementu ezberdinak ere.

Prosan, sintaxia nabarmentzen da. Esaldi luze eta matizatuak.

Olerkietan, hizkera ebokatzaila da. Liburuan agertzen diren elementuak ez dira arrotzak hirian (elektrizitatea, trenak, zinea, tximiniak), baina esaldi barruan daudenean berriztatu egiten dira, itxuraldatu. Forma askotan lortzen da sorpresa hori, nahiz eta inkoherentziak josiak izan. Dena dela, nik joku horren ondorio bi ikusten ditut garbi-garbi:

a) Samurtasuna:

*Bidaia luzetan bihotza zartatzen zaie  
kargako tren ilunei (111. or.)*

b) Lirika:

*masustak ixiltasuna brodatzen* (63. or)

*zinta multikoloreak ormetan*

*ixiltasuna kulunkatzen*

*tximinien loa zainduz* (51. or.)

2) Argi dago Atxagak aberastu egiten duela lana aipamenen bitartez. Ugariak dira liburuan zehar herri literaturako eta idazleen aipamenak.

## 5. Azken begirada

Ez nuke lana hitz batez mugatu nahi. Aberatsa dela uste dut; buruz baino gehiago, bihotzez irakurtzeko poema liburua. Punturik aipagarrienak aipatuak daude jadanik.

Akatsak?

Honelako lan literarioen aldekoa ez denak mila aurki ditzaie. Izagirrek hauek aipatzen ditu bere artikuluan: «Itzulpenen alferrikotasuna eta agian landueza, zenbait prosazko pasarte eta «Eguneroko bizitza ikatza...» poema luzea beste nonbait hobe leudekeela ustea»<sup>4</sup>.

Bestalde, amaiera baino hasiera hobe dute zirkuluek, nire ustez. Hala ere, zazpigarren zirkuluan dagoen «Harea lurrik anonimoena» (87. or.) poema liburukoetan onenetarikoak da, nik uste.

Azertuen artean, poema horren alboan jartzekoak dira «Kain. Abel», «Begia egien berriro» (63. or.), «Jarri zara bidean. Ba zatoz Etxahun» (107. or.) «Francis Picabiak» (111. or.) eta azken ipuina (115. or.).

Badakit, honelako liburuek ez dutela irakurle sutsurik izaten (irakurlea bankada berean arraunketan ez badabil behintzat); baina progresiak eta modak alde batetara utzirik, *Etiopia-k* badu, literatura on bat non dastatu. Abangoardiako euskal literatura-ren hesparruan, fruitu gozo bat dugu dudarik gabe.

<sup>1</sup> Bernardo ATXAGA: *Etiopia*. Pott liburutegia. Santutxu-Bilbao. 118 orrialde.

<sup>2</sup> IZAGIRRE, K.: *Etiopia*, Zeruko Argia, 796, abuztuak 6, 1978.

<sup>3</sup> IZAGIRRE op. cit.

<sup>4</sup> IZAGIRRE: op. cit. 49 or.

**Jaso ditugu**

- AYESTARAN eta beste: **Euskadi y el Estatuto de Autonomía**. Erein. Donostia. 266 or. 23,5 x 17 zm.
- CASENAVE, Jon — LARZABAL, Mattin: **Azkenean Dilindan**. Ustela saila. 140 or. 20,5 x 12 zm.
- GEREÑO, Xabier: **Mitxino Katua pozoiez hila**. Egile editore, Pipa saila 4. Bilbo, 1979. 116 or. 17,5 x 13 zm.
- GEREÑO, Xabier: **Zumalakarregi euskal buruzagi**. Egile editore, Zubi saila 3. Bilbo 1979 116 or. 17,5 x 13 zm.
- LEGASSE, Marc: **Euskararen ebangelio eta apokalipsia / Evangelio y apocalipsis del euskara**. Txertoa. Donostia, 92 or. 20,5 x 14,5 zm.
- LIZARRALDE, Pello: **Hilargiaren hotzikarak**. Ustela saila. Donostia, 1979. 40 or. 20,5 x 12 zm.



## «Historiarik gabeko» Iparrari buruz zuzenketa batzu

Piarres Xarritonek oso ongi ezagutzen du Euskal Herria eta batez ere gure Iparralde hau; Iparraren berezitasunak ulertzeko beharrezkoa den sena sortzeak eta bizitzeak ematen diote, eta hegoaldeko ikerle batek ezin lezake irakurketen bidez sen honi lortu. Horregatik onartu behar dizkiot nere lanari buruz egiten dizkidan kritikak, bereziki nere artikulua honetan ilun, hedagabe, hunkigabe edo matizazio eskasaz agertzen diren puntuei buruz.

Halere, zerbait argitu eta azpimarratu nahiko nuke, alegia, nere artikulua duen funtsa egokia deritzadala, eta funts honi buruz han esan nuenari nagokiola gaurregun ere. Ez dut nik kolonialismoak egindako politika zapaltzailea ukatzen, ez eta ahazten ere gure historia ikertzeko kolonialismoaren pean gertatu den herri baten iragana aztertu behar dela; hau ahaztuz ezin uler daiteke gure egoera, noski. Bainan nere lantxoan azpimarratu nahi nuena beste gauza bat zen: arazoa holan aurkeztu nion nere buruari (eta irakurleari): zeintzu dira, gure gizarte honetan, haren barne-egiturari, zapalkuntza koloniala onar dezagun ari diren indarrak? Edo, klasez sailkatu eta etsaiturik dagoen gizarte bati buruz mintzatzen ari garelako, galdera hau beste era batez egin dezakegu: zeintzu dira zapalkuntzari gizarte-zilegitasuna eta eramangarritasun pertsonala ematen dizkieten klase harremanak?

Hona hemen funtsezko galderak, eta abiapuntu hauen arabera irakurri behar dira erantzunak. Hegoaldeari buruz egin nuen bezalaxe, kolonialismoaren konplizeak eta baliatzaileak izendatu egin nituen.

Jarrera hau, duda gaberik, aski mingotsa gerta dakiguke, batez ere gu bezalako euskaldun batzu (edo asko) zapaltzailezat salatu egin behar dugulako. Euskal batasunaren mitoia (eta agian mito hau

barne-nahikunde sakon eta psikologiko bati dagokio) kolokan ezartzen da, eta euskaltzale askoren ihardunerak eta zioak ikertzerakoan klase zapaltzaileen mirabeak zirela esan behar da, haien euskal garbitasuna zapalkuntza sozialaren lohiaz itzaltzen dugularik. Baina, nahiz ezagutzaren aldetik nahiz politikaren aldetik, jarrera honek ba du bere garrantzia. Ikus dezagun gure Iparralde hau, eskuindarren eskuetan; Pariseko kolonialismoa gure etsai nagusia dela ukatu gabe, ikus dezagun nola gihartzen den gure barne-egituretan. Noski, telebistan, eta zergetan, eta eskoletan, eta turismoari menperatua dagoen politika ofizialean; baina, zerk ematen dio egoera honi zilegitasuna, zerk egiten du gure herri xehearen gehiengoak politika hau onar dezan eta, are eta gehiago, Pariseko konplizeak etengabeki eta lehen itzuliaz hauta ditzan? Intxauspe eta bere antzekoak gaur (Ybar-negaray eta bereak atzo bezala) ez dira soilki Parisetik igorritako ordezkariak. Ez, benetan. Hemengoak ditugu, euskaldunak gu bezala, eta euskalduntasun honetan datza haien gizarte-boterea; diruak, egin-kizun sozialak, ezagutzek, giza harremanek, famili historiek, ematen dizkiete gure aberkideen gainean dituzten ospe eta eragina. Lekuko notableen eginkizuna dugu gure egoera ulertzeko behar den hari nagusia. Eta eginkizun hau ikertzeko, gure gizartearen barneko estrukturak aztertu behar ditugu, ekonomia, soziologia eta psikologia baliatuz. Gainera dezagun puntu bat: hemen, gurean, berezitasun nazional eta erligiosoek garrantzi eskerga daukafela, eta berezitasun hauek baliatu izan dituztela gure jauntxoek, Eliza lagun, haien botereak irauan dezan.

Horretaz ari da nere artikulua. Herriak berak jasandako egoera aztertzerakoan ez da haren sorte dorpeaz aiumak eta negarrak botatzeko egiten, ez: egoera honek, agian, esplik diezaguke zergatik herriak onartu duen jauntxoek lehentasun soziala eta, auskalo, esplik liezaguke ere nondik hautsiko den estekatzen gaituen katea astuna.

Nire ustez, gure aberriari buruzko ezagutza aberastu nahi badugu, ez zaigu aski atzerritarrekin ditugun hauziak azertzea. Onar dezagun gure gizartearen barne-kontradikzioak ikertzeak ez digula kalterik egingo; bai, euskaldunen arteko etsaigoak eta liskarrak argitzerakoan ederrak hartuko ditu gure batasunaren mitoak, baina, agian, hor datza gure borroka eragikorra izan dadin behar den pentsaera.

**Beltza**

## «EUSKERAZAINTZA»ren joku zintzoa

Atsegiñik aundienarekin goaz «EUSKERAZAINTZA»ren zintzotasunaz mintzatzera; eta, ori egiñaz, euskaldun oro ain maite duten idazle ospetsu batzuek, (Amatiño, Knör, Xarriton), biotzeko estutasunetik ateratzera. Gu oker ibilli ote giñalaren kezka mingarriak eraginda itzegin bait zuten, oñazez, EUSKERAZAINTZA'ren zintzotasun-faltaz. EUSKERAZAINTZA'k, alegia, ¿ez ote zuan Barandiaran'en izena bere akademilarien zerrendan, artarako eskubiderik gabe sartu?

Gu lasai giñauden, ba giñakigun bâ Barandiaran'en onetsia ba genduala. Eta ez genduan gai orretaz ezer idatzi, ez noski jaun kezkatu aien biotzak lasaitzeko gogorik ez gendualako, Barandiaran ez atsekabetzeagatik baizik, ziur uste genduan bâ, arri bere izena izparringietan gora eta bera ikustea ez zitziola atsegin izango. Ez zan okerra gure ustea. Ataun'era, berarekin itzegitera joan nintzanean, auxe esan bait zidan berak: «Adizu, Bixente: ez dit batere atsegiñik eman nere izena izparringietan orrela erabillia ikusteak».

Baña orain, Xarriton adiskideak «Jakin»en azkeneko zenbakian, emeki, ain bere duan xamurtasunaz mintza dan ezkerok, erantzun bat idazteko agindua eman dit «EUSKERAZAINTZA»k, ni bait naiz «EUSKERAZAINTZA»ren Bazkun Eratzalleko bazkideetako bat. Nortasun orren eragiñaz joan nintzan Ataun'era ere, Karrera'tar Yoseba lagun nuala, Barandiaran'ekin alkarrizketa baten auzi au dana erabat argitzero. Ara zer esan zidan Barandiaran'ek:

— Iru aldiz izan dala leen ere akademilari egiña. «Real Akademia de la Lengua» españarraren partetik aurrena eta «Euskaltzaindia»ren partetik gero bi aldiz, («korrespondiente» lendabizi, «numerokoa», ondorean andik urte batzuetara).

— Iru aldi oietan, gauza bera erantzun diela akademiku egin duenei: bera izkuntzalari ez dala, izkuntzalarien artean zer egiñik ez duala, eta, orregatik ez zizaiela sekulan billeretara joango. Eta ez dala iñoiz, esan bezela, aien billera eta batzarretara joan.

— Iru aldietan, berari aurretik iñork ezer esan ez ziola izan dala akademilari egiña.

— Oraingo laugarren ontan ere, bere izena izparringietan, «EUSKERAZAINTZA»ren zerrenda batean, ikustean jakin zuala ostera laugarren aldiz akademilari egiña izan zala.

— Oraingo ontan beintzat ba zekila zergatik izan zan akademilari egiña: bera, biotz osoz, «Kardaberaz Bazkunekoa» dalako.

— Bere izena izparringietako zerrenda artan ikusi zuaneko egun artan Arantzazu'ra joan zala, eta, an, Akademi bat sortzearekin zer lortu nai zan galdetu zion Billasante'ri, neri esana bera, ots, idatzirik daramazkidan lau puntuu oiek danak esanaz, erantzun omen zion. (Barandiaran'ek berriro birresan zizkidan neri, Billasante'rekin izketan ari balitz bezela, bost punttuek).

— Andik egun batzuetara, galdera berarekin, Knörr gasteiztarraren eskutitz bat jaso omen zuan, eta Billasante'ri esana bera erantzun omen zion.

— Egun batzuek geroago, Elosegitar Yosu, «EUSKERAZAINTZA»ren idazkaria joan omen zitzaion Ataun'era, eta onek argitu omen zizkion gauzak.

— Oartu omen da: Berak Billasante'ri eta Knörr'i esandakoari garrantzi aundia eman omen diote batzuek.

— Baña «EUSKERAZAINTZA»k bera, aurretik ezer galdetu gabe, Euskerazain izendatu ba'du ere, «EUSKALTZAINDIA»k ez omen du zertaz asarreturik, ori bera egin bait omen du bā «EUSKALTZAINDIA»k ere, ta bi aldiz gañera.

Zalantzarik gabe, «Barandiaran» esatea eta «Egia» esatea, mundu guztiarentzat, gauza berdiña esatea da. Baña beste aldetik, «Jakin»en irakurleek ondo ezagutzen dute Elosegitar Yosu, eta «Jexux» esatea ta «Egia» esatea gauza berdiña dirala ere, zalantzarik gabe ba dakitena gauza da.

Ara bā...! Jexux'ek dio, baietz, galdetu ziola urrutizkiñez Barandiaran'i, izparringietako zerrenda-argitaratze guztiak asi baño lēnago, ea «EUSKERAZAINTZA»n Deduzko Akademilari izan nai zuan, eta arek, bere adiña, izkuntzalari ez izatea, eta billeretara ezin joana aurkeztuaz erantzun zionean, «ez gizona»; esan ziola, «guk zure ize-naren itzala nai degu «EUSKERAZAINTZA»rentzat, eta arek, «bai gizona», erantzun ziola, «ori besterik ez baldin ba'da, bai».

Ez da zalla arrigarrikeri onen azalpena: Urrutizkiñaz izan bait zan alkarrizketa, urrutizkiñarena da errua. Edonork daki urrutizkiñaz itz bat galtzea zeren erreza dan. Barandiaran'ek ez zuan seguruaski «deduzko» izena entzun. «Akademilari» bakarrik entzun zuan; eta gero, Jexux'ek, bigarren esakizunean, «itzala» eskatu zionean, soilki itzal ori ematen zuala uste izan zuan. Ala're..., ez nuke amaitu nai Barandiaran'ek Ataun'en esan zidan au aipatu gabe: «Aurreneko unean, nik jakin gabe izan nintzala Euskerazain egiña, esan bear nuan nik nai-ta-nai-ez; orain, ordea, ezin dezaket esan nik jakin gabe naizenik; eta, nik nai gabe, askoz gutxiago».

**Latiegi'tar Bixente**

■ Joan Mari Torrealdayk JAKIN 9.ean 1978ko liburuez argitaratu zuen zerrendari, osatzearren, ohartxo bat erantsi nahi lioke. Zerrenda eratu ondoren argitaratu direlako edo beste arrazoirien batengatik iazko liburu sailean aipatu gabe gelditu ziren liburuok:

- 1) **Andereño**, (b) Xabier Gereño. Kriselu-L.H.A., Donostia, 160 or.
- 2) **Emakume abertzale Batza. La mujer en el nacionalismo vasco** (e). Vol. II. Policarpo de Larrañaga. Auñamendi, San Sebastián. 188 p.
- 3) **Emakume abertzale Batza. La mujer en el nacionalismo vasco** (e). Vol. III. Policarpo Larrañaga. Auñamendi, San Sebastián. 176 p.
- 4) **Amayur...! Los últimos navarros**. (b). Vol. I. Auñamendi, San Sebastián. 250 p.
- 5) **Amayur...! Los últimos navarros**. (b). Vol. II. Auñamendi, San Sebastián. 188 p.
- 6) **Diccionario Enciclopédico Vasco**. Vol. IX. Decli-Echats. Auñamendi, San Sebastián. 612 p.
- 7) **Arte, Lengua y Literatura**. Vol. I. Literatura (b). Auñamendi, San Sebastián. 732 p.
- 8) **Historia General de Euskalerría. — 221 a. de C. a 476 d. de C. Epoca romana**. Bernardo Estornés Lasa. Auñamendi, San Sebastián. 616 p.
- 9) **Tomando posiciones**. Bultzagilleak. Itzaropena, Zarautz. 68 p.
- 10) **Las Vías de nuestro proceso político propio. Navarra, clave del desarrollo político vasco**. Bultzagilleak. Itzaropena, Zarautz. 56 p.
- 11) **Ante la nueva Constitución**. Bultzagilleak. Itzaropena, Zarautz. 30 p.
- 12) **¿Qué pasa en el País Vasco?** Bultzagilleak. Itzaropena, Zarautz. 98 p.

■ JAKIN 9.can, 5. orrialdean, *Gure eritziz* saileko «Ipar Euskal Herria, berrikuntza bidetan» lanean, Janbattitt Goienetxe agertzen da idazleen artean. Goienetxe barik Etxeberri behar zuen esan. Baina, azken momentuan, honek ere ez du eskuhartzerik izan, mahain inguruan salbu.

■ JAKIN 9.can, 47. orrialdean Jon-Luis Davanten «Ipar Euskal Herriko indar politikoak» artikuluafrantses laburpenean irar-huts pare bat dago:

1) Lehenengo *c* puntua, Mitterrand-en en Rocard-en alderdi sozialistaz ari da, eta ez P.R. delakoaz. Horren lekuan beste testu hau behar da ezarti:

c) Le P.R. (Parti Républicain) est l'organisation des libéraux giscardiens. Issu de la vieille droite libérale d'Antoine PINAY, il affiche un réformisme qui se limite souvent, dans la pratique, á un ravalement de façade. Faiblement implanté au Pays Basque, contrairement aux deux autres partis de droite, il est très proche aujourd'hui du C.D.S., auquel il s'est lié dans l'U.D.F. (Union pour la Démocratie Française).

2) Pasarte honi, ezker aldeko alderdien zerrendak jarraitzen dio:

2) *Ceux de gauche*:

a) *Le P.S. (Parti Socialiste)*. Hemen joan behar duen testua *c* puntuan agertzen da).

# JAKIN

## IPAR EUSKAL HERRIA (II)

ARRANTZA - KULTURA  
IRAKASKUNTZA - KANTA BERRIA

Basurko, J. — Etxezaharreta, L. — Ehulatei, P.  
Gasteiz, X. — Gelos, R. — Heguy, D.  
Idirin, M. — Ithurbide, M.

Linguistika eta herrigintza

Puebla 79

Rikardo Arregi, hamar urte geroago

Apirila  
Ekaina

10

1979

Liburu gabeko gerrateondoa • Valencian «katalanezko»  
mezen aurka • LANTZEN: ELAren aldizkari berria •  
Euskara batua eta euskalkiak • Euskerazaintzaren jokua





**JAKIN**

aldizkaria • Gral. Mola, 23 1.º esk. • Donostia • tel. 27 17 13

Urteko suskripzioa: 900 pta. Alea: 275 pta.